



## ELIZARA ERABILTZEKO LIBURUA

**Joanes Etxeberri «Ziburukoa»**

Iturria: *Elizara erabiltzeko liburua*, Ioannes Etxeberri. Mongiron Milanges, 1665.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebZibuElizara.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **ELIZARA ERABILTZEKO LIBURUA**

Ioannes Etxeberri dotor theologoak egiña  
eta Iaun noble Bertrand de Etxaus  
Turse arxiphizpiku digneari dedikatua.

Bordelen I. Mongiron Milanges,  
Erregeren inprimatzaille baithan.  
1665.



## DEDIKAZIONEA

**Iaun noble, Bertrand de Etxaus  
Sorbonako doktor iakinsun  
Tursko arxipizpiku digne,  
Erregeren predikari famatu,  
eta konseiller zuhurrari**

Damu nuke, o Iaun Etxaus  
Nere iabe noblea  
Eta Franziako prelat,  
Guztien ohorea

Ez zuri dedikatzeaz  
Neure obren gohiena,  
Denaz gero exenplu,  
Berthute ederrena.

Halako ezaguturik  
Du gurre erregeek,  
Hautatu zaituzte bere  
Konseillari nobleek.

Egiteko gaitzenetan  
Zutzaz dire gidatu,  
Zure adimendu onaz  
Askotan progotxatu.

Zuk Franziako eliza  
Darokuzu altxatzen,  
Zuk gure Eskal herria  
Ohoretan ematen.

Hala zuri zordun zaitzu  
Franzia famatua,  
Zuri zordun Eskal herria  
Nihork ez garaitua.

Bereziki ni natzaitzu  
Zeren eta zureaz,  
Konfirmatua izatu  
Bainaiz esku emez.

Nerori anaia aurgarren  
Buruko tenpluan,  
Zenetarik bizi bainaiz  
Bigarrena munduan.

Errezibi zazu arren  
Ene obra aphurra,  
Zeña baita deus gutia  
Dagotzun eredura.

Eta adizazu Dabid  
Gure eskaraz kantatzen,  
Maniureaz dioela  
Bozari ihardatsten.

Askok ohoratu zaitu  
Zeure orientean,  
Nik aldiz egiten zaitut  
Orain okzidentean.

Zure berthute handiak  
Gerotik geroago,  
Zergatik baitire eder  
Eta arraitsuago.

Eztezazula mezipreza  
Othoi borondatea,  
Zutzaz dignea ez izan  
Arren obra enea.

Bañan preza zazu zeren  
Egina den eskaraz,  
Aita Tubalen baitharik  
Dugun hitzte zaharraz.



Esperanza dut eginen  
 Hala duzula, Iauna,  
 Zeren iaiatzez baitzare  
 Zu ere eskalduna.

Ezen dakizun bezala  
 Eskaldunak, zaharrek,  
 Kanten maitatzaille deithu  
 Zituzten erromarrek.

*Ioanes Etxeberri, dotor theologo Ziburutarrak*

## I. ETXEBERRI DOTOR THEOLOGARI

**Elizara erabiltzeko, egin duen  
 liburu hunen gañean, laudriozko koplak**

Alexandreren, Homero  
 Baño hobeagoa,  
 Etxeberri darokuzu  
 Egin liburutxo.

Hark irakatzten zituen  
 Gerlataka arteak,  
 Bañan hunek arimaren  
 Salbatzeko legeak.

Mazedoniar hark hura  
 Zerabillan berekin,  
 Gauaz ere irakhurtzen  
 Ohean argiarekin.

Bañan guk hau gehiago  
 Dugu erabiltzeko,  
 Eta gauaz eta egunaz  
 Bethi irakurtzeko.

Zeren hanbatenez xitzen  
 Duen Homerorena,  
 Zenbatenez salbatzeko  
 Arteak gerlarena.

*Ioan Claveria aphezak*



## HARK BERAK HARI BERARI BERZE LAUDORIOZKO KOPLAK

Burlatzen naiz Garibaiez  
Bai halaber Etxabez,  
Zenak mintzatu baitire  
Erdaraz eskaldunez.

Ezen zirenaz geroztik,  
Eskaldunak hek biak,  
Eskaraz behar zituzten  
Egin bere historiak.

Ezkaraz egin ditutzu  
Etxeberri zere obrak,  
Ohoratu nahiz zeure  
Ahalaz herritarrak.

Zer errefau eder baita  
Hitzkuntza arrotzetan,  
Hura aditzera ematen  
Daroezu beretan.

Esker bada eta aithor  
Duzula berezia  
Zeren ohoratu duzun  
Herritaren mihia.

*I. Etx.*

## ETXEBERRI DOTOR THEOLOGIARI

**Orenetako salmu bazuen parafrasa  
egiñ duenaren ganean,  
bere adiskideak laudoriozko koplak**

Munduz mundu zebillana  
Dabid maniura iotzen,  
Hitzkuntzetara salmuak  
Dituela itzultzen.

Zuk geldiarazi duzu  
Orain gere herrian,  
Ederki kanta detzala  
Aldiz gere mihian.

Arrazoñ zen egiñ zetzan,  
Zergatik Kantabria,  
Deitzen baita Pirenea  
Gere bazter herria.

Berant eragiñarazi  
Arren ezta antsia  
Kanta ederra zeren baita  
Bethi ungi ethorria.

Laudorio bada bihur  
Dakizula zuzena,  
Kantarazitzaille zeren  
Zu baitzare lehena.

*Tristand de Apezte aphezak*

## HARK BERAK, HARI BERARI, BERZE LAUDORIOZKO KOPLAK, SUBIEKT BERAREN GAÑEAN

O Dabiten kanta ederren  
Banarazitzaillea,  
Zure zordun zaitzu eskaldun  
Kopla maitatzaillea.



Tentazioneak urrun  
Diotzotzu khasatzen,  
Eta bihotz tristeziatz  
Betha konsolatzen.

Ariñara zitzen ere  
Diotzotzu nekeak,  
Ahairera dadutzala  
Beharriak erneak.

Hala Saulenak zituen  
Dabid berek egiten,  
Maniureaz zioela  
Aitziñean kantatzen

Laudorio bada handi  
Duzula eskaldunez,  
Laphurtarrez, bizkaitarraz  
Baita nafar iruñez.

## LIBURU HUNEN PARTEAK

Liburtxo hau bi partetan berezten da iakiteko girstinoaren eginbi-  
dean, eta orenetoko othoitzetan.

### Lehenbiziko partean dire

Egun orozko othoitz laburrak.  
Doktrina kristiana.  
Eta kofesatzeko antzea.

### Bigarren partean dire

Orenetako othoitzak.  
Hillen ofizioa.  
Zazpi salmuak.  
Asteko egun guztietako orenak.  
Eta andre dena Mariaren alderako deboziona.

### I. burua

#### *Illhabetheen kontuaz*

Illhabetheen izenak dire zein bere lerroan. Urtharilla, otsailla, mar-  
xoa edo iorailla, aphiñilla, maiatza edo ostaro, erearoa, ustailla, abustua  
edo agorilla, burulla urria, hazilla, abendoa edo lohilla.

Aroa edo sasoña da hirur illhabetheren artea.

Aroen izenak dire, belhartzea, uda, ihartzea edo larazkena, eta  
negua.

Urtheak laur aro ditu, hamabi illhabethe, bi hogoi eta hamabi aste  
eta egun bat, hirur egun eta hirur hogoi eta bortz egun eta sei oren.

Sei oren laur urthe bakhotxeako hek, laur urthetarik laur urthetara  
egun bat egiten dute.

Handik deitzen da laugarren urthe haur bisexteko urthea.

Iragan urthea deitzen da, iaz, oraingoa aurthen, eta heldu dena  
geurtz.



Mendea da ehun urthe.  
Mundua egin zenak du 3833 urthe, aurthen.  
Uholde handiak 3428.  
Iesus Kristo sorthu zenak aurthen 1645 urthe.

## II. burua

### *Ilhargiaren kontuaz*

Bi illhargiaren kontu dire.  
Bata illhargi berriarena eta berzea zaharrarena.  
Illhargi berriaren kontua iakiteko ea noiz hasi behar duen.  
Zaharrarena iakiteko ea zein zahar den edo hasi dela zenbat egun duen.  
Illhargia bethe arteranoko artea deitzen dugu gorapha zeren illhargia gora doan.  
Illhargia ahi arteranokoa deitzen dugu, behera-pena, zeren illhargia behera doan.

## III. burua

### *Illhargi berriaren kontua*

Iakin behar duzu bekin urthe hartako, Epaktaren kontua, zein iakinen baituzu denboren taulatik.  
Gero iakin behar duzu Marxotik zenbatgarren illhabethea, zuk illhargi barria noiz izanen den iakin nahi duzun illha bethea.  
Epaktaren eta illhabetearen kontuak batetara billdu behar zitutzu.  
Eta kontu hark ardiatsten ezpadu hogoi eta hamarren kontura, bañan gibelago gelditzen bada, zenbat egun gelditzen baita eskas hogoi eta hamarretara, egun hartan izanen illhargi berria.  
Eta baldin hogoi eta hamarretara iustuki heltzen bada, hogoi eta hamargarren egun, hartan, izanen da illhargi berria.  
Baldin ordean xitzen badu hogoi eta hamarren kontua, zenbat egunez xitzen baitu, hainberzez hogoi eta hamarren kontua gutituko duzu, hek idoki eta zenbat egun edo kontu gelditzen baitha, kontu artako egunean izanen da illhargi berria.

## IV. burua

### *Illhargi berriaren hirur kontu haukin exenpluak*

#### *I. Exenplua exenpla*

*Epakta illhabetheak hogoi eta hamarretara ardiatsten eztenekoa*

Iakin nahi dut 1635go urthearen burullean, zenbatgarren egunean izanen den illhargi berria. Konda zazu behin Epakta, eta da hamabi, gero konda zazu illhabethea marxotik hasten zarela, eta izanen da zazpigarrena, billtzatza batetara Epaktaren eta illhabethearen kontuak, eta aurkhituko duzu dela hemeretzi, hemeretzitarik hogoi eta hamarretara, edirenen duzu eskas direla hameka, burullaren hamekagarrenena bada izanen da illhargi berria.

#### *II. Bigarren exenplua*

*Epakta eta illhabethearen kontuek, hogoi eta hamarretara iustuki ardiatsten dutenekoa*

Nahi baduzu bada iakin, 1642ko urtheke marxoan noiz izanen den illhargi berria, hunela iakinen duzu, Epakta izanen da 29, eta marxoan lehen illhabethea, bat eta hogoi eta bederatzi dire hogoi eta hamar, eta hala erranen duzu marxoaren 30ean izanen dela illhargi barria urthe hartan eta etzare enganatuko.

#### *III. Hirugarren exenplua*

*Epaktaren eta illhabethearen kontuek hogoi eta hamarren kontua xitzen dutenekoa*

Iakin nahi duzu 1639garren urthena, Abendoan zenbatgarren egunean, izanen den illhargi berria, diot, bada lehenik konda dezazu: Epakta, eta izanen da 26 gero konda zazu illhabethea marxotik hasten zarela lehen erran dugun bezala, eta ediren duzu dela hamargarrena, billizazu bi kontu hauk batetara, eta izanen dire hogoi eta hamasei. Khen ezazu hanbat hogoi eta hamarretarik, zenbatek kontu hura xitu baitute, zein baitire sei egun, eta hala hogoi eta hamarretarik sei khendurik, geldituko zaikitzu



hogoi eta lau. Urthe hartan bada abendoaren hogoi eta laugarrenean izan da illhargi berria.

Hunen berzez illhargi berriaren kontua ikhus ezagun orin illhargi zaharrena.

## V. burua

### *Illhargia zahararren kontua*

Iakin nahi baduzu illhargia zein den zahar, edo zenbat egun dituen hasi dela, hirur gauza notatu behar dituzu.

Lehenik iakin behar duzu urthe hartako epaktaren kontua.

Bigarrenean, zenbatgarrena den martxotik kondatzen hasirik halako illhabethea.

Hirurgarrenean iakin behar duzu, illhabethe haren beraren zenbatgarren den eguna.

Gero hauk hirurez eginen duzu kontu bat.

Eta kontu hark ardiasten ezbadu hogoi eta hamarretara, hainberze egunez zahar izanen da illhargia.

Baldin iustuki heltzen bade hogoi eta hamarretara, hogoi eta hamar egun dituzke illhargiak hasi dela.

Eta baldin xitzen badu hogoi eta hamarren kontua, zenbat egunez xitu baituke, hainberze egun dituzke illhargiak.

## VI. burua

### *Illhargi zahararren hirur kontu haukin exenpluak*

#### *I. Lehenbiziko exenplua*

*Epaktak, illhabeteak eta illhabeteako egunek,  
hogoi eta hamarren kontua ardiasten ezututenekoa*

Iakin ezagun bada aurthen, 1635garren urthean Aprillaren zortzian zenbat daiteken illhargia zahar, kondezazu bada Epakta zeña baita hamabi, konda zazu gero illhabethea marxotik hasten zarela, zein baita bigarrena, gero konda zazu egun hura illhabethearen zenbatgarrena den, eta daiteke zortzigarrena, billtzatu hirur kontu hauk, Epaktan hamabi marxotik, illhabethe bia, illhabetherak iakiteko Aphirillak zortzi, hirur kontu

hauk billtzen dire hogoi eta bietara, igun hartan beraz illhargiak hasi dela dituzke hogoi eta bi egun eta hala izanen ditu.

#### *II. Bigarren exenplua*

*Epaktas, illhabethea eta illhabeteako egunak  
hogoi eta hamarren kontura iustuki heltzen direnekoa*

Nahi baduzu iakin 1635garren urthean, Aphirillaren hamaseian, illhargia zein zenz zahar edo zenbat egun zituen, konda zazu behin Epakta, zein baita hamabi, gero konda zazu marxotik hasten zarela illhabethea, bia. Finean kondatzatu illhabethe berarek egunak, zenak baitiratezke hamasei, billtzatu orain hirur kontu hauk, Epaktak hamabi, illhabethe bia, eta illhabethe berak hamasei, hirur kontu hauk dire hogoi eta hamar, Aphirillaren beraz hamaseigarrenean, illhargiak zituen hasi zela, hogoi eta hamar egun, eta egun berean illhargi berria hasi zen.

#### *III. Hirugarren exenplua*

*Epaktak illhabetheak eta illhabeteako egunek  
hogoi eta hamarren kontua xitzen dutenekoa*

Ikhas agun urtheborean 1636 Aphirillaren, zortzigarrenean zenbat egun zituen illhargiak, kondazazu bethi lehenik Epakta, zein baitzen hamabi, konda zazu gero Marxotik hasirik illhabetea, bia, gero kondatzazu illhabethe beraren egunak eta dire hogoi eta zorzi, iunkta tzatzu hirur kontu hauk hunela, epakta hamabi, illhabethea bia, eta illhabeteako egunak hogoi eta zortzi, hirur kontu hauk dire berrogoi eta bia, zenbat bada kontu hartan obratzen baita hogoi eta hamarretarik berrogoi eta hamabitara, zein baitire hamabi, hamabi egun zituen Aphirillaren zortzian illhargiak zahar zela. Eta hunela athera beharko dituzu bere illhabethe guztietako illhargi berri eta zaharrak.

## VII. Burua

### *Debozinezko denboren kontua*

Hirur debozinezko denboren kontu dire, karta denborak, abendoa eta garizuma.





Denbora hauk deitzen ditugu debozionezko denborak, zeren denbora hautan berzetan bano othoitz gehiago egin behar baita.

Eta karta denboretan eta garizuman, adiñetara heldu direnak, barurthu behar baitute; Abendoan debozione dutenek.

Karta denborak dire urtheko laur aroetan, belhartzean, udan, ihar-tzean eta negian, hargatik deitzen dire karta denborak edo laur denborak.

Denbora hautako laur astetan, barurthu behar da hirur egunez. Asteazkenean, orziralean eta larunbatean.

Astehek dira pentekoste ondoko lehen astea, santa Kurutz burullekoa, ondokoa Abendoaren hirugarren igandearen ondokoa, eta garizumaren lehenbizi igandearen ondokoa.

Abendoa hasten da S. Andreren bestari hurbillen dagokan igandean edo sant Andres beraren egunean, baldin igandean gerthatzen bada. Akhabatzen da eguberri.

Garizuma dakizun bezala hasten da hautsterriz eta akhabatzen bazkoz.

Ezteiak konzilioaz debekatuak dire, abendoaren lehen igandetik trufaniaraño edo erregeen bestaraño, eta hautsterritik bazko zaharraño, bazko zahar bera barrenean dela berze denbora guztietan egin ahal daitezke.

## LIBURU HUNEN LEHENBIZIKO PARTEA

*Giristinoaren eginbideaz*



## LEHEN TRATATUA

*Egun orozko othoitzez*

## I. ARALDEA

*Edozein ordutako othoitzez*

### I. burua

*Othoitzaeren aitzineko eta ondoko eginbidez*

#### Ur benedikatua hartean Iainkoari

Ur benedikatuz buzti  
Zazu ene bekhokia,  
Eta elhurra nola xahu  
Ene arima lohia.

#### Gurutzitzean

Gurutzearen indarrez,  
Pensamenduetarik,  
Iauna begiera nazazu  
Othoi gaixtoetarik.

Halaber guarda nazazu  
Gaixteki mintzatzetik,  
Finean deus behar ezten  
Gauzarik nahitzetik.

#### Berze gurutzatzea

Gurutzearen indarrez  
Neure etsaietarik,  
Iauna begiera nazazu  
Othoi guztietarik.



## Zinatzea

Aita Seme Espiritu  
Sakratuarenean,  
Gure hitzak eta obrak  
Direlai zenean.

## II. burua

*Othoitzaren hasteko eta akhabatzeko othoitzak*

### Hastean Iainkoari othoitzza

Iaun ona idekitzatzu  
Arren ene ezpañak,  
Ene ahoak dizkitzun  
Laudorio ordañak,

Ezen zuri nola mintza  
Berzela nik eztakit,  
Arren bada zu zerori  
Othoi lagun zakizkit.

### Sainduei hastean othoitzza

O saildu gloriosoak  
Eneken batean,  
Iauna othoitz ezazue  
Bere tronu ederrenean,

Ardiatsteko indigne  
Naizena neuretara,  
Aithor diezadan zuen  
Merezi handitara.

*Othoitz haukin ondoan errakezu debozione duzun othoitzza*

## Akhabatzean Iainkoari othoitzza

O Inongoiko guztiz ona  
Arren neure othoitzza,  
Aboa diezadazu  
Duzun legez puxantza.

Ezazula othoi siega  
Ene pazienza,  
Zeña paitakizu dela  
Eskas eta gutia.

### Othoitzza akhabatzean, sainduei

O saildu titxa onezkoak,  
Arren othoi enea,  
Iaunari diozuzue  
Laudarazi galdea.

Eta zer ere baitu huts  
Egun ene aldetik,  
Zuek estal ezazue  
Hura othoi zeuenetik.

## III. burua

*Othoitz prinzipalak*

### Gure Aita

Gure Aita zeruetan  
Glorioso zarena,  
Errespetuz apha bedi  
Lurrean zure izena.

Egiguzu zeruaren  
Ardiatsteko grazia,  
Eta bethi konpli bedi  
Zure saildu nahia.



Egun oro behar gare  
 Iguzu mantenua,  
 Eta guk berzeri legez  
 Hutsen barkhamendua.

Eztezazula permeti  
 Tenta gaiten borthizki,  
 Bañan gaitzatzu kalterik,  
 Hastanduak iduki.

### **Agur Maria**

Agur Maria zeruko  
 Garaziez bethea,  
 Ezen zurekin da Iainko  
 Gure salbatzaillea.

Hautatua zu zarade  
 Berze emazteen gañean,  
 Nola zure semea baita  
 Gizon guztien artean.

O Maria Iainkoaren  
 Ama bedinkatua,  
 Eta Adamen narrio  
 Gabe konzebitua.

Oren oro zuk dakizu  
 Zer dugun premia,  
 Orain eta azkenean  
 Zakizkigu balia.

### **Sinhetsten dut**

Sinhetsten dut Iainko Aita  
 Ahal guztitakoa,  
 Zeñak kreatu baititu  
 Zeru lur itsasoa.

Gehiago sinhetsten dut  
 Jesus haren semea,  
 Zenak reparatu baitu  
 Gizonaren kaltea.

Espiritu Sainduaren  
 Ganik zen konzebitu,  
 Eta Maria birjina  
 Noblea ganik sorthu.

Herio pairatu zuen  
 Pilatusen azpian,  
 Eta Iosephek ehortzi  
 Zuen thonba berrian.

Linboetara arimen  
 Libratzera iautsi zen,  
 Eta gero hirugarren  
 Egunean biztu zen.

Zeruetara igan zen  
 Eta Aitarenean,  
 Orain glorioso dago  
 Iarririk eskuñean.

Handik ephe iakinean:  
 Iautsiko da lurrera,  
 Hill eta bizi guztien  
 Zuzenki miaztera.

Gehiago sinhetsten dut  
 Espiritu Saindua,  
 Aita eta Semearen  
 Ganik prozeditua.

Elizama saindua dut  
 Oraño kofesatzen,  
 Sainduen oro batasun  
 Ona ere laudatzen.



Halaberki sinhetsten dut  
Hutsen barkhamendua,  
Kofesio hargatik  
Dela bai baptismua.

Aboatzen dut oraño  
Hilletarik bitztea,  
Finean kofesatzen dut  
Bizitze fin gabea.

### ***Abisua***

Hirur othoitz hauk erratziketzu,  
berze othoitz guztien nahiz aitziane an edo nahiz gibelean.

## **IV. burua**

*Othoitz perfekt eta jeneralak, hamekara pontutan*

### **Othoitz perfekta Iainkoari sartzea**

Iaun puxanta, ausartatzen  
Naiz zure othoiztera,  
Burua ezazula itzul  
Arren berze partera.

### **Othoitz**

Zerzaz ertxatzen bait zaitut  
Ahal bezazin debotki.  
Arren esku aberatsaz  
Isur azu frankoki.

### **Eginbide ordaña**

Ordañez bortxaturen naiz  
Ematera ohore,  
Gureganik hura duzu  
Merezi bethiere.

### **Eskerrak**

Milla esker darozkizut  
Hartarakotz graziez,  
Lehenekotz graziez,  
Berriro isuriez.

### **Adorazionea**

Hegien bada aldera  
Lurrerarik humillki,  
Neure podoreaz zitut  
Adoratzen debotki.

### **Lauloria**

Gehiago dudan antzo  
Hoberenaz laudatzen,  
Zeren on guztiak diren  
Zure baithan aurkhitzen.

### **Berzeen gonbidatzea**

Berze kreaturak ditut  
Gonbidatzen harara,  
Biribilla daitezentzat  
Laudorioen kantara.

### **Ofrenda**

Ofrendatzen darozkitzut  
Arima eta lohia,  
Eta guztiz iaioz gero  
Egin obra on guztia.



### Agintza

Gehiago are darotzut  
Egiteko agintzen,  
Baldin eta bizitzea  
Goiz ezpazait faltatzen.

### Othoitza dobla

Haukin ordain laudazazu  
Arren ene othoitza,  
Eta bozkario handiz  
Bethe ene bihotza.

### Ialkitzea

Hala egizu emateaz,  
Gloriateen zarena,  
Eta adizazu  
Bihotzeko auhena.

### Othoitz perfet eta konplitua, edozein sainduri sartzea

Saindu handia, hurbilltzen naiz  
Zure begitartera,  
Ahalkez betherik zure  
Humillki othoiztera.

### Othoitza

Duzun kreditaz puxanta  
Ertxa zazu enetzat,  
Eske nagoen dohaña  
Lauda diezadantzat.

### Eginbide ordanak

Ordain eskatzen darotzut  
Neure ahal guztia  
Zein dagotzun eredura  
Beita gauza gutia.

### Eskerrak

Esker itzultzen darotzut  
Lehengo ontasunez,  
Eta guztiz ere azkenik  
Ardiatsi tutzunez.

### Ohorea

Ohoratzen zaitut ere  
Iainkoaren maitea,  
Zeren ohoratzen duzun  
Dohatsuen kortea.

### Laudarioa

Laudorio eta ohore  
Dagozkitzu handiak,  
Zeren garaitu ditutzun  
Hirur ixterbegiak.

### Gonbidatzea

Zuek ere kreatura  
Lehor zabalekoak,  
Ederki mintza zaitezte  
Bai zuek urekoak.



### Ofrenda

Arima eta gorputzaren  
Osoki zerbitzoa,  
Ofrendatzen darotzut hek  
Errenda ahalekoa.

### Agintza

Hunekien egun eta  
Sekulako agintza,  
Zure faborean baizen  
Ez naitekela mintza.

### Othoitza dobla

Hartarakotz dohatsua  
Arren entzun nazazu,  
Eta galdea ordiats  
Othoi diezadazu.

### Iakitzea

Egundañoz zure baithan  
Izan dut esperantza,  
Zuk diezadazu neure  
Laudarazi othoitza.

## V. burua

*Othoitz eskasak edo pontu benakoak*

### Eta lehenik Iainkoari othoitza

O Iainko, ungi egiten  
Bethi hari zarena,  
Eta ematen behin ere  
Unhatzen etzarena.

Eskatzera zuk zeronek  
Gaitutzu gonbidatzen,  
Lauda diezadazu zer  
Baitarotzu galdetzen.

### Hirurtasunari othoitza

O Hirurtasun, gizonak  
Ezin ezagutua,  
Zeronek argitu gabe  
Haren adimendua.

Zure admiratzeko othoi  
Egidazu grazia,  
Eta bear guztietan  
Zu zakizkit balia.

### Iainko Aitari othoitza

O Jongoiko Aita zeñen  
Adimendu handitik,  
Seme enjendratua  
Baita eta fin gabetik.

Zuk egin diezadazu  
Arren othoi grazia,  
Obra sainduetan neure  
Fiñatzeko bizia.

### Iainko Semeari

O Iongoikoren seme  
Zuhurtziaz bethea,  
Irakats diezadazu  
Arren zeure legea.



Gero haren obratzeko  
Egidazu grazia,  
Ene iakiteak duen  
Konplimendu guztia.

### **Espiritu Sainduari**

O Espiritu grazia,  
Sainduen ithurria,  
Nauzun othoi urrikari  
Guztiez billuzia.

Hartarakotz zuk nazazu  
Liberalki fabora  
Merezien arauera  
Zu zaitzadan ohora.

## **VI. burua**

*Iesus Kristori, eta Ama Birjinari othoitzak*

### **Iesus Kristoren othoitzak**

Iesus Kristo, zure ganik  
Dugu kristau deitzea,  
Hala zeruetan zure  
Gure lehen habea.

Arren urrikal bekizu  
Ene pena handia,  
Eta lehenbizikorik  
Zu zakizkit balia.

### **Ama birjinari**

O Maria, lurrekoen  
Hurren arartekoa,

Arren adizazu ene  
Othoitz premiazkoa.

Eta enegatik ertxa  
Zazu zeure semea,  
Arren aithor diezadan  
Beharreko galdea.

*Sainduei othoitzak*

### **Saindu guztiei othoitzak**

O dohatsu lurrekoen  
Bitarteko leialak,  
Enplegatatzue gure  
Gatik zeuen ahalak.

Arren bada Iauna ertx  
Ezazue debotki,  
Aithor diezagun eske  
Gaudezena frankoki.

### **Edozein sainduri othoitzak**

O dohatsu, neke izerdiz  
Gloria irabazia,  
Lurrekoei baliatzen  
Zaie zure izerdia.

Iauna ertxa zazu zeure  
Merezien aldera,  
Arren beha dadin ene  
Meneko othoitzera.

*Saindu othoiztekoenei othoitzak*





### Patron sailduari

O gloriosa patroña,  
Zeñi ene kargua,  
Iaun puxantak baitarotzu  
Eman berezitua.

Zaren bethi ene gatik  
Arduratsu kortean,  
Dohatsurik non baitzaude  
Hedoi goren partean.

### Izeneko sailduari

O eialdarte handiaz  
Ene gana bethea,  
Zeñaren merezi gabe  
Baitut izen noblea.

Zeren eske bainagoka  
Iaunari beharrena,  
Hura ardiats diezadazu  
Othoi heren aitziñean.

### Konfrariako sailduari

Zeruetako armadaren  
Saindu agintaria,  
Zeure baldernakoa gana  
Itzul azu begia.

Eta fabora nazazu  
Zure handi ahalaz,  
Bai eta geriza zeure  
Banderaren itzalaz.

### Bere ofizioko sailduari

O dohatsu zeñen baitut  
Ofizioaz usatzen,  
Zu zaitut Iaun puxantaren  
Othoitza behartzen.

Lan berean dihardukat  
Zeñetan zuk munduan,  
Enetzat othoitz ezazu  
Iauna bere tronuan.

### Ahaide eta adiskide salbatuei

O ahaide eta adiskide  
Zerura pasatuak  
Urrikal bekizkitzue  
Ene triste plañuak.

Ertxa ezazue arren  
Iainko ona enetzat.  
Eske nagokan dohaña  
Lauda diezadanzat.

## VII. burua

*Aingeruei othoitzak*

O monarka handiaren  
Kortesano leialak,  
Urrikal bekizkitzue  
Gure indar erbalak.

Eta mundu behereko  
Lazerien artean,  
Begia idukazue  
Erne gure gañean.



### Aingeru begirailleari, othoitza

O aingeru ene gatik  
Bethi gerlan zarena,  
Eta ni iaioz geroztik,  
Unhatu etzarena.

Zuk gida eta defenda  
Nazazu bizitzean,  
Ene eskerrak zeruetan  
Dituzketzun artean.

## II. ARALDEA

*Mugen arauko othoitzak*

### I. burua

*Orenak jotzean*

Esker duzula Iaun ona  
Zeren iragan dena,  
Grazia egiñ darotazun  
Pasatzeko orena.

Hartan egiñ tudan hautsak  
Barkha dietzaduzu,  
Eta berriz erortzetik  
Othoi guarda nazazu.

### Abe Maria ezkilletan

Iaun ona duzula esker  
Denbora iraganean,  
Zergatik iduki nauzun  
Kalteen gerizean.

Hala iduki nazazu  
Neure mendi guztian,  
Esker eta laudorio  
Duzun ene mihian.

### II. burua

*Iaiki ondoko eta etziterako othoitzak*

### Iaiki ondoko othoitza

Iainko puxanta duzula  
Esker ioan den gaean,



Zergatik iduki nauzun  
Gomendio onean.

Dathorken egun guztian  
Hala iduki nazazu,  
Eta ene gañean erne  
Begia idukazu.

Gutziz ere egidazu  
Egundo egun guztia,  
Bekhaturik egiñ gabe  
Pasatzeko grazia.

### **Etziterako othoitza**

Iauna duzula esker eta  
Aithor ene mihian,  
Zeren begiratu nauzun  
Ioan den egun guztian.

Alabañan nik etzaitut  
Bidezki zerbitzatu,  
Arren egiñ tudan hutsak  
Barkha diezadazu.

Eta gaua pasatzeko  
Egidazu grazia,  
Bihar konplitzeko egun  
Eskas egin guztia.

### **III. burua**

*Eskolako othoitzeak haurren zat*

#### **Eskolan sartzeko othoitza**

Iauna ikhastera heldu naiz  
Neure eginbidea,

Zeña baita arimaren  
Salbatzeko artea.

Baita hartara kidatzen  
Duten bitartekoak,  
Hitz, letra, eskribu eta  
Lege gizartekoak.

Arren ene bururari  
Egiozu argia,  
Har dezan irakatsiak  
Daroen zuhurtzia.

### **Eskolako illkhitzean**

O Serafin iakintsunen  
Eskola nausia,  
Irakatztera eman zait  
Zure lege ezta.

Bañan halarik deus ezta  
Nik gogoan hartzea,  
Baldin ezpadut obretan  
Emateko antzea.

Arren bada gauza guztien  
Obrari prinzipala,  
Ikhasien obratzeko  
Zuk indazu ahala.

### **IV. burua**

*Laneko othoitzak nekhazailleentzat*

#### **Lana hastean**

Iainko ona, beha zazu  
Arren ene nekera,



Eta faboreak isur  
Mugaz ene gañera.

Ezen hetzaz billuzirik  
Deus ezin dirot egin,  
Niri laguntzeaz othoi  
Har ezazu atsegin.

### **Lana akhabatu eta**

Eternala duzula esker  
Lana akhabatzean,  
Zeren hagoan iduki  
Nauzun bizkitartean.

Bai zeren darozkidatzun  
Gibelatu trabuak,  
Hartarakotz ditutzula  
Milla eskerren kantuak.

## **V. burua**

*Othuruntzetako othoitzak*

### **Othuruntza aitzinean**

Iainko probeditzaillea  
Iauts zaite mahañera,  
Aitzineko ianharien  
Othoi bedinkatzera.

Guardaizazu biandak  
Egitetik gorputza  
Ontasun haren dizugun  
Frankoki ezagutza.

Gutziz ere egiguzu  
Iainko ona grazia,

Mahañean guardatzeko  
Zuk manu neurria.

### **Othuruntza ondoan**

Esker duzula Iaun ona  
Asko eta hunetzaz,  
Zeren satiatu nauzun  
Bakezki othuruntzaz.

Arren haren konplitzeko  
Egidazu grazia,  
Zergatik gorputza baita  
Ianhariaz hazia.

Zuri podoreaz Iauna  
Bihurtzeko ohore,  
Arren haren konplitzeko  
Egidazu fabore.

## **VI. burua**

*Itsasoko othoitzak marinelentzat*

### **Iainkoari othoitzak edozein orduz eta beregainki tormenta denean**

O Iongoiko, itsasoan  
Gutziz miragarria,  
Perilletik guarda ezazu  
Arren gure bizia.

Hanbat zuri itzulzeko  
Eskerra handiago  
Zenbat baitugu kalteak  
Hartzeko perillago.



### Untziaren patroñari othoitza

O patron saindua, arren  
Othoi zeure begia,  
Gure ganean iduki  
Zazu bethi idekia.

Eta Iauna ertxa zazu  
Arren perilletarik,  
Begira gaitzan ureko  
Izgarrietarik.

### Guardiako othoitzak guardian sartzean

O Iongoiko uholdetarik  
Noe begiratu,  
Zeren munduan bakharrik  
Aurkhitu zen iustua.

Eta ez berriz hain garratzki  
Punitzeko mundua,  
Holtzadarra lekhukotzat  
Emanik agindua.

Arren bada zuk kegaira  
Itsas gaitzean gerthatu  
Ohi direnetarik.

### Guardiatik illkhitzean

O Iongoiko puxant eta  
Zeruko dohatsuak,  
Pausatzera goaz zuen  
Arduren fidatuak.

Arren bada egizue  
Gure orde guardia,  
Perilletarik guardatzen  
Duzuela untzia.

Itzultzean gero berriz  
Guardia egitera,  
Bozkiago ethor gaiten  
Eskerren itzultzera.

### *Marinelai abisua*

Othoiz hauk erran behar dire guztiz guar-  
diakoak berze mugako othoitzen ondoan.  
Erran nahi dut goizean goizeko edo iaiki  
ondoko othoitzak, erran ondoan eta arra-  
tsean arratsekoak eta hala bethiere.

## VII. burua

### *Arrantzailleen othoitzak*

#### Arrantzarakoan

O Iesus Krist Piarresi  
Sarea etxarazia  
Enplegatu zuelarik  
Alferrik gau guztia.

Eta eman ziñoena  
Haren bethe arraña,  
Halakoa egiguzu  
Guri ere dohaña.

Hanbat zuri itzultzeko  
Ordañezko eskerrik,  
Zenbat itsas barrenean  
Baita arrain gorderik.

#### Balea-zaleentzat othoitza

O Iaun Tobias gaztea  
Ungi begiratu,



Guardaritzat bidaldurik  
Arkanjelu saindua.

Eta kostara arraña  
Erakharrazia,  
Haren hiltzeko egiten  
Zinioela grazia.

Guri ere egiguzu  
Arren othoi dohaña,  
Kalte gabe hiltzeko  
Hain izigarri arraña.

### **Balea hillondoko eskerrak**

Iauna ditutzula esker  
Eta laudorioak  
Million eta milion  
Baño gehiagoak.

Zeren egin darokuzun  
Liberalki grazia,  
Idekitzako handien  
Arrañari bizia.

Zure fabora dugu  
Sentitu zombatean,  
Bethi iduki gaitzatzu  
Kateen gerizean.

## **III. ARALDEA**

*Elizako othoitzez*

### **I. burua**

*Elizako othoitzen aitzineko eta ondiko eginbideez*

#### **Elizarakoan othoitza**

Iauna elizera gida  
Tzatzu ene urratsak,  
Zuri bihotz xahu batez  
Egiteko othoitzak.

#### **Etxerakoan**

Iaun puxanta, elizatik  
Itzultzen naiz etxera,  
Etzarela berantiar  
Ene faboratzera.

#### **Elizan sartzean**

Ahalkerekin sartzen naiz  
Zure etxe sainduan,  
Arren iduki ezazu  
Ene artha zeruan.

#### **Elizatik illkhitzean**

Illkhitzen naiz Iaun gorena  
Zure tenplu saindutik,  
Iduki nazazu othoi  
Bethi zeure eskutik.



### **Illharrietan sartzean eta illkhitzean**

Defunktu doloratuak  
Purgatzeko kharrean,  
Arren Iauna ematzitzu  
Errepausu hotzean.

## **II. burua**

*Elizan sarthu eta berehala errateko othoitzak*

### **Iainkoari agurra**

Agur diot Iaun puxanta,  
Zure Iauntasunari,  
Othoitzteko zuk emozu  
Khar ene bihotzari.

### **Trinitateari**

Hirurtasun sakratua,  
Zure khurtzen natzaitzu,  
Behar guztietan othoi  
Zuk fabora nazazu.

### **Korputz sainduari**

Zuri egiten darotzut,  
Iaun handia agurra,  
Errezibi zazu othoi  
Ene ohore aphurra.

### **Gurutzeфикaren aitzinean**

Iesus Kristo ene gatik  
Habean ezarria,  
Zuk diezadazu zeure  
Herioa balia.

### **Ama birjinaren, imajinaren aitzinean**

O Birjina, salutatzen dut  
Zure iduria,  
Zeruan izan ezazu  
Arren nitzaz antsia.

### **Edozein sainduren, imajinaren aitzinean**

O dohatsu, ziñen baitut  
Aitzinean itxura,  
Zeruetan iduzazu  
Arren ene ardura.



## IV. ARALDEA

*Mezako othoitzez*

### I. burua

*Prozesionetako othoitzez*

#### **Igandetako prozesionetako othoitzza**

Iauna, egun zerengatik  
Baitzare ohoratzen  
Prozesionean naiz  
Hargatik abiatzen.

Ene zerbitzoa errezibi  
Zazu othoi gogotik,  
Eta faboreak isur  
Zeure tronu goratik.

#### **Besta buruetako prozesionetan**

Kortesano dohatsua,  
Zure besta egunean,  
Gurutzearen ondotik  
Noa prozesionean.

Hill artean aihortzen naiz  
Zure zerbitzaria,  
Zeruetan zaren othoi  
Ene defendaria.

### *Abisua*

Othoitz hauk, doblatzaketzu prozesionea akhabatu artean.

### II. burua

*Meza aitziñeko eta ondoko othoitzak*

#### **Iganderako eta astelegunetako mezen aitziñean**

O Iongoiko, igandea  
Zeuretzat hautatua,  
Errenda diezazugun  
Zuri ohore iustua.

Arren bada egunera  
Berze ordu guztietan,  
Ene othoitzak laudatzatzu  
Arraiki zeruetan.

#### **Meza ondoan**

Iaun puxanta, konplitu dut  
Uztez eginbidea,  
Zure meza sailduaren  
Elizan entzutea.

Ene ganik falta dena  
Othoi estal ezazu,  
Eta eskatu dohaina  
Aithor diezadazu.

#### **Bestetan sailduen mezen aitziñean**

Saindu handia, zure meza  
Noa egun entzutera,  
Eta zu berzetarikan  
Ararteko hartzera.

Emetasun usatuaz  
Othoi entzun nazazu,  
Eta galdea ardiats  
Othoi diezadazu.

#### **Meza ondoan**

O fortuna onezkoa,  
Aldare aitzinean,





Meza humillki entzun dut  
Zure iai egunean.

Arren Iauna, ene gatik  
Bethi ertxa ezazu,  
Miserikordiaz arren  
Diezadan usatu.

### III. burua

*Meza beretako othoitzak*

#### Igandeko mezan othoitzak

Meza saindu hunen orde  
O Iongoiko handia,  
Indazu othoi eskatzen  
Darotzudan grazia.

Semearen errespetutra  
Ezen baduk fidantza,  
Emanen darotazula  
Eskatzen naizen gauza.

#### Bestetako mezan othoitzak

O Dohatusu zenen baita  
Egin besta burua,  
Zeruetan zaren ene  
Adbokat arthatsua.

Eta meza saindu hunen  
Ariaz nik nahia  
Ardiats diezadazu  
Iauna ganik grazia.

### IV. burua

*Meza entzuteko othoitzak meza zeremonien arauera*

#### Sakristia barrenetik illkhitzean apheza

Othoitzen naiz iautsi zela  
Zure seme bakhoitxa  
Iainko Aita adizazu  
Arren ene othoitzak.

#### Eska zaiten hemen nahi duzun gauza, egizu nahi duzun saindua ararteko

Aldareta igaten da  
Lagunak aitzinean  
Iesus zirkunfezatzer  
Igan zen haur gastean  
Pazientzia indazu  
Iauna othoi dolorean.

Introiboan, da meza  
Hasteko preparatzen,  
Birjina elizan sartzeko  
Halaber prestatu zen:  
Iauna meza entzuteko  
Presta nazazu arren.

Konfiteor, gero aphezak  
Erraten du debotki  
Birjina purifikatu zen  
Tenpluan humillki:  
Zuk nazazu Iauna neure  
Hobenetarik garbi.

*Errazu hemen konfiteor, aphezak ere erraten duen bizkitartean.*



### Konfiteor eskaraz

Kofesatzen natzaitzu Iaun,  
Ahal guztitakoa,  
Bai zuri ere birjina  
Ama gloriosoa.

Bai zuri ere Iaun-doni  
Michel arkanjelua,  
Bai zuri Iaun-doni Iauni  
Baptista dohatsua.

Baita zuri Petri eta  
Paule apostoluak,  
Finean zuri zeruan  
Zareten dohatsuak.

Hekien lekhuari zuri  
Espirituala,  
Zergatik egin dudan huts  
Ezin konda ahala.

Edo obraz, edo gogoz  
Edo dela mihiaz,  
Neure faltaz neure faltaz  
Neure falta handiaz.

Hartakotzat zu zaitut  
Birjina, ama, othoizten,  
Zu Migel arkanjelua  
Halaber suplikatzen.

Zu ere Iaun-doni Iauni,  
Baptista dohatsua,  
Baita zu Iaun-doni Petri,  
Bai Paule saildua,

Finean zeruetako  
Sainduen araldea,

Bai aita espiritual  
Zu halaber neurea.

Iainko handia enetzat  
Suplika dezazuen,  
Neure falten barkhamendu  
Osoa didan arren.

Meza saildua hasten du  
Errespetuz betherik,  
Jesus gure gatik hasi  
Zen nekean gazterik:  
Zure gaitik nekhatzeko  
Indazu faborerik.

Kirieleison, aphezak  
Gero maiz du doblatzen,  
Iesusek ere maiz zuen  
Bere aita othoizten:  
Zure othoizteko kharra  
Iauna indazu arren,

Gloria in excelsis, du  
Gero kantatzen sarri,  
Iesusen sortzean hala  
Aingeru onak hasi:  
Laudatzeko aire ene  
Emozu mihiari.

*Errazu Gloria in excelsis.*

### Gloria in excelsis eskaraz

Gloria duela Iainko  
Onak zeru gorean,  
Eta gizon bihotz onek  
Duten bake lurrean.



Zu zaitugu lauda, adora,  
Bedinka hau dietzten,  
Gloria handia gatik  
Zuri esker itzultzen.

O Iainko Iaun eta zeru  
Goraren erregea,  
Iainko Aita ahal egin  
Guztiaren iabea.

Iesus Iainkoaren Seme,  
Maite eta bakhotxa,  
Iainko Iaun Aitaren Seme  
Iainkoaren billdotsa.

Bekhatuen kentzaillea,  
Urrikal gakizkitzu,  
Bekhatuen kentzaillea  
Othoi entzun gaitzatzu.

Zeure Aitaren eskunean  
Iarririk zudezema,  
Urrikal bekizu othoi  
Penatuen auhena.

Zerengatik zu bakharrik  
Baitzarade sailduaren  
Zu bakharrik Iesus Kristo  
Iaun guztien hautua.

Espiritu Sainduaren  
Zu zaude konpainian,  
Aita kreatzaillearen  
Fin gabeko glorian.

Arren bada Iesus Kristo,  
Iainkoaren Semea,  
Urrikal bekizu othoi  
Gure plainu tristea.

Gero aphezak debotki  
Erraten du kollektta,  
Iesus Kristok ere zuen  
Othoitztu bere aita.  
Ene othoitzta adizazu  
Othoi Iainko puxanta.

*Erratzikezu zuk ere othoitz hauk, aphezak  
aldarean bereak erraten tuen bizkitartean.*

### **Igandea eta astelegunetan othoitzta**

O Iainko zeinak baituzu  
Semearen galdea,  
Aithortzen noiz ere egiten  
Baitarotzu eskea.

Haren errespetura othoi  
Galdekiten dudana,  
Aboa diezadazu  
Arren othoi dohaina.

### **Bestetan othoitzta**

O saildu gloriosoa  
Zeure besta egunean,  
Ene othoitzta adizazu  
Aingeruen artean.

Eta ardiats diezadazu  
Iauna gatik grazia,  
Zeinen ere gehienik  
Orain baitut premia.

Lekzioak naturazko  
Legoa du merkatzen,  
Iaun ona enplegatzen  
Haren obran ezartzen:



Fabore nazazu zure  
Legea obran ematen.

*Erratitzu hamar manamenduak:*

### **Hamar manamenduak**

Iongoiko bat onhets ezak,  
Eta adora debotki,  
Eta haren izenaz ez  
Ziñik egin banoki.

Gehiago begira zak  
Igandea sailduki,  
Eta burasoak ohora  
Bizi adin luzeki.

Nihor hill eztezakela  
Ez bihotzez gaitzetsi,  
Ezen bengantzen Iainkoa  
Ni behar nauk sinhetsi.

Paillardiza igunari  
Egiokek ihesa,  
Gutziz ere ez desira  
Lagunaren esposa.

Berzeren ona hain guti  
Beharko duk iduki,  
Bañan guztiz hauzoaren  
Ontasuna ez uki.

Finean mihiari emok  
Guardia ezten gezurti,  
Eta aizen falseria  
Erautztera beldurti.

Liburua itzultzen da  
Ezkerreko aldera,

Iuduetarik legea  
Infidelen artera:

Iaun puxanta, ez nathorren  
Haren arbuiatzera.  
Ebanjelioak, erran nahi  
Eskribuzko legea,

Graziazkoarena da  
Orobat señaleara:  
Haren konplitzeko othoi  
Zuk indazu antzea.

*Erratitzu henen obra miserikordiazkoak.*

### **Obra miserikordiazkoak**

Aizen urrikalmentdutsu  
Beharraren aldera,  
Iongoiko ona halaber  
Izan dadin hirera.

### **Miserikordiazko zazpi obra espiritualak**

Irakats al baitiozo  
Eziakin simpleari,  
Eta konseillu on eman  
Premia duenari.

Konsola ezakek ere  
Gaitz handiak hartua,  
Eta pazientki sofri  
Etsaien afruntua.

Niholatan bengantzarik  
Eztezola desira,  
Iauna zia gok gaixtoa  
Punitzeko begira.



Othoitzak egin behar tuk  
Hill eta bizientzat,  
Eta ez xoillki adizkide  
Baña are etsaizentzat.

Hauk miserikordiazko  
Obra espiritualak,  
Berehala heldu diren  
Hauk berriz korporalak.

### **Zazpi miserikordiasko obra korporalak**

Athariko probeari  
Hauts diozok ogia,  
Baita egarri denari  
Presenta edaria.

Lekhorean datzanari  
Emokek ostatua,  
Guztiz senioraleari  
Arratseko pausua.

Halaber besti ezakek  
Probe billoz gorria,  
Eta ikhus ohaturik  
Gelan datzan eria.

Bisitatu ere behar  
Dituk presondegiak,  
Eta fiñean aurkhitu  
Ehorztean hilak.

Gero apheza hasten da  
Kredoaren kantatzen,  
Sinhetsi behar duguna  
Darozu irakatsten:  
Sinhetstearen dohaña  
Iauna indazu arren.

*Errakezu zuk ere hemen Kredo.*

### **Kredoak eskaraz**

Sinhetsten dut Iainko Aita,  
Ahal guztitakoa,  
Zenak kreatu baititu  
Zeru lur itsasoa.

Gehiago sinetsten dut,  
Jesus haren semea,  
Zetiak reparatu baitu  
Gizonaren kaltea.

Espiritu Sainduaren  
Ganik zen konzebitu,  
Eta Maria birjina  
Noblea ganik sorthu.

Herio pairatu zuen  
Pilatusen azpian,  
Eta Iosephek ehortzi  
Bere thonba berrian.

Linboetara arimen  
Libratzeko iautsi zen,  
Eta gero hirugarren  
Egunean biztu zen.

Zeruetara igan zen  
Eta aitarenean,  
Orain glorioso dago  
Iarririk eskuñean.

Handik ephe iakinean  
Iautsiko da lurrera,  
Hill eta bizi guztien  
Zuzenki iuiatzera.



Gehiago sinhetsten dut  
Espiritu Saindua,  
Aita eta Semearen  
Ganik prozeditua.

Eliza ama saindua dut  
Oraño kofesatzen,  
Sainduen oro batasun  
Ona ere laudatzen.

Gehiago sinhesten dut  
Hutsen barkhamendua,  
Kofesio hargatik  
Dela bai baptismua.

Halaber aboatzen dut  
Hilletarik bitztea,  
Fiñean kofesatzen dut  
Bizitze fin gabea.

Pakearen gañetik du  
Ofrendatzen Ostia,  
Iesusek Aitari bere  
Ofrendatu bizia.  
Iauna ofrendatzen darotzut  
Neure ahal guztia.

Handik sarri itzultzen da  
Apeza ofrendara,  
Iesus ere itzuli zen  
Eri erbaletara.

Iainko ona itzul zaitte  
Arren gure baithara.  
Lababoan ditu urez  
Xautzen bere eskuak,

Iesus Kristo bathaiatu  
Zuen Ioanes sainduak:

Xahu dietzakidatzu Iauna  
Othoi bekhatuak.

Orate frates, harekien  
Ondoan du erraten,  
Othoitz egitera gaitu  
Iaun onak gonbidatzen:  
Zure othoizteko indazu  
Debozione arren.

Sekretak erran nahi du  
Iesusik desertuan,  
Aita zuela othoiztu  
Lekhu apartatuan.  
Aditzatzu Iauna ene  
Othoitzok sekretuan.

Prefazioak, Iaun ona  
Barurean diusku,  
Berrogoi egunen ephe  
Luzez zela barurtu:  
Barurdiar izateko  
Dohaña egidazu.

Handik gero ethortzen da  
Apeza santusera,  
Iesus mortutik bihurtu  
Zen Hierusalemera:  
Zatoz Iauna ene baithan  
Ostatu egitera.

Santusean ixilldurik  
Mementoan da sartzen,  
Iesusek tenpluan bere  
Aita othoiztu zuen:  
Othoiztiar izateko  
Grazia indazu arren.



*Errakezu zuk ere apheza lehen mementoan  
dagoen bizkitartean othoitz hau.*

### **Bizien orhoitzapena**

Iainko ona orhoit zaite  
Othoi bizi garenez,  
Ninzaz, buraso aurride,  
Ahaide, adiskideez.

Orhoit zaite ofensatu  
Nik ditudan presunez,  
Nola oraño ungi egille  
Eta zordun naizenez.

Gehiago orhoit zaite  
Ene karguz direnez,  
Ume sehi eta berze  
Ukitzen zaizkidanez.

Hala oraño orhoit zaite  
Iauna eliza gizonez,  
Eta prinze estatua  
Gobernatzen dutenez.

Orhoit zaite heretikoak  
Itzularazitzeaz,  
Orhoit etsaien gogoak  
Onera mudatzeaz.

Fiñean Iauna, orhoit zaite  
Gañerako guztiez,  
Zuri othoitz egitera  
Obligatu naizenez.

Guztiak faboratzatu  
Othoi zeure graziez,  
Noizbait daitezen zeruan  
Goza plazer handiez.

Gero konsekratzen ditu  
Ogia eta arnoa,  
Deklaratzen da Kristoen  
Triste afal ondoa:  
Gaitzetik onera muda  
Zazu ene gogo.

Ostia eta kalitza  
Gero ditu altxatzen  
Jesus haben altxatu  
Zela adi araziten:  
Bekhatuaren lohitik  
Altxa nazazu arren.

*Erratzu henen S. Thomas doktoraren adorazionea.*

### **S. Thomas dotorearen adorazionea**

Adoratzen zaitut Iainko,  
Helaz gerizatua,  
Eta ogiaren formaz  
Gañetik itzalena.

Hala zaitzu zuri ene  
Bihotza beheratzen,  
Kontenplazean indarra  
Non baitzaiko flakatzen.

Bista eta ukitzea  
Gutziz zaizkit nahasten,  
Beharriez baizen eztut  
Hor zarella sinhetsten.

Sinhetsten dut Iainko Semeak  
Erran duan guztia,  
Zeren ez baita deus ere  
Munduan hain egia.



Gurutzean ehortzi zen  
Xoillki Iainkotasuna,  
Bainan harekin batean  
Hemen gizatasuna.

Biak sinhetsten tudala  
Eta aithortzen xahuki,  
Ohoïn onak galdetua  
Galdetzen dut humillki.

Thomasek bezala eztut  
Zauririk begietzen,  
Alabainan neure Iainko  
Zu zaitut kofesatzen.

Egidazu berretuaz  
Doatan sinhetstea,  
Eta esparantzarekin  
Zure onheritzea.

O Iaunaren hilltzearen  
Orhoitzapen argia,  
Othe gozo eta ezti  
Emailea bizia.

Arren ene arimari  
Egiozu dohaina,  
Zutzaz bizi dadin eta  
Billha eztezan ordaina.

O pelikano bihotzez  
Iesus maitatzekoa,  
Zeure odolez xahu zazu  
Hutsez lohi gaxoa.

Ezen zure odolaren  
Xortarik gutiena,  
Xahutzeke munduaren  
Bekhatu zikhiñenak.

O Iesus Krist estalirik  
Ikhusten zaitudana,  
Konplizazu arren hanbat  
Desiratzen dudana.

Bekhokia agertua  
Egun batez zeruan,  
Ikhus zaitzadan klaroki  
Zeure tronu sainduan.

Apheza gero sartzen da  
Bigarren mementoan,  
Iesus ere patriarken  
Libratzera linboan:  
Libratzatu penatuak  
Labe purgatzekoan.

*Errakezu zuk ere othoitz hau, apheza  
bigarren mementoan dagoen bizkitartean.  
Memento mortuorum.*

### **Hillen orhitzapena**

Iainko ona, orhoit zait  
Othoi arima ioanez  
Buraso aurride eta  
Ahaide adeskidenez.

Geheiago orhoit zait  
Nik eraginenez,  
Nola oraño ungi egille  
Eta ezagunenez.

Bereziki orhoit zait  
Ene kargukoenez,  
Ume sehi berze ene  
Gomendiokoenez.





Halaberki orhoit zaite  
Eliza gizonenez,  
Errege, monarka, eta  
Munduko prinzeenez.

Orhoit zaite ere oraño  
Uste kabe hillenez,  
Eta orhoitzapen faltaz  
Penatzen direnenez.

Fiñean Iauna orhoit zaite  
Gañerako guztiez,  
Zure othoiztera zordun  
Naizela dakizunez.

Isur diezazu zeure  
Graziaren ihintza,  
Laster iraungi diezen  
Suaren khar borthitza.

Tresnek erran nahi dute  
Herodesen etxean,  
Burlaz zutela Mesias  
Berregin du soñean:  
Pazienza indazu  
Othoi mezpresioan.

Estola manipuluek  
Nahi dute aipatu,  
Lephoan eta eskutan  
Sokez zutela lothu:  
Bekhatuaren gathetik  
Arren libra nazazu.

Aphezaren khorook berriz  
Dorozu gogoratzen,  
Nola arentzezko khoroa  
Burura eman zioten:  
Afruntuen pairatzeko

Dohaña indazu arren.

Aldareak Calbaria  
Señaletzen darozu,  
Zeñetan Iaun ona baitzen  
Zurarekin itzatu:  
Berthute ederrekin  
Arren iunta nazazu.

Korporalek aitzera  
Ematen mihiseak,  
Zeñaz estali baitzuen  
Magdalena andreak:  
Eztietzakidatzula:  
Ukha azken ohoreak.

Harri sakratuak erran  
Nahi du illharria,  
Zeñetan ehortzi baitzen  
Salbatzaille Mesia:  
Lur saildian ehortzteko  
Egizazu grazia.

Omnis honor et gloria,  
Dio aphezak debotik,  
Deklaratzen Iauna zela  
Piztu hillen artetik:  
Zuk egidazu grazia  
Bitzteko bekhatutik.

Pater noster gero hasten  
Du othoitz nausia,  
Nere apostoluei Iesus  
Kristok irakatsia:  
Aithor diezadazu hartan  
Galdetzen den guztia.

*Errazu zuk ere Pater Noster eskaraz.*



### Pater Noster eskaraz

Gure Aita zeruetan  
Gloriosoa zarena,  
Errespetuz aipha bedi  
Lurrean zure izena.

Egiguzu zeruaren  
Ardiatsteko grazia,  
Eta bethi konpli bedi  
Zure saildu nahia.

Egun oro behar gare  
Iguzu mantenua,  
Eta guk bertzeri legez  
Hutsen barkhamendua.

Eztezazula permeti  
Tenta gaiten batezki,  
Baña gaitzatzu katetik  
Hastanduak iduki.

Hirur zathi egiten du  
Gero saildu hostia,  
Hirur zathi Iaunak egin  
Emausen, ogia:  
Limosnari izateko  
Egidazu grazia.

Hetarik bat aphezak du  
Ofrendatzen beretzat,  
Berzea bizi guztientzat:  
Berzea berriz hillentzat:  
Neure arima darotzut  
Ofrendatzen zeuretzat.

Pax Dei du haukien  
Ondoan sarri erraten,  
Iaunak bakea zeroen  
Berei gomendatzen:

Baketiar izateko  
Dohaña indazu arren.

Agnus Dei, hiruretan  
Gera badu doblatzen,  
Iesus Kristo bildotsaren  
Paren zela kantatzen:  
Iauna mansotasunaren  
Dohaña indazu arren.

Domine non sum dignus, du  
Erraten doloroski  
Iesus Kristo zeruetara  
Igan zen triumfantki:  
Fabore bera Iaun ona  
Egikedazu niri.

Gero apheza egoten da  
Aphur bat kontenplatzen,  
Apostoluak espirituaz.  
Begira egon ziren:  
Isur dietzakidatzu  
Zeure graziak arren.

*Erratzitzu hemen S. sailduaren zazpi dohañak.*

### Espiritu Sailduaren zazpi dohañak

Zeruko gauzen arraio  
Behin zuhurtziari,  
Munduko eginbideen  
Gero iakiteari.

Gehiago al baituke  
Erne adimendua,  
Eta egiteko gaitzetan  
Har bethi konseillua.

Trabailluetan halaber  
Aite animoduna,



Gutziz ere Iainkoaren  
Izan beldurtasuna.

Fiñean pietatera  
Aite guztiz emana,  
Hire penak izanen die  
Golardo dagokaña.

Liburua itzultzen da  
Leheneko aldera,  
Iuduak ere itzuli  
Zuten legera:  
Itzularazi nazazu  
Neure eginbidera.

Post komunionea da  
Liburutik kantatzen,  
Berriz Iesus Krist iausiko  
Dela orhoitarazitzen:  
Egun haren orhoitzapen  
Iauna indazu arren.

*Errazu meza hasteko kollektak, pag.*

Ite misa est, erraten  
Du gero itzulirik,  
Iesus mintzatuko zure  
Gaixtoei aferrerik?  
Guarda nazakezu othoi  
Hekin sentenziarik.

Benedikzionatean, du  
Beso eskuña hedatzen,  
Prestuei emanen zaien  
Arrasta deklaratzen:  
Haren entzuteko grazia  
Egikedazu arren,

In principioan da  
Itzultzen eskuñera,  
Onak gidatuko dutu  
Kristok zeru gañera:  
Hel nazakezu laun ona  
Hetarik izatera.

*Erratzitzu gizonaren lau azken fiñak.*

### **Gizonaren, lau azken fiñak**

Orhoit adi herioaz  
Orhoit iuiamenduaz,  
Ifernuko penez eta  
Parabisu sainduaz.

Baldin eta ungi bahaiz  
Gauza hautzaz orhoitzen,  
Faltarik egin gabe duk  
Bizia eramanen.

*Erratzatu meza ondoko othoitzak aitzinago  
diren bezala, pag.*

### **Meza entzutearen gañean bi abisu**

1. Baldin eta mezako othoiz hauk luzeago edo laburrago badire aphezarenak aldarean baino, laburtzaketzu edo dobla zuk ere harenen arauera, biak berdin mezako othoitzak akhabatzeko.
2. Eta baldin meza entzuteko astirik edo atizarik izatu ez baduzu on izanen da, hartatik, mezako othoitz hauk debotki zerenek erratea, etxean edo berzetan, ezen munduko othoitzik, ederrenak, eta baliosenak dire meza saindukoak, eta haren othoitzapenekoak.



## V. ARALDEA

*Elizan gerhaten diren gauza batzuetako othoitzez*

### I. burua

*Predikuetako othoitzak*

#### **Prediku aitzineko othoitzak**

Iauna, prepara ezazu  
Arren ene bihotza,  
Errezibitzeko behar  
Legez zure hitzkuntza.

Ene usantza gaixtoak  
Khentzatzu errotarik,  
Nabarrak nola berroak  
Alhor zainhoetarik.

Fiñean aphain nazazu  
Zeure solaz eztko,  
Laborari arthatsuak  
Nola landa bihiko.

#### **Predika ondoko othoitzak**

Iauna ezazula agin  
Predikuen hazia,  
Ene bihotz agorrera  
Alfer den egotzia.

Aitzitik eragiotzu  
Ene baithan erroak,  
Gloria merezi duten  
Fruitu ekhartzekoak.

Hartarakotz haiza zazu  
Sala ifernukoa,  
Galarazi eztezan  
Hain hazi baliosoa.

#### **Ogi bedinkatua hartzean**

Zure gorputz sailduaren  
Ez naiz digne hartzeko,  
Ogi bedinkatuaren  
Ez eta ukitzeko.

Badarik ausartatzen naiz  
Manna haren lekhuana,  
Othuruntza egitera  
Ogi bedinkatua.

Arren ene arimari  
Zuk emozu hazkuntza,  
Garaitzeko etsaiaren  
Atherkunde herosa.

#### **Eskumikua aiphatzen denean, othoitzak**

O Iongoiko, batasuna  
Desiratzen duzuna,  
Eta berezkoa bihotz  
Gutziz higuñ ziatzuna,

Eztezazula permeti  
Ni naizen elizatik,  
Egotzia nola membro  
Bustel bat gorputzetik.

Hartarakotz othoi guarda  
Nazazu bekatutik,  
Eskumiku odolsura  
Egotz nazakenetik.



## II. burua

### *Kofesioko othoitzak*

#### *Eta lehenik kofesiora preparatzeko*

#### **Othoitza**

Iauna aithor dut ofensatu  
Zaitudala itsuski,  
Zertaz baitu bihotz guztiz  
Dolu eta urriki.

Halaber dut ez sekulan  
Itzultzeko gogoa,  
Baita neure falta obra  
Onez purgatzekoa.

Arren hetzaz orhoitzeko  
Indatxitzu graziak,  
Aphezari kondatzeko  
Egin tudan guztiak.

#### *Kofesio aitzineko othoitza*

#### **Kofesio jenerala**

Kofesatzen natzaitzu Iaun,  
Ahal guztitakoa,  
Bait zuri ere birjina  
Ama gloriosoa.

Bai zuri ere, Iaun-doni Iauni  
Baptista dohatsua.  
Baita zuei, Petri, eta  
Paule apostoluak,  
Fiñean zuei zeruan  
Zareten dohatsuak.

Hekien lekhuan zure  
Aita espiritual  
Zergatik egin dudan huts  
Ezin konda ahala.

Edo obraz edo gogoz  
Edo dela mihiaz,  
Neure falta, neure falta  
Neure falta handiaz.

#### *Erratxitzu hamen zure bakhatuak eta gero errazu:*

Hartarakotzat zu zaitu  
Birjina ama othoizten,  
Zu Migel arkanjelua  
Halaber suplikatzen.

Zu ere Iaun-doni, Iauni  
Baptista dohatsua,  
Baita zu ianun-doni Petri bai  
Zu Paule saildua.

Fiñean zeruetako  
Sainduen araldea,  
Bai aita espiritual  
Zu halaber neurea.

Iainko handia enetzat  
Suplika dezazuen,  
Neure falten barkhamendu  
Osoa didan arren.

#### *Kofesio ondoko othoitza*

O Iongoiko amulsua  
Ene konfesioa,  
Ontzat errezibi zazu  
Eskaz handitakoa.



Aphezak hutsak barkhatzen  
Darozkidan bezala,  
Zuk othoi dietzadatzu  
Zeruan barkha hala.

Guxiago egidazu  
O Iongoiko handia,  
Ez gehiago hetara  
Itzultzeko grazia.

### III. burua

*Penitentzia konplizeko othoitzak*

#### Penitentzia konplitzerakoan othoitzak

Iaun handia, neure falten  
Satisfakzionetan,  
Hemen penitentzia dut  
Konplitzen ordañetan.

Arren errezibi zazu  
Begotarte emeaz,  
Guza aphur eskaña  
Borondate hobeaz,

Eta obra on egiteko  
Zuk indazu grazia,  
Errekompensatzekotzat  
Leheneko bizia.

#### Penitentzia konplitu ondoko othoitzak

O hutsen doieko obra  
Dagotzun Iaun eztiā,  
Obretara athera dut  
Eman penitentzia.

Ene hitzak eta obrak  
Deus eztire ordean,  
Zure kontra egin tudan  
Bekhatuen aldean,

Hartarakotz Iesus Kristen  
Merezi fin gabeak,  
Ordañetan har etzatzu  
Bai sailduen nekeak.

### IV. burua

*Gorputz saildua errezibitzeko othoitzak*

#### Gorputz saildua errezibitzerakoan

Iesus Kristo, ez naiz batre  
Baso zeure lohia,  
Errezibitzeko ostian  
Zein baita estalia.

Guztiarekien zeren  
Baizaitutzu manatzen,  
Errezibi dezagula  
Hargatik naiz ausartzen.

Arren zeure ontasunaz  
Egidazu grazia,  
Dignei errezibitzeko  
Hain saildu ianharia.

#### Errezibitu ondoan

Milla esker ditutzula  
O Iongoiko handia,  
Zeren eman darotazun  
Aingeruen ogia.



Kausarazi diotzotzu  
Ene bai han fruituak,  
Ungi errezibituko  
Dutenei aginduak.

Gertha eztakidan neure  
Arimaren kaltean,  
Bañan aitzitik probetxu  
Eta ontasun handitan.

## V. burua

*Bezperetako othoitzak*

### Igande bezperetako othoitzak

O Iaun bezperetan ere  
Ohore dagotzuna,  
Errezibi zazu haur  
Guri darotzuguna.

Eta haren orde iguzu  
Liberalki grazia,  
Zer ere behar baitugu  
Arren hura guztia.

### Bestetako bezperetako othoitzak

O saildu, Iaun handiaren  
Zeña egin graziaz,  
Ohortua baitzare  
Ohore bereziaz.

Zuri darotzagun ohore  
Aphurreren aldera,  
Iauna gana hurbill zaite  
Guretzat othoitztera.

## Abisua

Baldin othoitz hauk labur bazaikitzu, erra-  
tziketzu arrosarioan bihi guztietan bespererek  
dirauteño.

## VI. burua

*Emazte ezkonduen othoitzak*

### Emazte izorren othoitzak

O Iongoiko kreaturak  
Formatzen ditutzuna,  
Duzun urrikari ene  
Ahuen suspiraduna.

Eta begira nazazu  
Othoi perilletarik,  
Naizen estatu flakoan  
Har nazakenetarik.

Bana egidazu grazia  
O Iainko bihotz bera,  
Dohatsuki hurbilltzeko  
Heldu behar ephera.

### Erditzeko othoitzak

O Iongoko aita Adam  
Trabailuz punitua,  
Eta Eba erditzeko  
Miñez gastigatua.

Arren nauzun urrikari  
Dolore handietan,  
Libraratzitzen nauzu  
Ephe laburrenetan.



Elizan diezazudan  
Itzul esker handia,  
Halako darokedazu  
Zeren egin grazia.

### Elizan sartzeko othoitza

O Iongoiko araitziña  
Manua ezarria,  
Esker itzultzera ethor  
Zekitzula erdia.

Hala ethortzen natzaitzu  
Arren bada eneak,  
Borondatez errezibi  
Tzatzu esker sinpleak.

Gehiago egidazu  
Iainko ona donua,  
Zure zerbitzeko neure  
Hastekotza fruitua.

## VII. burua

### *Eritako othoitzak*

### Eriak berezat

O Iongoiko, Esekiaz  
Erregeri bizia,  
Lehenetarik hamabortz  
Urthez luzarazia.

Orobat luza ezazu  
Arren ene ephea,  
Baldin eta hala bada  
Arimaren hobea.

Bizi behar dudan neure  
Mende gañerakoan,  
Hobeki nadintzat zure  
Enplega zerbitzoan.

### Eriarentzat berze bisitanzen dutenek

O Iesus Krist hillen ere  
Bitzarazitzallea,  
Gorputzari idokozu  
Eritasun tristea.

Eta sendatu zinduen  
Legez emazte erbala,  
Zeren ugita zerotzun  
Aroparen pertala.

Arren huni ere emoizu  
Osasuna maitea,  
Zeren zure baithan duen  
Itzatu sinhetstea.

### Sakramentua errezibitzerakoan eriak berak

Ianko handi mana dulzez  
Iudutarrak hazia,  
Harik ardiatsi zuten  
Zuk agindu heria.

Mana hura baño hobez  
Haz nazazu gaxoa,  
Zure semearen gorputz  
Sainduaz ohekoa.

Eta baldin zure bada  
Iauna borondatea,  
Ene bizitzeak duen  
Bere azken ephea.





Haren ungi fiñatzeko  
Egidazu grazia,  
Bizi hunez gabetzeaz  
Eztudan urrikia.

### **Eriak sakramentua errezibitzean berzek**

O Ingoiko Eliasi  
Belea egorria,  
Bai Daniel profetari  
Abachusek ogia.

Goseak zaramatzanak  
Muga gabe hiltzera,  
Orhoitzen ziñela hekin  
Bien faboratzera

Eriaren arimari  
Emozu konfortua,  
Indar onez etsaiaren  
Kontra den borthiztua.

### **Alunzio errezibitzan eriak berak**

O erregeen monarka  
Ezta kontent zurea,  
Ungi baten egiteaz  
Xollki borondatea.

Bañan bazkatu ninduzu  
Legez gorputz sailduaz,  
Hala orain gogortzen nauzu  
Alunzio sailduaz.

Arren bada egidazu  
Iainko ona grazia,  
Etsaiaren kontra nadin  
Arma hunez balia.

### **Eriak alunzio errezibitzean, berzek**

Iauna, othoi fabora zazu  
Premian dagoena,  
Eta bere etsaien sarri  
Atakatuko dena.

Arma zazu arma sailduz  
Presenteko eria,  
Hala nola zombateko  
Soldadu billuzia.

Eta egiozu etsaien  
Benzutzeko grazia,  
Biktoriaz diezazun  
Itzul esker handia.

### **Hiltzerakoan eri hurrenak berak**

Zure eskuetan dut neure  
Gomendatzen arima,  
Iainko ona ikhuz azu  
Arren ene lastima.

Aldetik diezadazu  
Arren haiza etsaia,  
Ene gañean eraman  
Hak eztezan garaia.

O birjina herioan  
Asko faboratua,  
Orain da niri fabore  
Egiteko ordua.

Arren bada ertxa zazu  
Zeure seme maitea,  
Libra diezadan zero  
Goretako bidea.



Eta zuk ene ingeru  
 Begiraille leiala,  
 Ziñez enplega ezazu  
 Zeure egin ahala.

Eznazazula othoi utz  
 Harik bere tronuan,  
 Iaun onari niozozun  
 Presenta arraitsuan,

Finean zuek zeruko  
 O saildu dohatsuak,  
 Eta egitera noan  
 Bidea pasatuak.

Zuek gida nazazue  
 Har xidor meharrean  
 Esker diezuzuedan  
 Itzul zeru gañean.

### **Eria hillterakoan berzek**

O Iongoiko pietatez  
 Parerik eztuzuna  
 Arren urrikal bekizu  
 Hatsean den presuna,

Haiza diozozu arren  
 Bele ifernukoa,  
 Traba eztiozon bide  
 Zeru goretakoa.

O birjina saildu eta  
 Zeruko dohatsuak  
 Halaber zuek aingeru  
 Eta arkanjeluak.

Ikhus ezazue arren,  
 Ondikozko premia,  
 Eta zakizkote Iainko  
 Ona gaña balia.

Zeruan dietzatzuen  
 Itzul esker handiak,  
 Zeren baliatu zaizkon  
 Zuen othoitz garbiak.

### **Ezin hillez dagoenean**

O Iongoiko penetarik  
 Gure libratzaillea,  
 Presenteko eriaren  
 Ikhus azu nekea.

Eta sarri partitzeko  
 Egiozu grazia,  
 Zure begitarte ikhus  
 Dezan miragarrria.

Dohain hura egiozu  
 O Iainko bihotz bera,  
 Zerueta diezazu  
 Bozik itzul eskerra.

### **Arimak egin bezain sarri, hillarentzat othoitza**

Iainko ona, arren othoi  
 Illkhi zaite bidera,  
 Orain doi doa partitu  
 Den arimarenera.

Begitartez errezi  
 Zazu zeure kortean,  
 Eta lekhu hautu eman  
 Dohatsuen artean.



Purgatorioetara  
Ezazula desterra,  
Aitzitik erakuts zeure  
Begitarte ederra.

Zuek ere o dohatsu  
Mundutik partituak,  
Bai eta zuek aingeru  
Eta arkanjeluak.

Arima izituaren  
Zatozte aitzinera,  
Eta gida zazue  
Zeruko portalera.

Egjozue fabore  
Hura o dohatsuak,  
Itzul dietzakitzuen  
Mila eskerren kantuak.

## VIII. burua

*Hilletako othoitza*

### Hill ezkilletan

O Iainko zeñak baituzu  
Bat bedera manatzen,  
Heriotze tristearen  
Orhoitzapena duen.

Harentzat entzun zezatzu  
Gure othoitz humillak,  
Zeñen othoitzapenetan  
Baitaruntsa ezkillak.

### Ahukura hiltzean

O Iainko handi, zeñaren  
Baita manamendua,  
Biziak ohor dezan  
Mundutik partitua.

Ahukura gare haren  
Ohoratzeko biltzen,  
Miserikordia duzuan  
Haren arimaz arren.

### Gorputza elizaratzean

O Iongoiko Egiptutik  
Iuduak libratua,  
Eta emana hekien  
Aitei lur agindua.

Arren haran penatsutik  
Libratu duzunari,  
Errapausu emozu  
Glorian arimari.

### Gorputza insensatzean

Iainko puxant zeñen nahia  
Baitirade gorputzak,  
Insensatzen zeren diren  
Arimekin egoitzak.

Arren othoi arimari  
Zuk emozu gloria,  
Zeñen insensatzen baita  
Hill ohean lohia.



### **Gorputza ehorztean**

O Iongoiko, aita Adam  
Lurretik formatua,  
Arren adizazu gure  
Presenteko plañua.

Eta arima ezazu  
Gida hedoi gañera,  
Zeñen gorputza irauzten  
Baita hobi belzera.

### **Hill gunean**

O Iongoiko zeñen baita  
Bihotza guztiz bera,  
Duzun othoi egun ion den  
Arimaren aldera.

Hartarakotz mana zazu  
Migel arkanjeluak,  
Parabisuan diozon  
Eman lekhu hautua.

### **Bederatzi urrenean**

Iainko ona zu othoizten  
Zitugu arimentzat,  
Bederatzi urrena egun  
Egiten denarentzat.

Isur diozazu zerure  
Graziaren ihintza,  
Zeruetan diezazu  
Itzul esker hanitza.

### **Urthaburuan**

O Iongoiko urrikaltzen ama usatua,  
Urrikal begizu zeñen  
Baita urthaburua.

Errepausuzko emozu  
Zeruetan alkhia,  
Zuri itzulzeko zordun  
Den eske berezia.

### **Edozein orduz**

O Iongoiko, arima eta  
Gorputzaren iabea,  
Urrikal begizu auhen  
Arimaren tristea.

Arren labur diozazu  
Sofritu behar pena,  
Iraungitzen diozula  
Khar su borthitzarena.



## BIGARREN TRATATUA

*Bigarren traktatua doktriña kristianaz  
Edo haurren irakatzmendez laburki*

### **Doktriña kristianaren ikhasteko haurrei, exortazionea**

Tho haurtxoa, ikhas ezak  
Salbatzeko artea,  
Zeña baita gañerako  
Zuhurtzien andrea.

Ezen berze zuhurtziek  
Ziaraunstek mundura,  
Bañan hunek zeru izar  
Ederrez histatura.

Zer progoxu atherako  
Duk berzen iakiteaz,  
Baldin salbatzen ez bahaiz  
Hekien berthuteaz.

Hek guztiak alfer dituk  
Baldin eta arima,  
Galtzen baduk, o guztien  
Azkeneko lastima.

Hau duk beraz lehen eta  
Bizirik ikhasteko,  
Munduko eginbideei  
Gero iarraitzeko.

*Doktriña kristianaren aitzineko eta ondoko othoitzak*

### **Doktriñaren aitzinean errateko othoitzak**

O Iainko zuhurtziaren  
Iguzki arraitsua,  
Zuk argi ezazu gure  
Adimendu itsua.

Ikhas dezan zuk manatzen  
Duzun lege garbia,  
Zure semeak zerutik  
Lurrera ekharria.

Hartarkotz bada iguzu  
Adimendu ernea,  
Entzuteko irakatzten  
Zazun eginbidea.

Hura lurrean konplitu  
Eta zeru gorena,  
Lauda zaitzagun aingeru  
Dohatsuen artean.

### **Doktrinaren ondoan errateko othoitzak**

O bihotzen argitzaille  
Guztiz arrai zuzia  
Esker eta ludorio,  
Duzula berezia.

Zeren argitu gaitzuzun  
Zeruko zuhurtziaz,  
Itsutuak gabilltzanak  
Illhuntasun handiaz.

Arren bada Iainko ona  
Egiguzu grazia,  
Bitztua idukitzeko  
Doktrinaren argia.

Hartzaz lurrean klaratu  
Eta geure bizia,  
Zeruan diezaguzun  
Eman zeure gloria.

*Hala biz*



## DOKTRINA KRISTIANA BERA

### I. burua

#### 1. Iongoiko bat dela

Iongoiko bat baizen eztuk  
Zeñen ahal handiak,  
Egin baititu zeru lur  
Eta argizagiak.

Hura ohora albaiteza  
Hura humillki adora,  
Hure beharrean azan  
Hark ordañez fabora.

#### 2. Eliza bat

Eliza bat ere baizan  
Eztuk hark ifinia,  
Zeñetzaz adizen baita  
Kristauen konpañia.

Bekira ukek hain balderna  
Saindutik illkhitzetik,  
Hortzaz lekhorean eztuk  
Baizen honda lezerik.

#### 3. Buruzagi bat

Iesus Kristo duk eliza  
Haren buruzagia,  
Haren ordaña lurrean  
Aita sindu bizia.

Iesus Kristo ohorazak  
Nola heure erregea,  
Eta Aita Saindua hala  
Nola haren ordea.

#### 4. Lege bat

Iesus Iaunak ezarria  
Duk kristauen legea,  
Zeña baita asko aldez  
Berzeak baño hobea.

Bizi adi beraz lege  
Hark eman duenean,  
Ezen ezin salba aiteke  
Lege hartzaz berzean.

#### 5. Fede bat

Halaber eztela iakin  
Ezak fede bat baizen,  
Zeruko bidea zeñak  
Baitarizu argitzen.

Zuri hura aitzinean  
Duela zerukoari,  
Senioralea legez  
Lot akio bideari.

#### 6. Izen bat

Fiñean izen bat baizen  
Eztiagu guztiok,  
Giristiñoak deithatu  
Ohi garen presunok.



Eta hura, Iesus Kristo  
Geure erregerenak,  
Haren ganik atheratzen  
Diagu aiphamena.

Bañan deitze hura nondik  
Hiri ungi zaik egonen,  
Baldin ezpadituk haren  
Ordenantzak konplitzen.

Konpli zakek beraz lege  
Hark manatzen duena,  
Gezurrez ekhar eztezan  
Kristauaren izena.

### 7. Señale bat

Kristauaren señailea  
Duk gurutze saindua,  
Paganotik berezten dik  
Hartzaz bere burua.

Perill handietarik hark giaitik begiratzen,  
Ikhas ezak nola hartzaz  
Baliatuko aizen.

### 8. Gurutze sianduaz baliatzeko bi molde

Bi molde dituk gurutze  
Sainduaz baliatzeko,  
Bat eta berzeak dituk  
Hik gogoan hartzeko.

### 9. Gurutzatzea

Lehena duk bekhokian  
Gurutze egitea,  
Ahoan, berzea eta  
Bulharretan, berzea,

Bekhokian, guarda azan  
Asmu gaixtoetarik,  
Ahoan, berriz begira  
Azan gaitzki hitztetik.

Bulharretan, guarda azan  
Desira gaixtoatarik,  
Fiñean begira azan  
Obra gaixtoetarik.

Molde hunetzaz badahi  
Ungi zerbitzatzeko,  
Grutzatzean hunela  
Othoitz duk egiteko

Gurutzenaren indarrez  
Gogoeta etarik,  
Iauna begira nazazu  
Othoi gaixtoetarik.

Halaber guarda nazazu  
Gaizki hitz egitetik,  
Fiñean guarda nazazu  
Desira gaixtotarik.

Edo nahiago baduk  
Gurutzatzen aizela,  
Errakek debozione  
Handirekin hunela

Gurutzearen indarrez  
Neure etsaietarik,  
Iauna begira nazazu  
Othoi guztietarik.



## 10. Ziñatzea

Gurutzeaz armatzeko  
Baduk berze molde bat,  
Giristiñoak handiro  
Progotxatzen diren bat.

Iakiteko gorputzean  
Gurutze egitea,  
Guardaturik erratera  
Orain noan antzea

Bekhokia beherazak  
Eskua sabelera,  
Gero eskuñeko soñetarik  
Ezkerreko aldera.

Eta errakek eskua  
Hala erabilttzean,  
Aita Seme Espiritu  
Onaren izenean.

Señaletze hunek erran  
Nahi dizi Iongoikoa,  
Izate bateko eta  
Hirur presunakoa.

Bekhokian emateak  
Eskua, Iainko Aita  
Señalatzan, podoroso  
Eta guztiz puxanta.

Sabelean emateak  
Berriz haren semea,  
Bi soñetan ematean  
Espiritu emea.

Buruan emateak erran  
Nai dik Iainko Aita,  
Aitaren adimendutik  
Enjendratua baita.

Sabelean emateak  
Erran nahi semea,  
Aitaren ganik zergatik  
Baitu bere ethortzea.

Bi soñetan emateak  
Espiritu Saindua,  
Hek bietarik zergatik  
Baita prozeditua.

Hargatik bada erraten  
Daigu ziñatzean,  
Aita Seme Espiritu  
Sainduaren izenean.

Arren fabora gaitzala  
Muga eta oreneran,  
Faborera deitzen haren  
Izena dugunean.

Erraten diagu Aita  
Seme, eta Espiritu,  
Trinitatean zeren diren  
Hirur presuna saindu.

Eta bakhoxki diagu  
Izenean erraten,  
Hirur presunak Iainko bat  
Baizen zeren eztiren.





## II. burua

### 1. Bi manamendu prinzipalak

Iongoiko bat onhets ezak  
 Heron ez gehiago,  
 Eta kristau legiak  
 Heronez gutiago.

Hauk bietara billzen tuk  
 Berze manu guztiak,  
 Rabinari ihardatsi  
 Hala Iesus mesiak.

Obratzekek beraz manu  
 Bi saindu hauk gogotik,  
 Berzeak hautan zarratzen  
 Diradenaz geroztik.

### 2. Naturazko legearen birmanuak

Eztiozokela egin  
 Lagunari kalterik,  
 Hiri egin liezaken nahai ez ukenik.

Aizitik bethi ontasun  
 Egjokek ahala,  
 Hiri egin liezaken  
 Nahi uken bezala.

Hau duk bihotzean dugun  
 Iainkoaren argia,  
 Eta paganoek berek  
 Aithor duten egia.

Treba adi berze lege  
 Hauk obretan ematen,

Munduaren aitzinean  
 Ungi ethorri aitzen.

### 3. Bi bekhatu thailu, bata orijinala eta berzea aktuala

Bi bekhatu thailu dituk  
 Bata orijinala,  
 Eta berzea diagu  
 Deithatzen aktuala.

Orijinala diagu  
 Aita Adamen gañik,  
 Huts aktuala ordean  
 Ekharzen geure ganik.

Baptismuak xahutzen dik  
 Nota orijinala,  
 Eta konfesionek  
 Bekhatu aktuala.

Erremedio hauk bada  
 Idukitzak gogoan,  
 Progotxoski zerbitzadin  
 Muga beharrezkoan.

### 4. Bi bekhatu aktual, bata mortala, eta berzea beniala

Begira adi bekhatu  
 Bi aktualetarik,  
 Edo nahiz biz benial  
 Edo mortaletarik.

Huts xipiaz antsikabe  
 Den presunak gerora,  
 Antsikabe egiten duk  
 Noiz bait handiagora.



Hartarakotz bada guarda  
 Adi huts xipitarik,  
 Moian hartaz begira adin  
 Handiagoetarik.

Bizitzearen fiñean  
 Hondale khardunera,  
 Handi xipiaren pena  
 Ezoan pagatzera.

### III. burua

#### 1. Arimonaren hiru etsai prinzipalak

Hirur etsai ezagutza  
 Herra handitakoak,  
 Eta leusengu garabez  
 Ezin baketuzkoak.

Haragia duk lehena berzea mundu manoa,  
 Hirurgarrena itzalean  
 Laket zaion gaixtoa.

Hauk hirurak idukitzak  
 Etsai handienentzat,  
 Hekin asiki miñetik  
 Begira adienzat.

#### 2. Hirur konseilluak

Baldin eta nahi baduk  
 Hik perfekt errendatu,  
 Bertute guztiez behar  
 Duk arima bistatu.

Bañan guztiz nahi baduk  
 Ardiatsi khoroa,

Berzeak baño eder eta  
 Balioso agoa.

Probrezia besarkazak  
 Eta kastitatea,  
 Gero obediencia  
 Humillen berthutea.

Hauk hirurekin moianez  
 Zeruetan khoroa,  
 Ardiatsiko duk berzeak  
 Baño ederragoa.

#### 3. Hirur presun trinitatean

Iainkotasunean hirur  
 Kondatzen tuk presunak,  
 Aita, Seme Espiritu  
 Gero graziaduna.

Aita dut guztiz puxanta  
 Bai zuhurra semea,  
 Eta Espiritu Saindua  
 Dohain guztiz bethea.

Eztituk ordean hirur hauk  
 Ingoiko bat baizen  
 Iainko bat bezala ditik  
 Elizak adoratzen.

#### 4. Hirurtasunaren kontra hirur bekhatu

Hirurtsunaren kontra  
 Hirur dituk bekatu,  
 Hala die elizako  
 Dotorek deklaratu.

Aitaren kontra dituk huts  
 Flakotasunezkoak,



Semearen kontra berriz  
Ignoranziazkoak.

Espirituaren kontra  
Gaixtakeriazkoak,  
Azken hauk berzeak baño  
Barkatzen gaitzagoak.

Begira adike beraz  
Hiru falta hautarik,  
Bañan guztiz ere azken  
Deklaratuetarik.

### 5. Arimaren hirur ahalak

Gure arimaren eta  
Hirur dituk ahalak,  
Zeñak ospatzen baitire  
Hargatik prinzipalak.

Adimendua lehena,  
Gero borondatea,  
Eta fiñean iragan  
Direnez orhoitzeak.

Hirur ahal hauk enplega  
Etzak ontasunetan,  
Kadira ederra bathuko  
Hirur zaik zeruetan.

### 6. Bekhatuen barkhamemdu ardiatsteko, hirur gauza

Ardiaistekotzat heure  
Falten barkhamendua,  
Hirur gauza haurtzaz egon  
Behar duk orhoitua.

Lehenbizirik behar duk  
Bihotzean damua,  
Ondoan gero mihian  
Konfesio xahua.

Finean eskuan behar  
Satisfakziona.  
Hauk hirurez eginen duk  
Iaunarekin bakea.

### 7. Hirur berthute theologalak

Sinhetstea, esparantza  
Eta karitatea,  
Iongoizko berthuteen  
Kondatzen duk nonbrea.

Sinhetstik beraz Iaunak hitz  
Erran tuen guztiak,  
Ez ikhusi arren gauza  
Berak hire begiak.

Laurean gareño ikhusten  
Ditiagu illhunki,  
Noizbait zeruan egiñen  
Ditiagu daroki.

Esparantza ere behar duk  
Ezen hire nekeak,  
Izanen tuela sari  
Merezien kideak.

Zeren zeru lurrek lehen  
Baitute faltatuko,  
Ezen Iongoikoak baitu  
Bere hitza hautsiko.



Bañan fede eta esparantzaz  
Ezaitake probetxa,  
Karitate sailduz bero  
Ezbadeza bihotza.

Hura ohi duk berthute  
Guztien erregiña,  
Ardiatsteaz egikek  
Heure ahal egiña.

Fedea duk zimendua  
Esparantza harria,  
Karitatea ordean  
Gañeko estalkia.

Zer progotxu duk etxeaz  
Baldin eta uriei  
Idekia baitaroek  
Utzten eta haizeei.

Karitatea beharke  
Beraz berzeen gañetik,  
Berze berthute ederrez  
Probetxatze gatik.

### 8. Hirur gauza errespetatzekoak

Relikiak ohoratzak  
Bai eta imajinak,  
Bai halaber Agnus Dei  
Orhe sailduz egiñak.

Usat adi hek debotki  
Heurekien ekhartzen,  
Asko kaltetarik die  
Presuna begiratzan.

Ezen ozpin kruetetik  
Guardatzen die presuna,  
Eta barkhatzen bekhatu  
Benial deitzen dena.

Erre edo itsotzeko  
Halaber perilletik,  
Guardatzen die herio  
Baita ustekabetik.

Sathan ere iziturik  
Die ihesi bidaltzen,  
Bait indar etsaiari  
Garaitzeko ematen.

Gorgatuak libratzen tie  
Erditzeko miñetik,  
Hirur gauza sailduen hauk  
Heldu tuk berthutetik.

Deboziona handiz beraz  
Ekhar etzak heuekin,  
Perill hek har ez azaten  
Kalte handiarekin.

### 9. Hirur aureola edo hirur urre burutzak

Hiru khoroa ohi tuk  
Guztien ederrenak,  
Martiri, birjina eta  
Dotor iakintsunenak.

Nola gradu hauk baitire  
Ardiatsten gaitzenak,  
Zeruetan hala dituk  
Pagatzen gehienak.



## IV. burua

### 1. Laur berthute kardinalak

Prudenzia, iustizia  
Indar tenperanzia,  
Laur berthute kardinalen  
Duk nonbre hautetsia.

Aizen beraz prudent eta  
Zuzen baliazaille,  
Nekeetan borthiz eta  
Atseginen neurtzaille.

Ezen hanbat gizon ezтик  
Ezpatak hill munduan,  
Nola atsegin soberak  
Eman baitu putzuan.

Bertute hauk besarkatzak  
Ezen hautan berzeak,  
Sustengatzen dituk nola  
Gondeetan atheak.

Hargatik ere deitzen tuk  
Berthute kardinalak,  
Zeren diren athearen  
Nola sendo uhalak.

### 2. Lau bekhatu, zeruari bengantza eske dagozkanak

Begira adi eskuak  
Odolez gorritzetik,  
Baita naturaren kontra  
Bekhatu egitetik.

Eztezakela tormenta  
Emaxurx nerhabea,  
Ezta nekhazalleari  
Gora bere nekea.

Ezen hauk bendeku eske  
Ziaudekek zerura  
Hautan kautsa ez adintzat  
Iduki zak ardura.

### 3. Lau obra prinzealak

Orazione barur eta  
Limosna erromeriak,  
Giristinoaren dituk  
Obra buruzagiak.

Obra hauk harritzen die  
Etsaia gehienik,  
Hautan beraz al baitadi  
Hi treba maizkienik.

### 4. Gizonaren lau azken fiñak

Lau fin dituk gizon penak  
Handiz bethearenak,  
Gau eta egun bihotzean  
Iraultzeko tuenak.

Herioa duk lehena  
Berzea iuramendua,  
Berzea berriz infernua,  
Fiñean parabisua.

Orhoit adi lau fin hautzaz  
O gizon mundanoa,  
Zeñak erhakerietan  
Baituk heure gogoa.



Ezen ungi baldin bahaiz  
Gauza hautzaz orhoitzen  
Faltarik egin gabe  
Duk bizia eramanen.

## V. burua

### 1. Gorputzaren bortz sensuez

Eztezala bista heda  
Gauza ergel denera  
Ezta beharria zabal  
Itsusi den elhera.

Hain guti behar atzaik  
Usain onei iarraiki,  
Ezta gaizki mintzatzeko  
Heure ahoa ideki.

Fiñean eztezala uki  
Desonhest den gauzarik,  
Aitzitik sensuez zerbi  
Ungi begiraturik.

Ezen gure arimaren  
Hek ohi tuk leihoa,  
Hetarik giatik etsai  
Atakatzen gaixtoak.

Iduki etzakek beraz  
Hek ungi zarratuak,  
Ariman eztakizkien  
Sar etsai odolsuak.

### 2. Elizaren bortz manamendu prinzipalak

Meza entzun albaiteza  
Igande sainduetan,

Eta besta elizamak  
Manatu guztietan.

Bekhatuak konfesatzek  
Urthean behin bedere,  
Gorputz saildua errezibi  
Baskoetan ezpere.

Barur etzak bijilia  
Garta eta garizuma,  
Hala ardiatsiko duk  
Zeruko erresuma.

### 3. Elizaren berze borz manamenduak

Orziral laurunbatetan  
Eztuk haragi ianen,  
Ez muga debekuetan  
Ezkontzarik egiñen.

Aphezei paga dietzak  
Zor dorosten sioak,  
Hamarren primiziak  
Berze gañerakoak.

Eztezala batre hanta  
Heretikoarekin,  
Ez hain guti eskumikuz  
Zaurthua denarekin.

Baldin ordean herori  
Hartan bahaiz erori,  
Absolbatzera hoako  
Nigarrez prelatari.

Elizaren deitzen dituk  
Hautxek manamenduak,  
Diren ordenuak zeren  
Eliza saildakuak.



Obedizak beraz heur  
Ama ona bezala,  
Haren manuak obretan  
Ematen dituela.

Ezen Iaunak ez au bere  
Seme aboaturen,  
Non eztuen heure ama  
Eliza ezaguturen.

#### **4. Bortz sakramentaliak**

Ur benedikatu sailduz  
Bustizakek belarra,  
Bekhatuez orhoiturik  
Baita zeha bulharra.

Konfesio jenerala  
Maiz errakek debotki,  
Baita benedikziona  
Prelatena errezihi.

Gure Aita eztezala  
Ahantz saildu othoitza,  
Hau duk sakramentalien  
Nonbre sakratu bortza.

Bekhatu benialak hauk  
Ohi tie barkhatzen,  
Zeren bada eztuk hautzaz  
Ere kontu eginen.

#### **5. Berze bortz gauza sakramentaliei hurbilltzen zaiztenak**

Ogi benedikatua  
Har ezakek debotki,  
Eta Iaunaren gorputza  
Errezibi digneki.

Atariko probeari  
Emok heure ogitik,  
Eta meza saildua  
Entzun iaiki eta ohetik.

Prediku sailduak entzun  
Albaitetza ernehi.  
Sakramentaliei bortz hauk  
Ziarraiztek hurbillki.

Hauk ere orobat tie  
Beniazak barkhatzen.  
Eta grazia arima  
Flakotara isurtzen.

Hautzaz ere beraz heuk  
Egitzik progotxuak,  
Eztituk meziprezatzeko  
Ingoikoaren donuak.

## **VI. burua**

### **1. Espiritu Sailduaren kontrako sei bekhatuak**

Ez adilla desespera  
Huts egin dukenean  
Ezta heure ungi egiñez  
Sar presunpzionean.

Erreferta eztezala  
Egia ezagutua,  
Ez berzeren ontasunez  
Errizibi damua.

Begiradi egin duken  
Faltan hisfiatzetik,



Bañan guztiz konfesatu  
Gabetarik hilltzetik.

Ezen bekhatuetarik  
Barkhamendu gabea,  
Urrikimendu gabe duk  
Batbedera hilltzea.

Espiritu Sainduaren  
Kontra dituk falta hauk,  
Haren ontasunen kontra  
Zergatik baitire hauk .

Ahalaz begira adi  
Berez hoben hautarik  
Haren graziak eztaiten  
Aparta hire ganik.

## VII. burua

### 1. Zazpi galdegin behar ditugun gauza prinzipalak

Gure Aita zeruetan  
Glorioso zarena,  
Errespetuz aipha bedi  
Lurrean zure izena.

Egiguzu zeruaren  
Ardiatsteko grazia,  
Eta bethi konpli bedi  
Zure saindu nahia.

Egun oro behar gare  
Iguzu mantenua,  
Eta guk berzerik legez  
Hutsen barkhamendua.

Eztezazula permeti  
Tenta gaiten borthizki  
Bañan gaitzatzu kaltetik  
Hastanduak iduki.

Hauk duk Iesus Kristo Iaunak  
Irakatsi othoitza,  
Zenetan beharren tugun  
Zazpi gauza baitauntza.

Bethiere hau ahoan  
Albaituke maizenik  
Ezen eztuk othoitzetan  
Huni hersten zaionik.

### 2. Zazpi sakramentuak

Zazpi sakramentu dituk.  
Baptismua lehena,  
Konfirmazionea duk  
Gero haren hurrena.

Gero kofesionea,  
Gero gorputz saindua,  
Aphezkoa, eta ezkontza,  
Fiñean alunzioa.

Baptismuak arima dik  
Bekhatutik garbitzen,  
Konfirmazioneak dik  
Grazian eskoratzen.

Gorputz sainduak, hazkuntza  
Ematen arimari,  
Konfesioak barkhatzen  
Urriki duenari.

Aphezkoak gizona dik  
Aldareko sakratzen,





Eta ezkontzak grazia  
Ezkonduei ematen.

Alunzioak indarrak  
Berretzen arimari,  
Igurikitzeke azken  
Gudian etsaiari.

Haute hek dituk elizaren  
Zazpi sakramentuak,  
Iesus Kristo gure Jaunak  
Berak ordenatuak.

Hautarik arimetara  
Isurtzen duk grazia,  
Hala nola kanaletik  
Alhorrera uria.

Hautzaz bada freska zakek  
Arima agortua  
Gloria merezi duen  
Ekhar dezan fruitua.

Bañan ordean hautara  
Hurbill adi digneki,  
Jaun zerukoak gastiga  
Ezazantzat garratzki.

### 3. Zazpi berthute prinzipalak

Aizen bethiere humill,  
Bai begitartegille  
Trebesia eta ondiko  
Handien pairatzaille.

Liberalitetaten  
Preza zak noblezia,  
Eta kastitatearen  
Maita perla garbia.

Mahañean begira zak  
Arrazoin den neurria,  
Eta egitekoetan  
Egin dilijenzia.

Zeru goitia bistatzen  
Die zazpi planetek,  
Bai eta gure arima  
Zazpi berthute ederrek.

Hekien ardiatsteaz  
Egik ahal egiña,  
Bista dezaken arima  
Billuz eta eikhiña.

### 4. Zazpi bekhatu mortalak

Ezaizela handi nahi,  
Ez eta are bekhaixti,  
Ez eta utz garaitzera  
Heure aserreati.

Halaber abarizia  
Gaitzetzak itxikina,  
Nola manera berean  
Paillardiza higuña:

Gehiago ezaizela  
Emana zintzurrera,  
Ez hain guti nagitasun  
Laxo eta herrestera.

Zazpi berthuteen kontra  
Zazpi dituk bizio,  
Hidraren zazpi buruak  
Ziduritek propio.

Hekin asikiak dituk  
Arima hillgarriak,



Hetarik hillez betheak  
Ifernuko hobiak.

Ago beraz bethi erne  
Nonbaitik bere hortzak  
Kruelki eztiatzaten  
Iratxaki zorrotzak.

### **5. Espiritu Sainduaren zazpi dohanak**

Zeruko gauzen arraio  
Behin zuhurtziari,  
Munduko egin bideen  
Gero iakitari.

Gehiago al baituke  
Erne adimendua,  
Eta egiteko gaitzeran  
Har bethi konseillua.

Trabailuetan halaber  
Aite animoduna,  
Gutziz ere Iainkoaren  
Izan beldurrasuna.

Fiñean pietatera  
Aite guztiz emana,  
Hire penak izanen dik  
Golardo dagokana.

Espiritu Sainduaren  
Huna zazpi dohañak  
Munduko tresor guztiak  
Pasatzen dituztenak.

Orhoitzaren sari ditik  
Hauk aithortzen libroki,  
Haukin beraz eska akio  
Belhauriko humillki.

### **6. Miserikordiasko obrak**

Aizen urrikalmendutsu  
Beharraren aldera,  
Iongoika ona alaber  
Izan dadin hirera.

### **7. Zazpi miserikordiazko obra espiritualak**

Irakats al baitiozo  
Ez iakin sinpleari,  
Eta konseillu on eman  
Premia duenari.

Konsola ezakek ere  
Gaitz handiek hartua,  
Eta pazientki sofri  
Etsaien afruntua.

Niholatan bengantzarik  
Eztezala desira,  
Iauna ziagok gaixtoa  
Punitzeko begira.

Othoitzak egin behar tuk  
Hill eta bizientzat,  
Eta ez xolli adizkide  
Baña are etsaientzat.

Hauk miserikordiazko  
Obra espiritualak,  
Berehala heldu diren  
Hauk berriz korporalak.

### **8. Zazpi miserikordiazko obra korporalak**

Athariko probeari  
Hauts diozok ogia,



Baita egarri denari  
Presenta edaria.

Lekhorean datzanari  
Emokek ostatua,  
Guztiz senioraleari  
Arratseko pausua.

Halaber besti ezakek  
Probe billuz gorria,  
Eta ikhus ohaturik  
Gelan datzan eria.

Bisitatu ere behar  
Dituk presondegiak,  
Eta fiñean aurkhitu  
Ehorztean lohiak.

Hautxek dituk bada obra  
Urrikimenduzkoak  
Zeñak manatu baititu  
Hertsiro Iongoikoak.

Ezen ethortzen denean  
Iuiatzera mundua,  
Haukien galdegiñen dik  
Prinzipalki kontua.

Obra on hautzaz mukuru  
Egik beraz handia,  
Eztuentzat iuiamendu  
Hartan ahalkeria.

### **VIII. burua** *Zortzi dohatsutasunak*

Aizen espirituz probe  
Gaixtakerietako.

Bañan ordean aberats  
Obra sainduetako.

Har ezakek atsekabe  
Berzek huts egitean,  
Eta emetasunaren  
Prezadi berthutean.

Ahalaz baliarazi  
Albaiteza zuzena,  
Remediatzera kalte  
Etsaia berzerena.

Urreaz erosten ezten  
Maitazakek bakea,  
Nola xahutasunaren  
Oraño berthutea.

Eta nihork ofensatzen  
Bahau bidegabezki,  
Orhoit adi sofritzera  
Hobena pazientki.

Berthute hauk gaitiztek  
Errendatzen dohatsu,  
Iaun onak ziarozkiguk  
Hargatik gomendatu.

Hautan beraz treba adi  
Hark agindu saria,  
Ardiats dezan zein baita  
Sekulako gloria.

### **IX. burua** *Bederatzi bekhatu berzerekin kutsatzen garenak*

Eztiozola berzeri  
Eragin bekhaturik,



Lausenguz edo mehatxuz  
Hartara lixturturik.

Guardadi halaber nihor  
Gaizki konseillatzetik  
Baita gaizki egitera  
Halaber manatzetik.

Eztezakela bekhatu  
Egitera zagita,  
Ez eta hain guti nihoiz  
Konsenti haren falta.

Gutiago are behar  
Duk egiten lagundu  
Ezta eginez geroztik  
Ungi dela laudatu.

Faltatzera doanean  
Begirauk izilltzerik,  
Allegia ez ikhusten  
Bai itxura egitetik.

Giristiñoa hauk dituk  
Bederatzi hobenak  
Kristau laguna faltetan  
Eragotzten dutenak.

Begirauk beraz  
Hutsik eragiterik,  
Aitzitik heure ahalaz  
Gibelazak gaizkirik.

Zerengatik hark bekhatu  
Egiten duenean,  
Herori ere kutsatzen bait  
Aiz haren hutsean.

## X. burua

*Hamar manamenduak*

Inongoiko bat onhets ezak  
Eta adora debotki,  
Eta haren izenaz ez  
Zinik egin banoki.

Gehiago begira zak  
Igandea sainduki,  
Eta burasoak ohora  
Bizi adin luzeki.

Nihor hill eztezakela  
Ez bihotzez gaitzetsi.  
Ezen bengantzen Iainkoa  
Ni behar nauk sinhetsi.

Paillardiza iguñari egoikek ihesa,  
Guztiz ere ez desira  
Lagunaren esposa.

Berzeren ona hain guti  
Beharko duk iduki  
Guztiz ere hauzoaren  
Ontasuna ez uki.

Fiñean mihiari emok  
Guardia ezten gezurti,  
Eta aizen falseria  
Irauztera beldurti.

Huna Iainko handiaren  
Hamar manamenduak,  
Bi harrizko tauletan hark  
Berak eskribatuak.



Begiradi beraz lege  
Saindu haukin hautstetik  
Gastigua ezthatorken  
Zeruaren gañetik.

## XI. burua

Hamenka milla birjinek  
Iesus Kristoren gatik  
Bere bizitzeak eman  
Zitizteen gogotik.

Hartarakotz orhoit adi  
Hekin bihotz handiaz  
Eta omena ohora  
Ahal egin guztiaz.

## XII. burua

*Sainduaren 12 fruituak*

Guztien gañetik izan  
Ezak karitatea,  
Ezen berthutetan har dik  
Eramaren florea.

Eta ungi egiteaz  
Bethiere boz adi,  
Iarraikitzen atzaiola  
Kharrez berthuteari.

Gehiago preza ezak  
Bakearen dohana,  
Eta gerla gaixtoetarik  
Ago bethi hastana.

Halaberki albaiteza  
Maita emetasuna,  
Baita manera berean  
Ere mansotasuna.

Ontasunaren oraño  
Preza zak berthutea,  
Eta Iainkoaren baithan  
Iduki sinhetstea.

Heure erremangetan  
Guarda zak modestia,  
Kalte eta lastimetan  
Bai har paziencia.

Guztiz ere preza ezak  
Kastitate garbia,  
Bañan ere gehiago  
Saindu kontinenzia.

Bañan berthute guztiak  
Koroatzen tunak  
Huts egin gabe duk obra  
Onetan iraupena.

Espiritu Sainduaren hauk  
Fruitu hamabiak,  
Zeñek xitzen baitituzte  
Gañerako guztiak.

Hautzaz arima haz ezak  
Giristino flakoa,  
Etzen hauk daroe bizi  
Emanen bethikoa.

### Hamabi apostoluen, hamabi errefauak

*S. Petrus*

Sinhetsten, dut Iainko Aita  
Ahal guztitakoa,



Zeñak kreatu baititu  
Zeru lur itsasoa.

*S. Ioanes*

Nik halaber sinhetsten dut  
Iesus haren semea,  
Zeñak reparatu baitu  
Gizonaren kaltea.

*S. Iakobus*

Espiritu Sainduaren  
Gañik zen konzebitu,  
Eta Maria birjina  
Noblea ganik sorthu.

*S. Andreas*

Herio pairatu zuen  
Pilatusen azpian  
Eta Iosephek ehortzi  
Bere tonba berrian.

*S. Philipus*

Linboetara arimen  
Libratzera iautsi zen,  
Eta gero hirugarren  
Egunean bitztu zen.

*S. Thomas*

Zeruetara igan zen  
Eta Aitarenean,  
Orain glorioso dago  
Iarririk eskunean.

*S. Bartholomeus*

Handik ephe iakinean  
Iautsiko da lurrera,  
Hill eta bizi guztien  
Zuzenki iuiatzera.

*S. Matheus*

Nik oraino sinhetsten dut

[...][124-125 orrialdeak falta dira]

3. Fede saildua da, Iainko  
Bat hirurtasunean,  
Ohoratzea hirurtasun  
Hura batasunean.

4. Presuñak elkharreki  
Batre nahasi gabe,  
Substantzia halaber hain  
Guti berezi gabe.

5. Ezen berze da presuna  
Aita Iainkoarena,  
Berze semearen, berze  
Espirituarena.

6. Bañan Aita, Seme, eta  
Espirituarena,  
Bat da iongoikotasuna  
Bat orabat izana.

Gloria, berdina dute  
Berdin maiestatea,  
Egundañotikakoa  
Haste eta fin gabea.

7. Nolakoa baita Aita  
Halakoa Semea,  
Halakoa Espiritu  
Amodioz bethea.

8. Aita kreatu gabea  
Semea ere gabea,  
Eta orabat Espiritu  
Grazien emaillea.



9. Aita neurri gabea da  
Semea neurri gabea,  
Espiritu sakratua  
Orobat neurri gabea.

10. Aita bethierekoa  
Semea ere orobat,  
Espiritu sakratua  
Haura ere orobat.

11. Guztiarekin eztire  
Hirur bethiereko,  
Bañan solamentki bat da  
Iainko bethiereko.

12. Hala oraño eztire  
Hirur kreatu gabe.  
Ezta manera berean  
Hirur neurririk gabe.

Bañan kreatu gabe bat  
Eta neurri gabe bat.  
Hauk hirurak bethiere  
Ez baizen Iongoiko bat.

13. Orabat da Iainko Aita  
Ahal guztitakoa,  
Orobat Semea, orobat  
Espiritu goikoa.

14. Ordean eztire hirur  
Ahal guztietako,  
Bañan solamentki bat da  
Ahal guztietako.

15. Hala Aita, Iongoiko da  
Semea ere Iongoiko,  
Espiritu sakratua  
Ere orabat Iongoiko.

16. Guztiarekin eztire  
Batre hirur Iongoiko,  
Bañan solamentki bat da  
Aithor duguna Iainko.

17. Hala Aita Iaun da eta  
Semea, Iaun orobat  
Espiritu sakratua  
Ere Iaun da orabat.

18. Eztire ordean hargatik  
Hirur Iaun niholere,  
Bañan solamentki Iainko  
Bakhar bat bethiere.

19. Ezen nola eliza baitu  
Manatzen bat bedera,  
Presuna bakhotxa Iainko  
Eta Iaun aithortzera.

Halaberki hark berak du  
Hertsiro debekatzen,  
Hirur Iainko edo hirur  
Iaun izenda eztaiten.

20. Aita nihork eztu egin  
Ez eta are kreatu,  
Ez eta oraño nihork  
Halaber engendratu.

21. Aitaren ganik bakharrik  
Da seme dohatsua,  
Ez egin eta ez kreatu  
Basian enjendratua.

22. Aita, Semeen ganik da  
Espiritu Saindua,  
Ez egin eta ez kreatu  
Bañan prozeditua.



23. Beraz aita bat da eta  
Hirur aita eztira,  
Seme bat da eta hirur  
Seme ere eztire.

Halaber eztire hirur  
Espiritu sakratu  
Bañan xolli espiritu  
Saindu bat aithor dugu.

24. Hirurtasunean ezta  
Lehen azkenagorik,  
Ez eta are gehiago  
Handi xipiagoarik.

Aitzitik hirur presunak  
Dire egundanokoak,  
Eta hirurak oraño  
Elkarren kidekoak.

25. Halako gisaz non lehen  
Erran dugun bezala,  
Ohoratu Iongoiko bat  
Non bethi behar baita.

Iakiteko batasuna  
Hirurtasunena,  
Eta orabat hirurtasun  
Haur batasunean.

26. Hargatik nahi duenak  
Bere arima salbatu,  
Hirurtasunaz sinheste  
Hau iduki behar du.

27. Bañan oraño gloria  
Saindua ardiastekoa,  
Inkarnazione Iesusena du sinhetsteko.

28. Fede zuzena da bada  
Guztiok sinhets dezagun  
Eta gehiago geure  
Ahoz aithor dezagun.

Iesus Kristo gure Iauna  
Dela Iainko Semea,  
Dela oraño gehiago  
Gizont gure parea.

29. Dela Iainko, Iainko Aitaren  
Substantzia beretik,  
Eta enjendratua mende  
Guztien aitzīñetik.

Gizon berriz bere amaren  
Substantzia garbitik,  
Eta iaioa denbora  
Hañitzen gibeletik.

30. Ianko perfet gozon perfet.  
Arima arrazonduanaz,  
Egiña eta haraki  
Gizon erbalarenaz.

31. Aitaren berdin Iongoiko  
Tasunare araez,  
Aita baño gutiago  
Gizatasun arinez.

32. Zeña Iainko eta gizon  
Halaber izan aren,  
Hargatik ordea ez baita  
Iesus Kristo bat baitzen.

33. Bat ez iongoikotasuna  
Haragira itzulirik,  
Bañan Iainkotasunera  
Gizatasuna harturik.





34. Guztiz bat ez substanzien  
Nahastekatasunaz,  
Bañan bat xolli presuna  
Beraren batasunaz.

35. Nola gorputza eta arima  
Baitirade gizon bat  
Hala Iainko, eta gizona  
Dire Iesu Kristo bat.

36. Zeñak pairatu baitzuen  
Gure gatik herio,  
Emateko gure arima  
Gaxoei erremedio.

Ifernura patriarken  
Libratzera iausti zen,  
Eta gero hirugarren  
Egunean bitztu zen.

37. Zeruetara igan zen  
Eta Aitarenean,  
Orain glorioso dago  
Iarririk eskuiñean.

Handik berriz ethorriko  
Da mundu beherera,  
Hill eta bizi guztien  
Zuzenki iuiatzera.

38. Hura ethortzen denean  
Hill diraden guztiak,  
Biztuko dire bihotzak  
Dituztela larriak.

Bere gorputz propioak  
Dire presentatuko,  
Zeren bizitzeko obrez  
Kontu errendatzeko.

39. Obra onak egin tuztenak  
Ionen dire zerura.  
Gaixtoak egin tuztenak  
Iautsiko ifernura.

40. Hau da fede katolikoa  
Zeña baldin leialki,  
Babederak idukitzen  
Ezbadu eta osoki,

Ezin salba ahal baitaite  
Bañan dohakabeki,  
Behar baitu leze kharrez  
Iratxakira iausti.

Athanasioaren hauk duk  
Fedearen bilduma,  
Apostoluek eginak  
Deklaratzen duena.

Arrius bat zebillala  
Elizaren nahasten,  
Hari kontra egiteko  
Argira eman zien.

Hunen beraz ikhasteko  
Har albaiteza pena,  
Ezen hau duk gure fede  
Sainduaren goihena.

#### **XIV. burua** *Elizako zeremoniez*

Eliza sainduan baduk  
Asko zeremonia,  
Zeñez hagoan baitago  
Debozione guztia.



Ezen frutua azalak  
Nola baitu guardatzen,  
Deboziona hala  
Hek die begiratzen.

Iduki etzakek beraz  
Hek estima handitan,  
Ezen hire arimaren  
Dituk ontasunetan.

### Doktrina kristianaren zarratzea

Hunenbertzez aditu duk  
Iesus Kristen doktrina  
Orain haren obratzeaz  
Egik ahal egiña.

Ezen berzetako eztuk  
Gizona kreatua,  
Baizen konplitzeko haren  
Manamendu saildua.

Eta gero ardiatsteko  
Sekulako gloria,  
Halakoa Iaunak egin  
Diezala grazia.

## HIRURGAREN TRATATUA

*Konfesatzeko antzea laburki*

Nola kofesioa baita bekhatuaz Iainkoaren grazia galduz geroztik haren aurkhitzeko moiana, parabisuko bide zabaletik pasatuz geroztik, bide hartara itzultzeko xidorra, iustuasunaren unti handitik behatuzko itsasora eroriz geroztik, biziaren anpharatzeko ohola, fiñean basan sartuz geroztik xautzeko ithurria.

Hala andiro da on haren ungi iakitea, Iainkoaren grazia galdu duzuean, aurkhitzeko basatu zaren bidera itzultzeko erori zern untzira igateko eta lothu zaizkitzun zikhiñen xahutzeko.

Ikhas ezakezu beraz gauza hain ekhai handitako, zein iduritu zaizkidan liburu hobrenenatarik zure premia urrikaldurik atheratu eta moldatu baitu, zeure progotxua egikezu.

### 1. Konfesioren preparatzeko antzea

Konfesioren preparatu gabe batetik begiratu, hain gauza sailduaz abusa eztezazuntzat eta Iainkoak puni etzaitzuntzat. Preparatzen hastean konfesioren preparatzeko othoitza erranen duzu. Gero zeure azkhen konfesioren geroztik egin tuzun bekhatuez orhitzen etsaiatuko zare.

Handiroi baliatuko zaitzu arratseko konzienzioaren examenetan merkatu zintuen bekhatuen orhoitzapena.

Eztezazula berze falta oherakoan haren egitera, oroiterako ohoitzak berak orhoitazaraziko zaituen bezala zein baita pag.

Preparatzen zenbat denbora egin behar duzun ezin ungi seña daite, hillhabethe bat egotu bazare konfesatu gabe egonen zare gutiñean oren laurden gat, baldin gehiago egotu bezare gehiago denboraren eredura.

Orhoituko zaren bekhatuak gogoan ungi har etzatzu eta ahantzteko beldur bazare eskribuz ematzitzu eta dita kofesoriari ahalke eta urriki handi batekn irakur diotzotzu, gero etxera zarenean papera errezazu.

Azken kofesioan bekhatuak ahantzi bazinduen lehenik bekhatu hura kofesatu behar duzu.

Osoki bekhatu guztiak bat ere estali gabe kofesatu behar tutzu. Xahuki klarki eta deus gerizatu gabe erran behar tutzu.



Hitz alferrik eta zure bekhatuei ukitzen etzaoenik erran behar eztuzu. Bekatuei datxezten gauzak edo erran ohi den bezala bekhatuaren zirkunstanziak erran behar tuzue.

Nola ez xolli haragizko bekhatu egin, dut, bañan egin dut apheza-rekin serorarekin lagunaren emaztearekin lagunaren senharrarekin.

## 2. Kofesatzen hasteko antzea

Kofesatzeko ahalik hobekiena preparatu zarenean othoitzean aphur bat belhauriko egonen zaren kofesatokiaren aldean, baldin berzerik kofesatzen bada zeure aldiarein begira modestki eta ixillki igurikiko duzu.

Kofesatokian debotki eta onhestki sartuko tzare eta belhauriko iarriko zare.

Egiñen duzu gurutzearen señailea.

*In nomine patris* edo eskaraz Aita Seme etc.

Eskuak iuntatuko tutzu.

Gero erranen diozu aita kofesorari.

*Benedicame, pater quia peccavi.*

Edo eskaraz, aita indazu plazer baduzu benedikzioea ezen bekhatu egin dut.

Benedikzioea hartu eta erranen duzu.

*Confiteor*, edo eskaraz, kofesio jenerala pag.

Gero hunela kofesatzen hasiko zare.

*Aita hunelako egunez azkhenki kofesatu nintzen.*

Errazu zenbat egun duen edo zenbat denbora eta baldin zenbait bekhatu ahantzi bazitzaitzu errazu.

*Hunelako bekhatu ahantzi zitzaitan.*

Errazu zer bekhatu eta baldin penitentzia konplitu ez bazinduen errazu.

Ez nuen konplitu ordenatu zitzaiten penitentzia.

Gorputz saildua ere ahal nukkeen bezanbat preparazionerekin eta debozioneredin ez nuen errezipitu eta zegokan bezala ondoan eskerrak ez nituen bihurtu.

Halaber oraingo kofesio hunetara ez naiz heldu behar den preparazione edo debozionearekin.

Fiñean hautsi du neure azken kofesioan hartu nuen deliberazine ona, ezen asko aldez huts egin dut Iainkoaren hamar manamendu sainduen kontra.

## 3. Manamenduen arauz kofesatzeko antzea

### I. Lehenbiziko manamendua da

*Iongoiko bat onhets ezak eta adora debotki*

Manamendu saindu hunen kontra huts egin dut ezen

Faltatu dut askotan Iainkoari zor zitzaion ohorearen ematera, eza-gutzaren egitera, othoitza eta eskerren itzultza.

Othoitzik egin badu egin dun antsikabeki eta laxoki eta goga berzetan nuela hartara gogoetak itzulzeko ardura gabe.

Iainkoaren gauzetan zegokan baño gehiago eta barrenago sarthu nahi izatu dut. Fedezko gauzez dudatu dut eta hala zirenz.

*Errazu zertan.*

Ametsetan aztietan sorginetan ezkuturretan eta berze deabruaren artetan siheste eman dut.

*Erratzitzu zein diren.*

Neure egitekoeran eta beregainki lazeria eta ondikoetan, gehiago fidatu naiz kreaturretan edo gizonetan ez ezen Iongoikoaren baithan.

Esparantza sobera izatu dut Iainkoaren miserikordian bizitze gaitztoa neramararik eta handik gehiago bekhatu egiteko libertate hartu dut.

Iainkoa bano neure burua eta gizona gehiago maitatu dut eta obeditu.

Neure lagun giristinoa bere beharrean ahal negiela eztut faboratu.

*Errazu zertan.*

Gauza sailduz eta Iainkoari ukitzen zitzaizkonez burlatu naiz.

*Errazu zenez.*

### II. Bigarren manamendua

*Eta haren izenaz ez zinik egin banoki*

Manamendu hunen kontra ere huts egin dut ezen.

Zin eta burho hanitz egin dut.

*Errazu ala den usantza gaixtoz ala iakiara, eta zer burho edo iuramendu egin duzun.*

Iuramentu egin dut haren odola zerua haren argia bai ala fede etc.



Erran dut hain da egia nola Iainkoa bera nola ebanjelioa etc.  
Izatu naiz kausa zeren berzeren eta burho egin duena.  
Agindu dut gauza ona iuramenturekin konplitzeko borondate gabe.

### III. Hirugarren manamendua da

*Igandeak eta bestak iduki ezak sainduki.*

Manamendu hau ere mesprezatu dut ezen.  
Igande eta besta egunetan lanean haritu naiz eta berzerik ere hariarazi dut.

*Errazu zer lanetan eta ea halako beharra zenz.*

Meza entzutera zordun nintzen egunetan faltatu dut.

*Errazu zergatik eta zenbatetan.*

Niri datxezkidanei meza entzutera tenitu zirenean faltarazi daroet edo entzun zaten ardurarik ez tut izan,

Predikua entzuteaz axolarik izatu ez tu edo gogoa berzetan erabili dut predikariez trufatu naiz.

Maiz meza entzun dut deboziora gabe gogoa berzetan nuela horra huna begiak nerabillizala eta solasen nengoela.

Meza luzetan unhatu naiz eta laburrak billhatu tut aphez meza luza-ro erraldez gaizkia erran tut.

Meza nausirik ez tut entzun pregariorie guardiarik ez taroet egin.

### IV. Laugarren manamendua

*Burasoak ohoratzak bizi adin luzeki*

Manamendu hau ere ez tut kontutan iduki ezen

Neure burasoak ez titut zerbitzatu eta obeditu.

*Baldin hill badira.*

Neure burasoen frogak hek utzi zerozkidaten eta neronek nituen moianen arauera ez titut athera.

Neure izatez eta ethorkiz ohoratzera tenitu nintzen presunak mezprezatu tut.

*Errazu ea diren aphezak fraideak iuratuak edo berze kargu do esku duten presunak.*

Gogokiegi urgullukiegi minzatu natzait.

Jendartean hetzaz gaizki mintzatu naiz.

Errazu ala gauza kontuzkoetan ala arinetan.

Gauza iustu eta arrazoñekoetan ez titut obeditu.

*Errazu zertan.*

Zehar eta borondate gaixtoekin begiratu daroet.

*Errazu zergatik.*

Neure ahalke gabetasunaz eta gaixtakeriaz aserratzeko okasione eman daroet.

Jende zaharraz mezprezatu tut eta hekin hitzez eta erremangez burlatu naiz.

Esker gabe izatu naiz neure ungi egilleen aldera.

*Errazu zertan.*

Bruita izatu dut neure urkorekin hargatik gaitzetsi tut.

*Errazu zenbat denboraz.*

### V. Bortzgarren manamendua da

*Nihor hill eztezakela ez bihotzez gaitzetsi ezen bengatzen Iainkoak ni behar nauk sinhetsi*

Hunetan ere erori naiz ezen berzeri gaitz ethor zekion nahi izatu dut.

*Errazu ala zen aserrealdian ala odol hotzean.*

Gaizki egilleari gaizki egiteko eta bengantzan hartzeko desira izatu dut.

*Errazu guztiz konsenti duzun ala ez.*

Neure lagun giristinoa gaitzetsi dut.

*Errazu zergatik eta zenbat denboraz.*

Neure lagun giristinoa desohoratu du.

*Errazu zertan eta ala ixillik ala ageriki ala aitzineti ala gibeletik.*

Bere eskas eta imperfekzioenez irau eta erantzuki egin diot.

Neure ahalaz difamatu dut.

Neure haserrean erran dut biala gaitz dagitella haizeak uriak egunak eta berze kreaturrek.

Othoiz gaixtoak neure buruaren kontra despitez eta pazioenzia gabez egin tut.

Nahi ez tudanik ethorri edo erran zaitanean lasterregi aserratu naiz eta pazienziarik ez tut izan.

Aserrarazi ditut errespetatu behar nituen presunak eta gehiengo hek erran darotatenaz nerori ere aserratu naiz. Neure etxatienren hutsak sobe-ra gastigatu tut, koleraz gehiengo ez ezen arrazoñez.

*Errazu eta gastigua falta baño handiago zenz.*

Neure etxekoei bizitze gaixtoa eman daroet.



*Errazu ala emazteari senharrari, umei ala sehiei, burasoei.*  
Berzerik zeren aserratu eta despitatu den kausa izatu naiz.  
Aserratu naiz eta pazientzia galdu dut Iainkoak zenbati atsekabe ego-  
rri darotanean.

## VI. Seigarren manamendua

*Pallardiza iguñarik egioke ihesa  
guztiz ere ez desira lagunaren esposa*

Hunetan ere faltadun naiz gozatu naiz suñera ethorri zaizkidan  
gogeta desonhetsetan.

*Errazu zenbat denboraz baita ea konsentitu duzun eta obretara eman.*

Berregin ibilli naiz eta aratzeki neure burua onhets eta maitarazi nahi  
desonhestki.

*Baldin emakumez bazare errazu fardatu bazare.*

Fardatu naiz sobera afaitatu eta imikiak ergelki iauntzi tut.

Neure begiak behar etziren ikhurkarietara nebarmenki erabilli tut.

Izatu tut hitz lizunak gogo gaixtoarekin.

Kanta desonhestak kantatu tut eta liburu amuruziazkoak irakurri.

Musuak desonhestki eman tut.

Emakumeak itsuski eta ahalki gabeki hazkatu tut.

Lizundu izatu naiz.

*Errazu ala lotan ala iratzarriarik.*

Neure burua itsuski ikitu dut edo ukizerat utzi dut berzerik ere  
nenorrek egin dut.

*Berze Jesus keria hemen aiphatzera ahalke behar denik egin baduzu errazu  
ezen berdin Iainkoak ikhusi du.*

Finean emakumearekin osoki bekhatu egin dut.

*Errazu ala serorarekin aphezarekin lagunaren senharrarekin, emaztearekin  
ahaidearekin ala atzearekin ahaidearekin ala alhargunarekin ala neskatoarekin ala  
ezkondukoarekin.*

## VIII.

*Berzeren ona hain guti beharko duk iduki*

## VII.

*Guztiz ere hauzoaren ontasuna ez uki*

Berzeren ontasun zilhegi ezten bidez arditatstera desideratu dut.

*Erran behar duzu ea obretan ematera esaiatu zaren.*

Diru izatea gatik neure lagun giristiñoa trunpatu dut.

*Errazu ala markandisa saltzean ala kontratu falso iragaten.*

Komunaren ontasunak artifizioz neure egin tut.

Hamarren primiziak eztitut ungi pagatu.

Pagatu bere iornal edo soldata, iduki diot edo morrotxtu diot.

Neronek neure travaillua sobera pagarazi dut.

Gareztiegi gauzak saldu tut eta merkeegi berzeren ganik erosi, bere  
etzituzteratarik etxeko ume eta seietarik.

Ohoñ estalki izatu naiz.

Iokotan diru irabazteagatik eta trunpatzeagatik haitu naiz.

Limosnatik probetzeko beldurrez, eta guztiak neuretzat nahiz, eztut  
egin.

Aberatsteko asmatu hala dudan bide gaixto guztia billhatu dut.

Aberatstea ahal daiteken dohatsutasunik handiena estimatu dut.

Hartzeko tudanak iustizia guztiaren kontra bortxatu eta tormentatu  
tut niholako errespetu gabe.

## XIX. X. Bederatzi eta hamargarren manamenduak

*Heure miliari emok guardia ezten gezurti  
Eta aizen falzeria irauztera beldurti*

Arinki iuiatu dut berzeren obrez eta hitzez, gaitzetara hartu dut  
onera hartu behar zena.

Gogoan behar gaixtoak arinki neure lagun giristiñoaz izatu tut.

Berzeez gaizki minzatu naiz.

*Errazu ala zen difamatzeko gogoarekin ala arinkin.*

Berzez nihor gaizki mintzatzea gogotik eta atsegiñarekin aditu dut  
neure aldetik zerbait berretu dut.

Neure lagunaren bekhatu ixilla agertu dut.

*Errazu ala iakiara eta kalte eragiteko ala berzela.*

Sekretu barren bat airatu dut zein agin du bainuen estalirik idukitzeko.

*Errazu zer gogoz airatu duzun baita gomendatu zerotzunari kalterik ethorri  
zaion.*

Neure hitz gaixtoak ditudala gauza lagun giristiñoa desohoratu dut.

*Errazu zertan eta zer gutimendu eta mezprezio handik izatu duen.*

Gezurak erran tut.

*Errazu ala ziñez ala burlaz ala iuramentuarekin ala gabe alaber zeri aisegin  
egitea gatik ala kalte.*



Falsoki neure laguna akusata dut eta haren kontra lekhuko falso izatu naiz eta berzerik izan arazi.

Lagunen artean asko hitz arin alfer eta gaixto erran dut.

#### **Hau da manamenduen arauera bere buruaren akusatzeko antzea**

Iakin ezazu ezen iakiara hamar manamendu hauk ikhusi tutzun bezala ezarri tugula elkhar ziduritenak elkhar gana billdurik nola seigarrena eta bederatzigarrena eta zazpigarrena eta hamargarrena: erraxkiago zuk gogoan hartzeagatik eta ez gauza bera bieta aiphatzeagatik zeren biak batetare billtzen biatire ungi begirutzen duzunean ikhusiko duzun bezala.

### **4. Zazpi bekhatu mortale edo arima hillgarrien kofesatzeko antzea**

Manamenduez erran den molde hunetan kofesatu zarenzan zazpi bekhatu mortalez hunela egin beharko duzu.

#### **I. Supherbia edo handigoazko bekatuak**

Banaloriazko gogoetak izatu tut zeñetan zenbait denboraz gelditu bainaiz.

Glorifikatu naiz Iainkoak eman darozkidan dohañez eta berzeren eskasez burlatu naiz.

Neure lagunei asko beheramendu eman daroet eta bere hutsak aitzinera daroztet.

Ni bezanbat edo gehiago ziren presunak mesprezatu tut.

Presunpzioez bethea izatu naiz, nintzen baño gehiago neure burua egiten nuela.

Urgulleria gehiegirekin errezibitu dut egin zaitan zerbitzoa.

Burupe gehiegirekin mintzatu natzaie neure azpikoei.

Nahi izatu dut munduak nitzaz opinione on zuen ezertan gehiago idukitzeko.

Lausengu eta neure laudorioetan atsegin hartu dut.

Neure burua bantatu dut aita ene baithan etziren dohañez eta berthutez.

Hista eta sepa gaixtotako izatu naiz.

Berzeren, abisu onak mezperezatu tut.

Nihori alde egin eta deus irauki nahi izatu eztiot bañan azkhena geldi zekidan nahi izatu dut.

#### **II. Inbidia edo bekhatzeko bekatuak**

Bekhaiztu naiz zeren batzuek diren ni bezanbat eta berze batzuek berriz zeren ni baño gehiago edo ohoretan edo moianetan.

Damu hartu dut neure laguna laudatzen aditzeaz ustez ezen haren estimak eneak gutitzen zuela.

Hura gutiago estimarazitzeagatik haren inperfekzione nihork etzea-kizkienak agertu tut.

Berze batzuek bezala aberatstea gatik eta ohoratua izateagatik hekin bekatuak egin tut.

#### **III. Zintzuraren bekatuak**

Bianda arruntez ez naiz kontentatu eta friandizak bilhatu tut.

Goizegi premia gabe ian eta edan dut.

Othuruntzetan behar baño gehiago ian dut eta hetzaz lekhora eta premia gabe ian eta edan dut.

Sobera gartuz gañez egultera ethorri naiz.

Barur egunetan hameka orenak baño lehen ian dut.

Arratsean kolazione handiegi egin dut.

Arratsetan afaldu naiz.

Barur egunak premia gabe hautsi tut.

Haragi ian dut egun debekutan eta garizuman berze gauza sori etzi-renetarik.

Gauza kontrarioak anoko lazera gatik ian izatu tut eta gaizki aurkhitu naiz.

Sobera zintzurari emana izatu naiz.

Hargatik gauaz lizundu izatu naiz eta amets desonestak egin tut.

Hargatik hitz eta kanta desonhestak erran tut eta erremangu itsusiak ediki tut.

Hargatik maskatu eta danzazatu izatu naiz. hagati gauza sakratuez iatetan ihardutki dut.

Hargatik neure nausiez eta gehienez gaizki mintzatu naiz.

Hargatik begiratu gabe behar etzen gauza agindu dut.

Hargatik neure eginbidera alfer izatu naiz.



Hargatik arratsetan neure othoitzak eta konzioenziaren examinazioa ezin egin tut.

Hargatik osasunari kalte egin diot.

#### IV. Alferkeria edo nagitasunezko bekhatuak

Lo sobera egin dut eta ohean alferkeriaz behar baño gehiago egotu naiz.

Gehiegi egotu naiz goizean bestitzen eta afaitatzen.

Ezteuzkerietan egunaz denbor hanitz galdu dut.

Geldirik egonaz gogeta banoei lekhu eman daroet.

Neure sensuak guardatzeara antsikaba izatu naiz hargatik bekhatutan eginen nintzen baño gehiago erori naiz.

Neure ofizioan ez naiz ungi enplegatu.

Traballua gatik asko obra on eta hasiz geroztik galdu ditut.

*Errazu zer obra.*

Traballatu baño gabe eta erromez izan nahiago izatu dut.

Mundu hunetako lazeriu gatik gogoa hilla zait.

Hargatik bizitzeaz unhatu izatu naiz.

*Berze hirur bekhatu mortal edo arimaren hillgarriak, zeñak baitire abarizia, pazientzia gabea, eta herra, hamar manamenduetan aiphatu tugu orhoitzen bazare hargatik hemen aiphamen gehiago egiñen eztugu.*

*Hau da kofesatzeko antze komunena iakiteko hamar manamenduez eta zazpi bekhatu mortalez, huna bada non zerbitza zaitezen gatik aditzera eman darotzugun zerbitza zaiten bada ezen ungi kofesatzen dena guti bekhatutara itzultzen da.*

*Gañerokoaz baldin gu heman ezarri dugun baño anplekiago kofesatu nahi baduzu, irakurt zatzu guk manua handian lehen partena doktrian kristianan aiphatzen tugun bethuteak eta bizioak eta egin tutzun hutsak hek orhoitarazirik gogoa hartzazu eta kofesa tzatzu.*

#### 5. Kofesioaren akhabatzeko antzea

*Erran dugun ordenantza hunetan othoitzaren bekhatuak kofesatu dutzunean errakezu aita kofesorari.*

Aita hauk dire othoitze naizen bekhatuak handiak eta iziagarriak damu eta dolore dut hain itsuski eta gaiztoki neure Iainko on eta iustua ofensatuaz bere ene alderako guztiz ontasunagatik. Badut ez sekulan

gehiago itzultzeko gogoa baita satisfakzione egitekoa eta emanen darotzun penitenziaren konplizekoa, barkhamendu eske nagoka.

*Hartzatzu emanen darozkitzun konseillu onak eta penitenziak, konplitzeko borondatearekin eta goro errazu mea culpa, mea culpa, etc.,*

*Edo eskaraz,*

Neure faltaz, neure faltaz etc.

*Gero absoluzioea bi eskuak iuntaturik dadukatzula errezibi zazu.*

*Modestki kofesatokitik ilkhi zait.*

*Errazu kofesatu ondoko othoitzak pag 81.*

*Gero penitenziatzat eman zaizkitzun othoitzak denboarak agintzen badu erratzitza gorputz saildua errezibitzera prepara zait.*

*Errazu gorputz saildua errezibitzera othoitz, p. 84.*

*Gorputz saildua debozione handirekin eta gorputzaren erremangu?onestarekin errezibi zazu.*

*Errezibitu eta, errezibitu ondoko othoitz errazu, gero othoitzean gutiengan oren laurden bat zaude.*

*Zoaz etxera eta gehiago bekhatuetara etzaitzela itzul nola urdea illkhi den basara edo ora egin duen okhara, bañan idukazue ez sekula gehiago erorzeko kofesioa eman duzun promesa, eta eman zaizu penitentzia konplitzeaz orhoit zait.*

*Penitentzia konplitzerakoan errazu, penitentzia konplitzeako othoitz.*

*Konplitu duzunean halaber errakezu penitentzia konplitu ondoko othoitz.*



## LIBURU HUNEN BIGARREN PARTEA

*Orenetako othoitzez.*

## I. IGANDETAKO ORENAK

### Matutinak edo goizeko othoitzak

*Gure Aita, Agur Maria, Sinhetsten dut*

#### Domine labia

Iauna, idekietzat  
Arren ene ezpañak  
Ene ahoak dizkitzun  
Laudorio ordañak.

Iainko ona, duzun artha  
Ene faboratzeaz.  
Eta bihotzean khexa  
Penatik libratzeaz.

Gloria Aita Seme eta  
Espiritu Sainduari,  
Lehen zen, orain den, eta  
Bethi izanen denari.

#### Gonbidatzea

Zatozte adora zangun  
Egin gaituen Iauna,  
Zatozte adora zangun  
Lurretarik bethaena.

#### Dabitek gonbidazen du bat bedera,

#### Iainkoaren adoratzera

*Venite exultemus. Psal. 94.*

1. Zatozte jende prestuak  
Iauna baithan boztera,  
Zatozte salbatzaillea  
Baithan allegeratzera.





Aithor diotzogun egun  
Darozkigun ungiak,  
Eta boz gaitezen haren  
Kantatzen eresiak.

2. Zeren Iaunik handiena  
Baita gure Iainkoa,  
Hura berze Iainko guztien  
Errege gañekoa.

Gu berriz haren beraren  
Bihotzeko jendeak,  
Hark eztitu arguiatzen  
Nihoiz ere bereak.

Haren eskuko dirade  
Lurraren harxedeak.  
Bere ezagutze ditu  
Mendien gathaiteak.

3. Haren propioa ere  
Da itsaso urdiña  
Leihora eta harena.  
Hark bere eskuz egiña

Zatozte beraz Iaun handi  
Haren adoratzera,  
Eta haren aitzinean  
Belhauriko iartzera.

Zatozte begietarik  
Nigarrak isurtzera,  
Zeren egin dugun hañitz  
Falta haren aldera.

Eta zergatik hura den  
Gure kreatzaillea,  
Hura gure Iainko eta  
Habe eta iabea.

Eta gu halaber haren  
Jende onheritziak,  
Haren hespill ederreko  
Gu ardi bereziak.

4. Zatozte beraz guztiak  
Haren adoratzera,  
Eta hari zor diogun  
Ohorea ematera.

Ezen Iaun hark berak hain baitu  
Hartara gonbidatzen,  
Berak darozkigu solas  
Eme hauk idukitzen.

Aditzen tutzuenean  
Ene ahoko hitzak,  
Begiraukizue zeuen  
Gogoitzetik gihotzak

Nola egin baitzituzten  
Behiala zuenak,  
Sinaigo desertuan  
Aita bihotz gogorrek.

Zeñak baininduten asko  
Aldiz haserrararik,  
Zituztelarik maiz ene  
Gastiguak ikhusi.

5. Berrogoi urthez emeki  
Egotu nintziaien,  
Abisatzen nituela  
Zirela enganatzen.

Alabaña obstinatu.  
Hek batera hantsia,  
Har ziteen obran ene  
Emateaz nahia.



Aserrerik iuramentu,  
Orduan egin nien,  
Ene errepausura nihoiz  
Etzirela sarthuren.

**Himnus kanta**  
*Primo dierum*

1. Lehenbizi egunetik,  
Mundua egin zenetik,  
Edo iauna zenetik  
Illkhit thonba illhunetik.

Hezirik herioa  
Gure kontrarioa,  
Eta gu harenetik  
Libraturik gathetik.

2. Gero ohetarik  
Lokhumak haizaturik,  
Iaiki gaiten Iaunaren  
Billhatzera onaren.

Nola profetak baitu  
Araitzina kantatu,  
Hala dela gera  
Bethi eginbidea.

3. Entzun ditzan gureak  
Arren othoitz tristeak,  
Eta bekhatutarik  
Graziaz xahaturik:

Diezugun eskua,  
Heda bere saildua,  
Eta gaitzen zerura  
Altxa izarratura.

4. Egin saildu hunetan  
Nola oren iakinetan,  
Baikagozko kantorez  
Bethi gaitzan faborez.

Arren gada entzun gaitzan  
Eta mukura gaitzan,  
Bere dohain handiez  
Zerutik isuriez.

5. Iainko Aita badazu,  
Suplikatzen zaitugu,  
Dietzagutzen lohiak  
Arren han gutziak.

Gorputza eztezen  
Gurea lizun arren  
Eta gero lezera  
Bidal kharrez bethera.

6. Hargatik oraño zu  
Kristo othoizten zaitugu,  
Hobenak xahutzeaz  
Eta grazia egiteaz.

Haragizko obratik  
Egin gabe garabik,  
Dignerediren gaiten  
Kantatzeko eskerren.

7. Hala egizu Aita  
Hala Seme bakhotxa,  
Hala Espiritua,  
Amudios khartsua.

Zeñak hekin biekin  
Baitzuzu ohorekin,  
Agintzen mendeetan  
Fiñik eztutenetan.



## Berze himnua

*Nocte surgentea*

Gauaz iaikirik  
Beilla dezatun  
Kanta ederretan  
Argi dezagun,  
Iauna dugula  
Bethi laudatzen  
Eta othoizten.

Orobat dugula  
Kristo egiten,  
Egun diezagun  
Grazia arren,  
Zeruko salara  
Noizbait hel gaiten.  
Han goza gaiten.

Hori dagigula  
Iongoiko Aitak,  
Hori Semeak,  
Hori Espirituak,  
Zenen gloriaren  
Hotsa munduan,  
Baita guztian.

### Antiphona, kanta aitzinekoa

Zerbitza zazue Iauna  
Beldurtasunarekin,  
Eta boz zaitezte haren  
Baithan ikhararekin.

*Mintzatzen da, iustuen dohatsutasunaz eta gaix-  
toen lazeria eta ondikoaz.*

*Beatus vir. Psal. I*

1. Dohatsuna du gizona  
Zeña gaixtoenean,  
Behinere ediretan  
Ezbaita batzarrean.

Dohatsua zein ez baita  
Nihoiz hekin balsatzen,  
Ez hekia izurritz bethe  
Alkhian nihoiz iartzen.

2. Bañan kontra zeñak baitu  
Bere bihotz guztia,  
Iongoiko onaren lege  
Sainduan ezarria.

Zeñak pasatzen baititu  
Gauak eta egunak,  
Gogoan darabilltzala  
Haren iustutasunak.

3. Halakoak iduriko  
Du zuhaitz loratua,  
Ibaiaren bazterrean zin bait laudatua.

Zeña bere muga baitu  
Fruitu ona ekhartzen,  
Zeñen ostoa ezpaita  
Nihoiz ere erortzen.

4. Bere egitekoak hari  
Ungi illkhiren zaizko,  
Eta hartaz izanen  
Du gogoan bozkario.

5. Ezta ordean izanen  
Gauza bera gaixtoaz,  
Beñan hala nola herrauts  
Lurraren gañekoaz.



Zeña hara huna baitu  
Haizeaz erabiltzen,  
Eta azkenean bazter  
Urrunera etxatzen.

6. Hargatik ezta biztuko  
Azken iuiamenduan,  
Lehu izateko onen  
Konpania sainduan.

7. Ezen Iainkoak prestuen  
Ikhusten du bideak,  
Ikhusten nola basatzen  
Diren bekhatoriak.

### Gloria

*Jesus Kristo mintzatzen da iuduek haren kontra  
egiñen ditzozten batzarreen kontra.  
Quatre fremuerunt. Psal. 2.*

1. Zeri jendeak habarrots  
Hanbat dio egiten,  
Zeri hanbat gauza alfer  
Gogan iragaten.

2. Lurreko errege eta  
Prinze ospatuenak.  
Asererik ene kontra  
Iaiki dire lehenak.

Elkhar gana bildu eta  
Hartu dute konseillu,  
Ni behar nautela habe  
Laidotsura altxatu.

3. Erran dute hauts detzagun  
Haren lege guztiak,

Hauts eta iharros haren  
Hede eta ustariak.

4. Bañan zeruko Iainkoa  
Hetzaz bada burlaten,  
Eta ekin gogoetetz  
Aharria egiten,

Ezen minzatuko zie  
Kolera handirekin,  
Eta nahasiko ditu  
Furia handirekin.

5. Zeren ni eginen bainau  
Siongo erregea,  
Ni bakharrik bere mendi  
Sainduaren prinzea,

Haren hitza jendeari  
Nik diot aiphatuko,  
Nik haren manu sainduak  
Guztiei predikatuko.

6. Hark niri erran zerotan  
Hi aiz ene semea,  
Egundanotik indudan  
Egin neure kidea.

7. Galde diezadak bada  
Nahi duken guztia,  
Eskatu bezain sarri zaik  
Aithorturen nahia.

Nik emanen darozkiat  
Here azpiko jendeak,  
Nik heure eskuko leiho  
Zabalaren xedeak.

8. Haren gañean duk heure  
Xigorraz manatuko,



Eta errebel direnak,  
Hain erraxki hautsiko,

Nola thellaginak baitu  
Hautsten bere elzea,  
Iduritzen zionean  
Eztela ungi errea.

9. Hartarakoz erregez  
Hitz hauk entzuntatzue,  
Zeñak lurreko jendeak  
Iuiatzen baititutzen.

10. Zerbitzatzazue Iauna  
Beldurrasunarekin,  
Eta haren aitzinean  
Ibill ikhararekin.

11. Ikhas ezazuke haren  
Zuhurtzia saindua,  
Zuen billha eztabillan  
Koleraz zumindua.

Etzaaitezela aparta  
Haren xidorretarik,  
Gal etzaitezten kontrako  
Bidera zeharturik.

12. Gero hel eztakizuen  
Betan haren kolera,  
Gastigatzne zaituztela  
Faltaren arauera.

Dohatsu izanen dire  
Hala eginen dutenak,  
Eta haren baithan bera  
Bihotza duketenak.

## Gloria

*Nola iustuak munduan diren lazeriatuak, eta  
gero konsolatuak.  
Die quid multiplicati. Psal. 3.*

1. Zeri elkhar gana zaizko  
Ene etsaiak billtzen,  
Zeri errabiaturik  
Ene kontra altxatzen.

2. Erraten dutela ezen  
Gutziz utzi nauzula,  
Eta zure baithan zeren  
Fidatu eztudala.

3. Bañan berzela da Iauna  
Zeren eta enea,  
Zu baitzare fabore eta  
Buru altxatzaillea.

4. Zuri egiten darotzut  
Ondikoan plañua  
Eta zuk zerutik duzu  
Entzuten ene oihua.

5. Zure gerizean loa  
Bakezki dut egiten,  
Eta kaltek hartu gabe  
Goizean naiz iaikiten.

Zeren zu baitzare ene  
Begiraille ernea,  
Zu kalte guztietarik  
Ene libratzilla.

6. Hala milionka ziri  
Etsaiak herstu arren,  
Guztiarekin bihotza  
Etzait batre kantitzen.



Hek guztietarik zeren  
Zuk guardatzen bainazu  
Eta ene aldaketarik  
Khasatzen baitituzu.

7. Guztiz zehatzen dituzu  
Iaun ona hareanak,  
Nik subietik eman gabe  
Oldartzen zaizkidanak.

Hei bere ahoko hortzak  
Daroztetzu xeatzen,  
Hek dituzu ahalke eta  
Desohorez bethetzen.

8. Zeren zu baitzere inozenat  
Guztien faborea,  
Zu zeure maite guztien  
Benedikatzailea.

*Gloria, etc*

Zerbitza zazue Iauna  
Beldurtasunarekin,  
Eta boz zaitezte haren  
Baithan ikhararekin.

*Gure Aita zeruetan etc*

Eztezazula permeti  
Tenta gaiten borthizki  
Bañan gitzazu kaltetik  
Hastanduak iduki.

## 1. absoluzioea

Iesu Kristo Iauna entzun tzatzu, zeure zerbitzarien othoitzak, eta zure urrikal gakizkiten, zein bizi baitzare mende guztietako mendetan Aita Seme eta Espiritu Sainduarekin. Hala biz.

## 1. benedikzioea

—Mana zazu Iauna, benedika gaiten.  
—Bethiereko, benedikzioea, benedika gaitzala Aita egundañoakoak.  
Hala biz.

*Lect. Dominica S. Augusti 12. post Pentecost.  
Eklesiastikoaren liburutik*

## 1. lekzioea

Eztezala begira gaizki billdurikako ontasunetara, eta ezterrala, badut nik aski bizitzeko, ezen bengantzazko edo hersturako denboran, etzaizkik deusik baliatuko.

Ezarraiea heure ahalaz heure bihotzaren gutiziei eta ezterrela: zenbat ahal dudan, edo nork ni punituko nau neure obren gatik. Ezen Iaunak bengantza hartuko dik. Ezterrala bekhatu egin dut, eta zertzez gaizki erori zait. Iaun goreña duk pazienza luzetakoa, bañan ordean ordaña bihurtzen duena bekhatu barkhatuaz ezaizela beldurtasun gabe, eta ezti-zola bekhatua bekhatuari iratzaki, zuri bada Iauna urrikal gakizkitzu. Iainkoari esker.

Lehenbizi haste danik, Iainkoa lurra egin zezan baño lehen, usinak eta ithurriak egin zezan baño lehen, mendiak ifin zezan baño lehen, haran guztiak, baño lehen Iaunak egin ninduen.

Zerua aphaizten zituenean han, harekin gauza guztiak ordeñatzen nituela.

Mendia ifin zezan baño lehen,  
Haran guztiak baño lehen Iaunak egin ninduen.

## 2. absoluzioea

Mana azazu Iauna benedika gaiten.



## 2. benedizkonea

Iainkoaren seme bakhotxak benedika gaitzala eta urgaitz gaitzala.  
Hala biz.

### 2. lekziona

Eta ezterrala Iainaren urrikalmendu handia da, urrikalduko zaizko ene bekhatu handiak. Ezen haren oi hotz beratasuna eta haserrea laster elkharri hurbiltzen ziaizkok, eta bekhatorek ziairaunztek haren aserreak. Eztezala bada berant Iainaren gana itzultzera, eta ez adilla gibela egunetik egunera. Ezen betan ethorriko duk haren aserrea eta bere bengantazko egunean galduko au. Ezukela aberatstasun bidegabezkoen goarik ezen etzaizkik deusik baliatuko, hersturako eta bengantazko egunean. Ezadilla itzul haize guztietara ezen hala ezagutzen duk bekhatorea bi mihitan. Guk bada Iauna gaitutzun urrikari.

—Iainkoari esker.

Zeruaren inguruan neronek bakharrrik egin dut eta ibilli naiz itsasoko holatan, jende guztietan eta popul guztietan izatu naiz lehen handi eta gora nahien lephoak neure indarrez ostikatu ditut.

Ene egoitza da lekhu goretan, eta ene alkhaia hedoeizko hareñean.  
Handi eta gora nahien lekhoak, neure indarrez ostikatu ditut.

## 3. benedikziona

Mana zazu Iauna bedinka gaiten.

### 3. absoluziona

Espiritu Sainduaren graziak argi detzala gure begiak eta bihotzak.

### 3. lekziona

Aizen gogor Iainkoaren bidean, eta ikhusten duken egia eta zuhurtzian, eta arraio bakezko hitzari eta zuzenarei aizen manso hitzaren entzuteko, har dezakenzat, eta zuhurki egia ihardats albaiteza. Baldin baduk adimendurik ihardats diozokek heure urkoari. Baldin ezpaduk emakek herue eskua heure ahoren gañean, hal ezazanzat, hitz erhoan eta halza ez adin, ohor eta gloriarik baizen eztuk zuhurraren hitzean, eta erhoaren

mihia haren galgarria, ez adilla deit hitz untzi, eta ahalke gorri ezadin. Zuk bada Iauna gituzun urrikari, Iainkoari esker.

## Te Deum laudamus

1. Zu zaitugu Inongoia,  
Bihotz osoz laudatzen,  
Zu mundu hedatuaren  
Iaun puxantzat aithortzen.
2. Eta zu bethiereko  
Aita lur loretsuak,  
Ohoratzen zaitu guri  
Ekhartzen errespetuak.
3. Zuri bethi dagozkitzu  
Aingeru arkanjeluak,
4. Kerubinak, serafinak  
Baita are tronuak.
5. Saindu, saindu eta saindu  
Munduaren Iainkoa.
6. Zure gloriar beztheak dire  
Zeru lur itsasoa.
7. Aposloluaren batzarre  
Gutziz gloriosoak,
8. Eta profeta sainduen  
Nonbre laudatzekoak.
9. Gehiago marthirien,  
Armada triumfantak,  
Ixildu gabe dituzte  
Erraten zure kantak.
10. Munduaren bazterretara  
Eliza da hedatzen,  
Zenbat ere baita handi  
Zu guztiak aithortzen.
11. Aita maiestatz eta  
Gloria handiz bethea.
12. Zure semea orobat  
Gloria handiz bethea.
13. Espiritu Saindua du  
Halaber kofesatzen,



Zeruetako kortean  
 Presuna irurgarren.  
 14. O Iesus Kristo zu zare  
 Glorioso erregea.  
 15. Zu bethiereko Aita  
 Haren Seme noblea.  
 16. Etzitzitzun gizonaren  
 Libratzeko iguñidu,  
 Birjinaren sabelean  
 Egitera ostatu.  
 17. Zuk bentzuturik herio  
 Kruela animoski,  
 Zeruko athea fidelei  
 Zinaroen ideki.  
 18. Orain maiestetez zara  
 Fin gabeko glorian,  
 Aita haste gabearen  
 Eskuñeko alkhian.  
 Eta dugu sinhestea  
 Munduaren fiñean,  
 Iuiatzera ethorriko  
 Zarela hedoiean.  
 19. Zu bada othoitzen zitugu.  
 Arren zeure sehiak,  
 Fabora gaitzatzun zeure  
 Odolaz erosiak.  
 20. Eta golarda gaitzazun  
 Liberalki sariaz,  
 Zeure sainduen artean  
 Sekulako gloriaz.  
 21. Kaltetik defenda zazu  
 Zure poplu maitea,  
 Eta benedikata zeure  
 Aitzinazko jendea.  
 22. Zuk othoi guberna zazu  
 Zuk mantena ohorez,  
 Zuk bethiere mukura  
 Dohain eta faborez.  
 23. Iguzkiak eztu egun

Garabetan argitzen  
 Non etzaren ohorezki  
 Zure ahotan aipatzen.  
 24. Zure izena laudatzen da  
 Eta eginen sekulan,  
 Hats arthezki dezagiño  
 Bizi garen lekhutan.  
 25. Iainko on egiguzu  
 Egungo egun guztia,  
 Bekhaturik egin gabe  
 Pasatzeko grazia.  
 26. Duzun othoi urrikari  
 Zeure jende gaxoa.  
 27. Duzun urrikari haren  
 Pena eta ondikoa.  
 28. Esparantza handia dut  
 Hala eginen zaitzula.  
 29. Eta ahalduek hartzera  
 Utziko ez nauzula.

### **Ad laudes Albako othoitzak**

Iainko ona duzun artha  
 Ene faboratzeaz  
 Eta bihotzean khexa  
 Penatik libratzeaz.

Gloria, etc.

### **Antiphona edo kanta aitziniñekoa**

Labe gorira hirur haur  
 Saindu ziren etxatu,  
 Idola zergatik nahi  
 Etzuten adoratu,





Guztiarekin kharraren  
Bare etzuten antsia,  
Itzitik benedikatzen  
Bozik Iainko handia.

*Dabitek kreatura guztiak gonbidatzen ditu,  
zein bere lerroan Iainkoean laudatzera.*

*Laudate Dominum de caelis, Psal. 148.*

1. Jaunaren obra guztiak  
Iauna lauda zazue,  
Zeru gorean dagoen  
Iauna lauda zazue.

2. Hura lauda ezazue  
Aingeru arkanjeluak,  
Hura lauda haren indar  
Eta tronu sainduak.

3. Hura lauda ezazue  
Iguzki illhargiak,  
Hau lauda izar eta  
Berze argizagiak.

4. Hura lauda ezazue  
Zeru lasterlariak,  
Eta hekien gañean  
Zaretzen ur guztiak.

5. Guztiok diozatzue  
Erantzun erestiak,  
Zeren egin baitzaitzute  
Haren ahal handiak.

Ezen haitz bat hark ahotik  
Athera bezain sarri,  
Argietara ziñetan  
Zuek guztiok illkhi.

6. Hark eman daiozkitzuk  
Zeni bere ethorkiak,  
Hark bethiere iraunen  
Duten lege herstsiak.

7. Hargatik lauda zazue  
Iauna lurreko gauzak  
Baita zuek ere dragon  
Eta usin guztiak.

8. Zuk ere lauda ezazu  
Orabat su argia,  
Zeure kreatzaille eta  
Formatzaille handia.

Lauda zazue tormentak  
Zuek gisa berean,  
Zein altxatzen baitzarete,  
Hark nahi duenean.

9. Zuek ere egizue  
Orobat o mendiak,  
Baita zuek ere haran  
Bai zuek ordokiak.

Zuek halaberki zuhaitz  
Fruitu ekhartzailleak,  
Lauda ezazue Iauna  
Bai zuek alzifreak.

10. Abreak eta elhiak  
Orobat egizue,  
Suge eta hegatztiñak  
Orobat egizue.

11. Bañan zuek beregainki  
Lurreko erregeak,  
Lauda ezazue eta  
Mendearen iujeak.



12. Oro neskatxa gazteak  
Gure zaharrarekin,  
Iauna lauda ezazue  
Guztiok elkarrekin.

Zerengatik bethiere  
Baita haren izena  
Berzetarik laudo eta  
Ohoratzekoena.

Ezen aithorra behar du  
Zeru eta lurrian,  
Zeren berak dituen  
Ematen ohorean.

13. Laudorio hari saildu  
Guztiak zor diote,  
Eta Israelgo semeek  
Beregainki diote.

Zergatik Israel baita  
Haren guztiz maitea,  
Israel hari gehien  
Ungi zaion jendea.

**Eliza beregainki gonbidatzen du  
Iainkoarne laudatzera**

*Cantate Domino canticum novum, Psal. 149.*

1. Iaunari diotzotzue  
Kanta aria berriak,  
Munduan bizia zareten  
Kreatura guztiak.

Beregainki diozozu  
Zuk kanta eresia  
Eliza saildu hainberze  
Iaun on hark onhestsia.

2. Israel tristea beraz  
Hak bedi allegratzen  
Haren kantak dituela  
Bozkarioz erraten.

Zerengatik ezteusetik  
Iaunak baitu arhera,  
Eta isuri fabore  
Asko haren gañera.

Siongo alabak bere  
Erregenak boz beite,  
Eta ahire ederrak  
Erantzun biotzotu.

3. Haren izena bezate  
Lauda gathan boretan  
Gitarra eta maniura  
Soñu ederrezkotan.

4. Ezen Iaun onari zaio  
Lakhet bere jendean,  
Guztiz ere manso eta  
Baketiar denean.

5. Halakoak bereziki  
Dire haren glorian,  
Atsegiñez gozatuko  
Zeruko iauregian.

6. Behiñere ixilduko  
Ezta hekin ahoa  
Laudatzetik zeru eta  
Lurraren Ingoikoa.

Berze guztien gañen  
Hek ditu altxatuko,  
Hik eskuetan ezpata  
Emanen manatzeko.



7. Bengantza har dezantzat  
Sinhetsgorren gañean,  
Eta haren hitzaz kontu  
Egin eztuen jendean.

8. On eskuetan dezaten  
Lothekin erregeak,  
Eta burdinetan eman  
Hekin aithonen semeak.

9. Hekien gañean egin  
Dezaten iustizia,  
Prestuak izanendute  
Hunalako gloria.

**Bat bedera, Iainko laudatzera  
gonbidatzen du, desira handirekin**  
Psal. 150.

1. Laudazazue Iaun ona  
Bere sainduen gatik,  
Zeren daroen fabore  
Hanbat egin zerutik.

Lauda ezazue zeru  
Izarratuen kausaz,  
Zergatik egin dituen  
Hain antze aberatsaz.

2. Lauda ezazue bere  
Indar handiगतिक,  
Lauda bere handitasun  
Hare gabea গতिक.

3. Lauda ezazue klaron  
Eta trunpeta sonuz  
Lauda maniure gitarra  
Zistra, eta harpa kantuz.

4. Lauda zazue ezkillak  
Errepikarazirik,  
Lauda guztiok khorora  
Elkhar gaña bildurik.

Lauda ezazue zurela  
Eta orgañoetan,  
Lauda soñu ederrezko  
Instrument guztietan.

5. Lauda zazue zimbala  
Eta alboka sonuz  
Fiñean bozkarioko  
Lauda Iaun ona kantuz.

Hats hartzen duen guztiak  
Lauda beza Iainkoa,  
Zergatik haren izena  
Baita laudatzekoa.

**Capitulum.  
Benedictio et cleritas**

Bere arraitasun, eta  
Zuhurtziaren গতिक,  
Nola oraño ohore  
Eta indarra গতिक.

**Iainko ona gure ganik duela laudorio,  
ihardatstea**

Duela bada hark batak zertan bozkario.

**Himnus**  
*Aeterne rerum conditor*

1. Iainko haste gabea  
Gauzen kreatzaillea,



Gaua eta eguna  
Gobernatzen tutzuna.

Zuk denboran xuxen  
Diotzatuz erakhartzen,  
Iuga eta aldarreak  
Arintzeko nekeak.

2. Ollar xori erneak  
Eguna deitzailleak,  
Gaua gauaren ganik  
Berezi du iadanik.

Hura da gauazkoa  
Bidezkoen haroa,  
Hark ditu begiratzen  
Errebela ez daiten.

3. Hunek iratzarririk  
Artizarra zerutik,  
Khentzen du illunbea  
Begi itzaltzaillea.

Hunen kausaz bideak  
Ditu senioraleak,  
Utzten basatzekoak,  
Hartzen xuxenagoak.

4. Huni itsasturiak  
Biltzen indar guztiak,  
Hunek holak ematen  
Piatres konbertitzen.

5. Beraz iaiki gaitean  
Ollarrak kantatzean,  
Hark ohitu nagiak  
Mehatxatzen lotiak.

6. Orduan da eria  
Esportzatzen larria,

Ohoña gerizatzen  
Eroriak latxatzen.

7. O Iesus, eroriei  
Zuk othoi min hartuei,  
Begira diezazu  
Eta altxa etzazu.

Hala egiten baduzu  
Arinduko dituzu,  
Nigarrak xukatuko  
Bihotzak gurenduko.

8. Arren bada argia  
Armaren handia  
Haiza tzazu lokhumak  
Adimenduarenak.

Gure ahoak zuri  
Dietzazun iustuki,  
Ontasun eginenak  
Bihur esker zuzenak.

9. Iainko Aitak gloria,  
Bai Semeak handia,  
Nola Espirituak,  
Amudioz khartsuak.

#### **Berze himnua edo kanta**

Huna itzala  
Non den mehetzen,  
Alba gorria  
Berriz agertzen,  
Othoitz dezagun  
Podoroso,  
Geure Iainkoa.

Urrikaldurik  
Gure nigarra



Hark ikhus dezan  
Gure beharra,  
Eta azkhenean  
Sekulakoa,  
Digun gozoa.

Hala dagigula  
Iainkokatasunak,  
Aita Semea,  
Airearenak,  
Zenen munduan  
Baita gloria,  
Guztiz handia.

*Hala biz*

- Iauna errege da eta ohorez, bestitua.
- Ohorez bestitua eta indarrez zerkhatua.

**Anthiphona**

Nausia zer eginik  
Bizitze fin gabea,  
Ardiatsiko dut eta  
Zori onez bethea.

Nausiorrek zioen  
Ihardatsi hañari,  
Legean zer datza nola  
Ohi duk irakurri.

Heure bihotz guztiaz duk  
Maiteko Ingoikoa,  
Hartan ziaunzak profetak  
Hartan lege ofra.

*Zakariasez, Iainkoari eskerrak izultzen diotzo,  
zeren egin dien Iaun-doni Iauni seme izateko grazia.*

1. Benedika dadillala  
Israelek Iainkoa,  
Zeren urrikaldu zaion  
Bere jende gaxoa.

2. Eta zergatik athera  
Duen lazeriatik,  
Libratzaille Dabiten  
Bidaldurik etxetik.

3. Lehen mintzatu zen legez  
Patriarken ahoez,  
Eta profeta sailduen  
Erran egiazkoez.

4. Bikalduko zerokula  
Geure salbatzaillea,  
Eta etsaien artetik  
Geure libratzaillea.

5. Plazer hura gure Aita  
Zaharrei egiteko,  
Eta agindu oroien  
Hitzaren konplitzeko.

6. Zin egin zioen legez  
Gure aita Abrahami,  
Egorriko zerokula  
Salbatzaillea guri.

7. Harik balentki libratu-rik  
Gerue etsaietarik,  
Hura zerbitza ginezan  
Beldurtasun gaberik.

8. Eta ibill gintezen haren  
Aitziñean sailduki,  
Nahi gintueno mundu  
Beherean iduki.



9. Eta zu, o haurtxo, egun  
Zori onez sorthua  
Zu deithuko zare haren  
Profeta sakratua.

Ezen haren aitzinean,  
Zu zare abiatuko,  
Hark egin behar dituen  
Bideen aphaintzeko.

10. Salbamenduko bidea  
Duzu irakatsiko,  
Penitentzia saildua  
Jendei predikatuko.

11. O Iongoiko bihotz bera  
Zeure ontasunak gatik,  
Begiratu darokuzu  
Zeure tronu goratik.

12. Arren bada argitzatzu  
Gure espirituak,  
Heiotzearen goibel  
Illhunak izituak.

Eta gure oñak gida  
Tzatzu arren bidean,  
Bake eta egiazko  
Ontasunarenean.

### **Anthiphonea**

*Nausia zer egirik, etc.*

O Iainko ahal guztietakoa eta kurrikalmendutsua, zeñen ontasunetik heldu baita, zeure leialez digneki, eta sailduki zerbitzatua izaten iguzu othoi grazia, zure ontasun aginduetara, nihon behatztapatu gabe laster egiteko, Iesus Kristo gure Iaun eta zure seme zurekin, eta Espiritu Sailduarekin bethi bizi eta agintzen duenaren mereziatar.

*Hala biz*

## **Ad primam Argitu denean**

*Gure Aita, Agur Maria, Sinhetsten dut.  
Iainko ona duzun artha etc.  
Gorago bezala.*

### **Himnus kanta**

Illkhi eta iguzkia  
Dugun Iainko handia,  
Othoitz egin hunetan  
Kaltetik guarda gaitzan.

Baida dezan mihia  
Bitz eztezan hauzia,  
Bista ere guarda dezan  
Ergelki beha eztezan.

Bihotza halaberki  
Garbi dezan iduki,  
Eman abstinenzia  
Hesteko haragia.

Iguzki estali,  
Denean gaua itzuli,  
Diotzagun eskerrak  
Hari bihur ederrak.

Gloria Iainko Aitari,  
Halaber Semeari.  
Gero Espirituari  
Konsolatzaillari.

**Dabiten errenkura Zefeendarez  
zeren Sauli non zen salbatu zioten,  
zeakitelarik hill nahi zuela**

*Deus in nomine tuo. Psal. 53.*



1. Iainko ona arren zeure  
Ezen ederra gatik,  
Athera nazazu neure  
Etsaien puxantzatik,

Ene alde othoi zeure  
Emazu sentenzia,  
Ene libratzeko nola  
Baituzu hala guztia.

2. Arren bada adizazu  
Ene othoitz tristea,  
Beharria idukitzen  
Diozula ernea.

3. Ezen lehortarrak zaizkit  
Neure kontra altxatu,  
Eta hiltzeko hegien  
Sendoek naute billhatu.

Eztute batre izatu  
Zure beldurtasunik,  
Aitzitik hill nahi naute  
Zu guztiz ahantzirik.

4. Bañan Iainko ona, othoi  
Zu fabora nazazu,  
Eta zeure gomendio  
Onean har nazazu.

5. Baldin gogo bazeaie  
Kanbiatzen onera,  
Eztezazula kalterik,  
Bidal hekin gañera.

Baldin ordean irauten  
Badute bere herran  
Zuk diezazu merezi  
Duten pagua eman.

6. Sakrifizio sailduak  
Darozkitzut orduan,  
Gogotik ofrendatuko  
Zeure aldare sailduan.

Eta xahuki dut zure  
Aithortuko izena.  
Guztieteko sailduen  
Dela eta ederrena.

7. Zeren herstura handitik  
Naukezun librarazi,  
Eta neure etsai kruelak  
Begiz meziprezarazi.

**Iainkoari eskatzen zaio  
haren manamenduen konplitzeko grazia**  
Psal. 118.

1. Dohatsua da gizona  
Zena baita bidean,  
Loitu gabe ibilltzen  
Iainko onarenean.

2. Dohatsua da gizona  
Oraño zena haren,  
Bihotz guztiaz billhatzen  
Baita hitz sailduaren.

3. Gaixtoek ordenean hala  
Egin ohi eztute,  
Ezen haren xidorretan  
Onik sartzen eztute.

4. Alabanan Iainko ona  
Bat bedera zuk duzu,  
Zure manu sailduak ungi  
Guarda detzan manatu.



5. Zeren entzananen haita  
Berzeez nik bedere,  
Ait netza hek ungi guarda  
Iauna ona, bethiere.

6. Ezen ez ninduke nihoiz  
Ahalkeak harturen,  
Baldin hek behar bezala  
Banitu begirutzen.

7. Orduan nerozkidetzu  
Bihurtuko eskerrak,  
Zeren ikhasi nituzken  
Zure errefau ederrak.

8. Hek bada bihotz guztiaz  
Nahi ditut guardatu.  
Hartarakotz Iainko ona  
Zuk fabora nazazu.

9. Zure manu sakratuez  
Ditu gizon gazteak,  
Korrejitzen bere bizi  
Erhoaren bideak.

10. Ni ere hekin ondoan  
Hargatik naiz ibilltzen,  
Hetarik aparta nadin  
Permeti ezazu arren.

11. O Iainko, mundu guztiak  
Laudatzen zaituena,  
Irakats diezadazu  
Zeure lege zuzena.

12. Ene ezpanek merezi onez  
Lauda dezaten,  
Berze lege guztiak baño  
Zeren hobea den.

13. Nik behintzat gehiago  
Plazer hartzen dut hartan,  
Ezen mundu hunetakoa  
Aberatstasunetan.

14. Hartan ungi trebatuko  
Naiz neure bizitzean,  
Eta begia idukiko  
Zure bideen gañean.

15. Zure legeak gogoan  
Ditut erabilliko.  
Eta eztitut zure hitzak  
Ahantz utziterako.

*Retribuere servo tuo*

1. Iainko ona, egidazu  
Arren othoi doñua,  
Ungi guardatzeko zure  
Manamendu saildua.

2. Ideki dietzadatzu  
Arren neure begiak,  
Konsideratzeko  
Haren misterio handiak.

3. Ni munduan arrotz bat naiz.  
Hartarakotz zeureak,  
Eztietzakidatzula  
Arren estal legeak.

4. Ene arimak egundanoz  
Izan du gutizia.  
Sainduki begiratzeko  
Zure lege ezta.

5. Supherbiaz hantuak zuk  
Dituzu mehatxatzen,





Legearen hautsailleak  
Baita madarikatzen.

6. Hartarakotz zuk laidotik  
Othoi guarda nazazu,  
Zure manua dudanaz  
Geroz hanbat prezatu.

7. Ezen handi batzuk dire  
Ene kontra muntatzen,  
Zure lege sainduetan  
Zeren naizen trebatzen.

8. Bañan hetarik hastantzen  
Ez naiz batre hargatik,  
Hek neure konseillu eta  
Gida hartzen aitzitik,

9. Lurrera hurren baxatu  
Dute ene arima,  
Hartarakotz ikhuz azu  
Arren ene lastima.

10. Hala nola lehen ere  
Zuri neure berria,  
Erratean urrikaldu  
Baitzitzaitzun premia,

Orain ere othoi hala  
Iauna urrikal bekizu,  
Eta othoi zeure legeak  
Irakts dietzadatzu.

11. Irakats dietzadatzu  
Othoi zeure legeak  
Hetan enplega detzadan  
Indar eta antzeak.

12. Huneraño ene arima  
Egotu da lokhuman,

Iratzar ezazu othoi hek  
Obran detzan eman.

13. Zarra dietzakidetzu  
Oiher diren bideak,  
Eta zabal zeure lege  
Sainduaren atheak.

14. Egjazko bideak dut  
Bihotz guztiz hautatu,  
Hargatik nahi dut zuer  
Hitz sainduetz orhoitu.

15. Neure gogo guztia dut  
Emen zure legean,  
Eztezazula permeti  
Eror nadin hutsean.

16. Baldin zuk badarotazu  
Bihotza animatzen,  
Zure manuen bidea  
Lasterka dut egiñen.

*Gloria duela etc.*

**Anthiphona**  
**Boz gaiten Iainkoa balthan**  
*Capitulum. I. Tim. I.*

Mende guztietako errege hillen eztenari eta ikhusten eztugunari,  
Iainko bakharrari ohore eta gloria mende guztietako mendetan, Iainkoari  
esker.

**Ihardatste laburra**

Kristo Iainko biziaren semea, urrikal gakizkitzu  
berriz erraten da.  
Kristo Iainko biziaren semea, urrikal gakizkitzu.



- Aitaren eskuñean iarririk zaudezena.
- Urrikal gakizkitzu.
- Gloria Aita Seme eta Espiritu Sainduari.
- Kristo Iainko biziaren semea urrikal gakizkitzu.
- Iaiki zaitte Kristo eta lagun zakizkigu.
- Eta libra gaitzatzu zeure izena gatik.
- Iainkoa dela zuekin.
- Eta zure espirituarekin dagiogun othoitz.

Iainko ahal guztietako egun hunen hastera ikhar gaitutzuna: zeure indarrak othoi begira gaitzatzu egun honetan bekhatu garabetara itzuru ezgaiten. Bañan gure solas guztiak zeure iustiziaren konplizera darantsaten.

Jesus Kristo gure Iaun eta Aita Seme Aitarekin eta Iainko Espiritu Sainduarekin batean, mende guztietako mendetan bizi eta agintzen duenaren merezietara.

#### *Hala biz*

—Maria saindu eta berze sainduak ararteko on gerta dagizkigula Iainkoaren aldera. Arren. Fabora gaitzan eta salba gaitzan mende guztietako mendetan bizi denak eta agintzen duenak.

- Hala biz.
- Iauna duzun artha ene faboratzeaz.
- Iauna duzun khexa ene faboratzeaz.
- Eta erraten da hiruretan eta gero erraten da.
- Gloria duela Aita, Seme, eta Espiritu Sainduak.

Nola egundanotik baita orain baita eta mende guztietako mendetan izanen baita.

Iauna urrikal gakizkitzu Kristo urrikal gakizkitzu gure Aita zeruetan baratzen.

- Eztezazula permiti tenta gaiten borthizki.
- Bañan gaitzatzu kaltetik hastanduak iduki.
- Iauna begira diezazu zeure zerbitzariei, eta zeure obrei, eta gida etzatu hekin semeak.
- Eta Iainkoaren arraitasuna biz gure gañean, eta geue eskuen obrak gida detzala, gure eskuen obrak gerta detzala.
- Gloria zuela Aitak, etc.

—Nola egundañotik baita, etc.

Gida sanktifikat erreji eta gobernatzatzu, zeru eta lurraren Iainko Iaun erregea, dugun gure bihotz eta gorputzak sensuak hitzak eta gure obrak zeure legean, eta zeue manuen obretan, orain ea bethi zure faborearekin batean salbo eta libro ioatea merezi dezagun, munduaren salbazailleak. Mende guztietako mendetan bizi zarela eta eta agintzen duaiño. Hala biz.

#### **Absolbazione**

Iauna mana zazu benedika gaiten.

#### **Benedizkonea**

Iainko ahal guztietakoak, gure egun eta obra guztiak bere bakean disposa detzala.

#### *Halabiz*

#### **Lekzione laburra**

Iainkoak bada gure bihotzak eta gorputzak gidatzala, Iainkoaren semearen, eta Kristoren amorioan, eta Iauna zuk izazu gutzaz miserikordia.

- Eskerrak Iaunari.
- Lekzione laburraren ondoan erraten da.
- Gure faborea dela Iaunaren zenean.
- Zeru eta lurra egin ditenerenean.
- Errazue ungi.
- Iainkoaz.

Iaunak benedika gaitzala eta gaitz guztietarik defanda gaitzala; eta sekulako bitzera gida gitzala, eta arima ioanak, Iainkoaren miserikordiaz bakean pausa dezatela.

—Hala biz.

#### **Ad termina** **Bederatzi orenetan**

*Gure Aita, Agur Maria, etc*  
*Iainko aita duzun, aitha. etc*



### Himnus kanta

Orain Espiritua  
Arren othoi saindua,  
Iautz zaite guretara  
Bulhar flakoeara.

Zuri gure mihiak  
Eta indar guztiak,  
Dietzatzun graziak,  
Aithor zuk isuriak.

Halaber bihotzetan  
Bitz ezazu guretan,  
Zeure amudioa  
Khartsu eta beroa.

Hala egizu Aita  
Hala Seme bakhotxa  
Hala Espiritua  
Amudios khartsua.

### Antiphona

#### Boz gaitezen Iainkoa baithan

*Legem pone mihi*

1. Iauna irakts diezadatzu  
Arren zeure legea,  
Ene gogoetik hara  
Duten bere xedea.

2. Indazu adimendua  
Haren ezagutzeko,  
Haren billhatzekko artha  
Eta indar guardatzeko.

3. Gida nazazu eskutik  
Othoi haren bidean,

Ezen haren gutizia  
Sartu zait bihotzean.

4. Ene bihotza ezazu  
Mugi zeure legera,  
Eta ez abarizia  
Urre ez zillharrera.

5. Aldara etzatzu arren  
Othoi ene begiak,  
Munduaren ezetzatan  
Ikhus banaloriak.

Aitzitik aira nazazu  
Arren zeure biera,  
Eta ene urrts bakhanak  
Biz hartan ibilltzera.

6. Ene bihotzean othoi  
Zeure manuarena,  
Finka ezazu Iaun ona  
Arren beldurtasuna.

7. Halaber guarda nazazu  
Kalte eta laidotarik,  
Hartuko nautela gogoan  
Behar naiz hetarik.

Zeren begiratzen dudan  
Zure lege ederra,  
Zertzaz gaixtoek ekhartzen  
Baitarotate herra.

8. Hargatik ordean eztut  
Gutiago prezatzen,  
Neure gogoa hartan bitz  
Diezadazu arren.

9. Egin diezadazu othoi  
Iauna fabore hura,



Zure hitz eta argintza  
Segiren eredura.

10. Baldin galderik badarot  
Nihork ere egiten,  
Zergatik haren ondoan  
Hanbat naizen penatzen.

Ihardatsiko daroet  
Nik hañei berehala,  
Ezen zure baithan neure  
Esparantza dudala.

11. Hartarakotz bada Iauna  
Ezazula permeti,  
Zu zarenaz geroz bethi  
Iustu eta egia.

Ahalke eta kalteka  
Ustekabe har nazan,  
Zure baithan esparantza  
Dudanaz geroz eman.

12. Bai zure baithan eman dut  
Esparentza neurea.  
Baita sekulan guardatu  
Nahi zure legea.

13. Bañan guardatu nahi dut  
Bethi bere osoan,  
Eta ordura handirekin  
Ibilli haren ondoan.

14. Errege eta prinzen  
Artean halaberki,  
Ene haoak hura du  
Aiphaturen ausartki.

15. Eta nerori bakharrik  
Aurkhitzen naizenean,

Ixillik iruliko dut  
Hura neure suñean.

16. Neure bihotza hartara  
Gutziz dut etxatuko,  
Hartan fiñean neure hala  
Guztiaz trebatuko.

*Memor est*

1. Zeure hitzaz orhoitzera  
Orain zaitu ertxatzen  
Zenetzaz baitziñarotan  
Bihotza ezportzatzen.

2. Orain ere hartan bozten  
Naiz neure lastimetan,  
Orain ere konsolatzen  
Hartan neure phietan.

Ezen zu zinaizkidala  
Falta gabe helduren,  
Noiz ere baitzitzaizkidan  
Etsaiak oldarturen.

3. Supherbioek naute bada  
Ahalaz tarritatzen,  
Nondik zure legean huts  
Eragin diezadaten.

4. Alferrik ordean dute  
Egiten esaina,  
Zeren guardatuko baitut  
Zure manu saildua.

Hura dut bizi naizeno  
Idukiko gogoan,  
Eta hartan gurenduko  
Eztargozo gaixtoan.



5. Bañan atsekabe handik  
Hartzen nau bihotzean,  
Gaixtoak hura zathitzen  
Dutela ikhustean.

6. Guztiarekien neure  
Arrotz lekhu hunetan,  
Zure lege onaren naiz  
Konsolatzen kantazen.

7. Gau eta egun hura dut  
Erabiltzen gogoan,  
Eta nola guardatuko  
Dedan bere osoan.

8. Ardura handiarekin  
Ordean dut egiten,  
Zure legea bihotzez  
Zeren bait maitatzen.

9. Eta zeren baitaritzat  
Eta ume partea,  
Dela zure manamendu  
Sainduen guardatzea.

10. Haren guardatzeko egin  
Diezadazun dohaña,  
Maiz othoizten zaitut neure  
Inongoiko eta Iauna.

Zergatik baitaki ezen  
Othoizte zaituztenei,  
Eztaroizula ukhatzen  
Faborea presunei.

11. Beha egotu natzaie  
Neure oñ basatuei  
Eta hek zerabiltzaten  
Bide guziez ohierrei.

Hargaik itzularazi  
Ditu xidor onera.  
Iakiteko zure manu  
Sakratuenera.

12. Guztiz deliberatu dut  
Hekin begiratzera,  
Eta hetan neure bizi  
Guztia fiñatzera.

13. Hartarakotz bekhatuen  
Gatheak hurbiltzean,  
Zuer legeaz orhoitzen  
Naiz neure bihotzean.

14. Gauaren erdian neure  
Iaikitzen naiz ohetik,  
Hek erneki bihotzean  
Erabiltzea gatik.

15. Hala partale egite  
Naiz beldur direnekin,  
Eta zure hitz sainduak  
Guardatzen dutenekin.

16. O Inongoiko munduari  
Fabore egillea,  
Irkats diezadazu  
Arren zeure legea.

Bethi erabill dezadan  
Hura neure fiñean  
Eta hala guarda nadin  
Erortzetik hutsean.

*Bonitatem fecisti*

1. Ala Iaun ona zuk niri  
Egin ontasun asko,



Nola ere baitzinarotan  
Agindu egiteko.

2. Kontinua zazu othoi  
Hemendik aitzinera,  
Are gehiago niri  
Fabore egitera.

Guztiz ere irakatsdazu  
Arren zeure legea,  
Ezen hartan guztiz neure  
Eman dut sinhetstea.

3. Halaber konbeni bada  
Zuk gastiga nazazun,  
Gastiguen sofritzeko  
Huna prestik non nauzun.

Ezen zure azoteek  
Ukitu baino lehen,  
Askotan nintzen bekhatu  
Handietan erortzen.

Hargatik hek nahi ditut  
Pazientki sofritu,  
Eta zure hitz saildua  
Errespetuz guardatu.

4. Eta zergatik baitzare  
Ona eta iustua,  
Irakats diezadazu  
Arren zeure manua.

5. Ezen zenbatenez gaixtoek  
Bainaute penatuko,  
Hanbatenez gehiago  
Hura dut guardatuko.

6. Zenbatenez hei baitzare  
Bihotza gogoituko,

Eta esne bihurtua,  
Bezala gatzatuko.

Hanbatenez hirauliko  
Ditut neure gogoan,  
Hanbatenez ibilliko  
Bethi hekin ondoan.

7. Ala zuk ianko ona ni  
Handiro faboratu.  
Noiz ere bai nauzu neure  
Ohorean baxatu.

Zure manamendu eta  
Legeen ikhasteko,  
Eta gero hetzaz neure  
Bizia kidatzeko.

8. Ezen aithor dut direla  
Asko aldez hobeak,  
Ezen urre zillhar eta  
Munduko on berzeak.

9. Eta naizenaz geroztik  
Zure eskuen lana,  
Indazu zure manuen  
Ikhasteko dohaña.

1. Zure beldurra dutenak  
Dute ezagutuko,  
Eta bere bihotzetan  
Dire allegeratuko.

Ezen eztela izatu  
Zure baithan enea,  
Esparentza alfer eta  
Progotxurik gabea.

11. Ezagutu dut direla  
Zure iuiamenduak,



Gutziz zuzen guztiz iustu  
Eta guztiz sailduak.

Baita ni ea nauzula  
Iustuki gastigatu,  
Zergatik hala bainuen  
Neronek merezitu.

12. Bañan ordean Iaun ona  
Zuk nazazu konsola,  
Zeure sehiari agindu  
Zinioen bezala.

13. Isur diezadazu arren  
Othoi zeure grazia,  
Zure manuen araez  
Daramadan bizia.

Eta medita dezadan  
Zure lege saildua,  
Zenetara baitu neure  
Gogoa etxatua.

14. Ahalgez betherik bida  
Tzatzuk etsai eneak,  
Zenak baitarozkidate  
Egin bidegabeak.

Noiz ere ni gehienik  
Banintzen enplegatzen,  
Zure manu eta lege  
Sailduaren konplizen.

15. Hurbill dietzakidazu  
Zure beldur direnak  
Eta zure legearen  
Ezagutza dutenak.

16. Zuk xahu diezadatzu  
Arren neure bihotza,

Zure manu sailduetan  
Ibill nadin aratza.

Kalte eta ahalkeak  
Azken iuiamenduan,  
Har eznazan iuiatzera  
Iausten zaren orduan.

### *Capitulum Ioan*

—Iainkoa da onheritzte, eta onkheritztena dagoena, Iainkoa baithan dago, eta Iainko haren baithan.

—Iainkoari esker.

### **Ihardatste laburra**

Iainkoa makhur ezazu ene bihotza zeure legetara, Iainkoa makhur ezazu etc.

—Aldara etzatzu ene begiak ikhus eztezaten banaloria. Eta aira, nazazu zeure bidean.

Zeure legetara.

Gloria duela Aita Seme eta Espirituak.

—Makhur ezazu Iainkoa ene bihotza.

—Iauna erren darotzut arren nauzun urrikari.

—Senda ezazu ene arima zeren hoben egin baitarotzut.

### **Othoitza**

Iainko ahal guztietakoa eta urrikalmendutsua, etc.  
Gorago laudetan den bezala.

### **Ad sextam Eguberdian**

*Gure Aita, Agur Maria,  
Iainko ona duzun artha.*



## Himnus kanta

*Rector potens*

Gobernari handia,  
Zenak gauzei aldia  
Baitaroezu bethi,  
Eragiten neurthuzki.

Goiza duzu klaratzen,  
Eguberdia arraitzen,  
Atherarik zuzia  
Zeruetan argiak.

Iraungitzatu suak  
Eskatimek bitztuak,  
Gero iguzu Iauna,  
Bake eta osasuna.

Hala egizu Aita  
Hala Seme bakhotxa,  
Hala Espiritua  
Fiñean amulsua.

*Defecit in salutare*

1. Iauna ene arima da  
Munduan hagarantzen,  
Eta ene salbatzera  
Noiz ethorriko zaren.

Ezen badut ethorriko  
Zarela esperantza,  
Nola eman baitzinarotan  
Aspaldi zeure hitza.

2. Neure begi larrituak  
Agitz zaizkit unhatu,  
Beha egonez ea noiz  
Behar duzun agertu.

3. Maiz erraten dut Iauna noiz  
Nauzu konsolatuko,  
Zure hitzen arauera  
Noiz zaizkit agertuko.

Gogoitu naiz zahagia  
Orma hortzean nola,  
Zure agintzan handien  
Begira negoela.

4. Zonbat egunen bururan  
Bada Iauna niri,  
Agertuko zaizkit zeure  
Sehi unhatuari.

Zenbat egunen buruan  
Nauzu konsolatuko,  
Eta noiz dituzu ene  
Etsaiak punituko.

5. Elheak zerozkidaten  
Nahi sinhetstarazi,  
Zeñek ezpaitzuten zure  
Hitzekin zerikhusi.

6. Ezen zure hitzak dire  
Gutziz egiazkoak,  
Eta nihor hetan fida  
Daiten bezalakoak.

Zergatik ni ere naizen  
Hetan hanbat fidatu,  
Gaixtoek hargatik naute  
Hainberze tormentatu.

Hargatik bada Iaun ona  
Zuk fabora nazazu,  
Zeñak ohi baititutzu  
Zeureak faboratu.





7. Ezen iahurren bihurtu  
Ninduten hautsetara,  
Baldin behatu ezbanintz  
Zure hitz saindutara.

8. Arren bada iainoa  
Zuk fabora nazazu,  
Nola faboratu ohi  
Zeureak baitituzu.

Begira detzadan zure  
Ahoko hitz sainduak,  
Zeñak baitirade zuzen  
Eta guztiz iustuak.

9. Zeru gorek ere orobat  
Hitz dituzte gurdatzen,  
Hekin arauera dire  
Gure gañean itzultzen.

10. Kastatik kastara bethi  
Diran zure egiak,  
Lurrak ere hala diratu  
Fermu eta geldiak.

11. Eguñak obe orobat  
Dirau gisa berean,  
Zuk hastean ordenatu  
Zinioen legean.

Fiñean gauza guztiek  
Bethi hala diraute,  
Zerengatik zure hitza  
Obeditzen baitute,

12. Baldin hori nik ezpanu  
Iragun bihotzean,  
Agen galduko nintzen  
Ondikoak hartzean.

13. Bañan zure hitzaz nintzen  
Bethiere oroitzen,  
Eta hartzaz gidaturik  
Pazienzia hartzen.

Zuk zeronek ere Iauna  
Konsolatzen ninduzun,  
Nola asko kaltetan lehen  
Ere egin baininduzun.

14. Hemendik aitzīñera othoi  
Hala egin nazakezu  
Zerengatik naizen oroi  
Zuk formatu bainauzu.

Eta zergatik ni eta  
Bethi neure aldetik,  
Bainarrarie zure manu  
Sakratuei halzetik.

15. Ezen gaixtoak ni galdu  
Naiz zebilltzanean,  
Zure hitz saindua bethi  
Nedukan bihotzean.

16. Zeren alde guztietara  
Ungi begiraturik,  
Bainekusan deus etzela  
Hekin erkhatzekorik.

*Quomodo dilexi*

1. Zure legeaz hanbat naiz  
Iaun ona, agradatzen,  
Egun guztian no baitut  
Gogoan erabiltzen.

2. Ezen hartzaz egin nauzu  
Neure etsaiak baño,



Hetarik begiratzeko  
Hagitez zuhurrago.

3. Hartaz beraz ditu  
Neure nusiak garaitu,  
Zergatik hartara biatut  
Neure gogoa etxatu.

4. Hartaz oraño xitu dut  
Zaharren zuhurtzia,  
Zerengatik hartan baitut  
Bergia idekia.

5. Hartaz ditut neure oñak  
Bide gaixtoetarik,  
Gidarazi hura neure  
Gidaritzat harturik.

6. Fiñean zure mautilk  
Eznaiz betre hastendu,  
Zeren guarda dezadala  
Zuk bainauzu manatu.

7. Ene ahoari zure hitzak  
Zein goza zaizko,  
Are guxiago ezti  
Kofonekoa baño.

8. Hek darotate buruan  
Eman argin handia,  
Hekin bidez gaitzetsten dut  
Gutziz gaixtakeria.

9. Zure lege saindua da  
Ene onen argia,  
Hura ene ibillbideen  
Lanpa eta zuzia.

10. Hargatik bada egin dut  
Ziñ eta iuramentu,

Behar dudala hagoan  
Nagoño guardatu.

11. Egia da ezen lehen  
Haren begiratzean,  
Asko trebersia izan  
Dudala bizitzean.

Bañan dadut esparentza  
Hemendik aitzina,  
Faboratuko nauzuala  
Promesen arauera.

12. Arren bada errezibi  
Zazu ene egintza,  
Eta othoi diezadazu  
Irakats zeure hitza.

13. Nitzaz danaz bezanbatean  
Hill behar banu ere,  
Zure legeak hautsiko  
Eztitut nihoiz ere.

14. Eta baldin gaixtaginek  
Zenbait bekite niri,  
Hedatzen badarotate  
Nahiz erorarazi.

Zure manuei begira  
Nagotela ernerik,  
Trabatu gabe natzaie  
Iraganean taldetik.

15. Neure primezatzat hartu  
Ditu zure legeak,  
Hek dire ene bihotzaren  
Konsolazioneak.

16. Hetera etxatuko dut  
Neure gogo guztia,



Zeruan edireteko  
Zuk agindu saria.

*Iniquos odio habui*

1. O Iainko ona, gaixtoak  
Nahi ditut gaitzetsi,  
Eta bihotz guztia zure  
Ordenentza onhetsi.

2. Hartarakotz bada othoi  
Zuk fabora nazazu,  
Zure hitz egiazkoan  
Nola bainaiz fidatu.

3. Aparta zakizkidate  
Beraz etsai gaixtoak,  
Gogoan erabiltzadan  
Iaunaren hitz gozoak.

4. Eta zu inongoiko ona  
Zatokit laguntzera  
Eznazazula othoi utz  
Ahalkez gorritzera.

Bañan zure baithan nola  
Baitut neure esperantza  
Hala fabora nazazu  
Othoi Iaun aberatsa.

5. Hala egiten baduzu  
Perill guztietarik,  
Salboa ibilliko naiz  
Boz eta allegerarik.

Eta nik ere ordañez  
Ditut zure legeak,  
Bihotzean idukiko  
Iustiziaz betheak.

6. Ezen eztuzu konturik  
Halakoez egiten,  
Zein baitire zure lege  
Saindutarik hastantzen.

Zeren ikhusten baituzu  
Hekin bihotzekoak,  
Gogoetak diradela  
Oiher eta gaixtoak.

7. Nik ere daritzat hafiak  
Direla saltzailleak,  
Zeren hain laxoki hautzten  
Tuzten zure legeak.

Baña ordean zenbatenaz  
Baitituzte gaitzetsten,  
Hanbatenaz gehiago  
Nik hek ditut onhesten.

8. Hanbatenaz gehiago  
Nik dut izialdura,  
Hekien hautstekoa eta  
Hanbatenaz beldurra.

Bana are handiagoa  
Iaun ona zuk indazu,  
Eta ene haragiak  
Hartzaz ikhartatzu.

9. Orain daraño konplitu  
Ditut zure legeak,  
Agindu duen bezanbat  
Ene indar febleak.

Arren bada egin dudan  
Ungiaren aldera,  
Eznazazula hutz gaizki  
Erraleen menera.



10. Beñan har ezazu othoi  
 Iauna ene defenza.  
 Bere nihi pozointsuez  
 Eznazaten ofensa.

11. Esparantza hartan zure  
 Fidaturik hitzari,  
 Begiak flakatu zaizkit  
 Behatuz zeruari.

12. Dugun bada urrikari  
 Zeure zerbitzaria,  
 Eta irakts diozozu  
 Zeure lege garbia.

13. Halaber zuk othoi argi  
 Diozazu bihotza,  
 Iakin dezan nola eman  
 Obretan zure hitza.

14. Ezen baldin nihoiz bada  
 Izatu denborarik,  
 Baldin nihoiz zure manuen  
 Guardatzeko mugarik.

Orain da noiz ere nihork  
 Ezbaititu guardatzen,  
 Aitzitik mezprezaturik  
 Onetan erabilltzen.

15. Bañan hargatik nik ditut  
 Prezitzen gehiago,  
 Urrea eta topasa  
 Preziatua baño.

16. Ezen zure manamendu  
 Eta lege enerat,  
 Geure urratsak gidatu  
 Nahi ditut biderat.

Bide lizun eta oiherrak  
 Nahi ditut gaitzetsi,  
 Eta hek gauza guztien  
 Gañetik onheritzi.

### **Antiphona**

Boz gaitezen Iainkoa baithan.

### *Capitulum*

Iasan etzatzue elkharren karga, eta hala konplituko duzue Kristoren  
 legea.

Iainkoari esker.

### **Ihardatste laburra**

Bethiere dago Iauna zure hitza bere batean.

### **Ihardastea**

Bethiere dago.

### **Bersua**

Mende guztietako mendetan dago zure egia.

Gloria Aita, Seme, eta Espirituari.

Bethiere dago zure hitza Iauna.

Iaunak gobernatzen nau eta eztut izanen deusen eskasik.

Iauna dela zuekin. Baita zure espirituarekin.

### **Othoitza**

Dagogun othoitz Iainko ahal guztietako, eta urrikalmendutsua.  
 Gorago laudetan den bezala.



## Ad nonam Hirur orenetan

*Gure Aita, Agur Maria,  
Iainko ona, duzun artha.*

### Himnus kanta

Iainko, gauzen indarra,  
Eta iraupen baxharra,  
Aldikal egunareñak  
Dakharzkitzu oreñak.

Arrats ona iguzu  
Eta guarda gaitzatzu,  
Bizitzea galtzetik,  
Gauaz ustekabetik.

Baña gure orena  
Zuk ekhartzu azkhena,  
Muga onean sariaz,  
Goza gaiten handiaz.

Hala egizu Aita.  
Hala Seme baxhotxa,  
Hala Espiritua  
Amudios khartsua.

*Hala biz*

### Boz gaitezen Iainkoa baitha

1. O zein miragarri diren  
Iaun ona zure hitzak,  
Hargatik billhatzen ditu  
Arthaz ene bihotzak.

2. Ezen deusek eztu hala  
Ezagutza argitzen,

Ezta haurrena ere nola  
Hek baitute egiten.

3. Ahoa ideki ditu eta  
Neure hatsa thiratu,  
Zure hitzen gutizia  
Zergatik baitzait sarthu.

4. Hargatik diezadazu  
Iauna beha arraiki,  
Eta nauzun lazeriaz  
Bethea urrikari.

Zeure maiteka urrikari  
Ohi tuzun bezala.  
Noiz ere ikhusten baituzu  
Hegin indar erbala.

5. Zeure hitzen arau ene  
Gidatzatzu urratsak,  
Eta ez permeti bizio  
Iraun dakizdan hatsak.

6. Begira nazazu gaizki  
Erralen mihitarik,  
Zure manuak detzadan  
Guarda libroagrarik.

7. Begi onez othoi Iauna  
Biha diezadazu,  
Eta zeure manu sainduak  
Irakats diezadazu.

8. Askotan begietarik  
Nigarra zait isuri,  
Gaixtoak ditudanean  
Hekin hautsten ikhusi.

9. Ezen Iauna, zu iustua  
Zaren eta iustua,



Bethiere aurkhitzen da  
Zure manamenduta.

10. Gauza bidezkorik baizen  
Zuk eztuzu manatzen.  
Guztiz ere darokuzu  
Egia gomendatzen.

11. Harritzen naiz ikhustean  
Zure ixterbegiak,  
Ahantzen tuztela zure  
Manamendu hertsia.

12. Ezen zure hitzak dire  
Sua nola khartsuak,  
Hargatik onhetsten ditut  
Zeren diren gerthuak.

13. Bañan morroñ gaztea naiz  
Guztiz iakin gabea,  
Hargatik betzaz gidatu  
Nahi dut bizitzea.

14. Ezen badakit direla  
Zuk ifini legeak,  
Bethi iustu, eta bethi  
Egiaren iabeak.

15. Ondiko eta lastimek  
Zerkhatzen nautenean.  
Hek ixillik ditu neure  
Izultzen bihotzean.

16. Zergatik bethi aurkhitzen  
Hek baitire iustuak,  
Hek bethi artezak eta  
Hek bethi amulsuak.

Arren bada adimendu  
Illhunaren zuzia,

Zuk indazu zure manuen  
Ezagutza garbia.

Neure bizia dezadan  
Hetzaz gida lurrean,  
Eta gloria ardiats  
Gero azken fiñean.

*Clamavi ie tote*

1. Bihotzetik Iauna egiten  
Darotzut dehadarra,  
Urrikal bekizu arren  
Othoi ene nigarra.

2. Zure legee ordañez  
Natzaie irraikiren  
Zure gogara munduan  
Bizia eramanen.

3. Berriz ere iauan egiten  
Darotzut dehadarra,  
Indazu zure manuen  
Konplitzeko indarra.

4. Goizean goizik iaikirik  
Bethi hala nagotzu.  
Zure baithen zerengatik  
Handi baitut ezportzu.

5. Argi arratsean zuri  
Darozkitzut begiak,  
Zabaltzen meditatzeke  
Zure lege eztiak.

6. Urrikariz adizazu  
Iauna arren ene boza,  
Eta bero zazu zeure  
Kharraz ene bihotza.



7. Bada kusazu etsaiak  
Nola zaizkidan hersten,  
Eta nola diren zure  
Legetarik urruntzen.

8. Hartarakotz bada Iauna  
Othoi hurbill zakizkit,  
Ezen zer bide iduki  
Behar dudan eztakit.

9. Guztiarekin badakit  
Ezen bethi zureak,  
Gizonai behar tuela  
Begiratu legeak.

10. Ikhus azu bada Iauna  
Arren ene lastima,  
Eta ondikotik athera  
Zazu ene arima.

Ezen zure legeaz naiz  
Bethiere othoitzen,  
Baita haren konplitzera  
Ahalaz esaiatzen.

11. Arren bada ene alde  
Promesen arauera,  
Eta hurbill zaite ene  
Penatik libratzera.

12. Gaixtoek eztute hala  
Dagiezu merezi,  
Zeren baitituzte zure  
Legeak guztiz utzi.

13. Zure urrikamendua  
Da prestuen aldera,  
Zatoz othoi ene gogo  
Larriaren boztera.

14. Askok nau asko manerak  
Munduan tribulatu.  
Ez naiz ordean hargatik  
Zure ganik hastandu.

15. Saltzailleak ikhusi tut  
Eta harritzen nintzen,  
Zeren etzituzten zure  
Manuak begiretzen.

16. Zeronek ikhusi duzu  
Ordean nik zureak,  
Zein arthatsuki nituen  
Begiretzen legeak.

Hartarakotz Iainko ona  
Zuk nauzun urrikari,  
Eta diezadzu gogo  
Tristeia bozarazi.

17. Esparantza dut egiñen  
Hala darotazula,  
Eta idukiko zeure  
Hitza darotazula.

Zeren diren zure hitzak  
Bethi egiazkoak  
Bethi segur, eta bethi  
Ezin faltatuzkoak.

*Principes perfecuri Innt*

1. Handiak iarrai ki zaizkit  
Bere atsegin sari,  
Zure manuetan nahiz  
Huts eragin arazi.

Bañan zure hitzka hala  
Larritu ohi naute,



Hekin zathitzera baitut  
Non handia herabe.

2. Berriz hekin guardatzeaz  
Iauna, hanbat naiz bozten,  
Nola etsaien billuzak  
Dituena aurkhitzen.

3. Hargatik bethi hastio  
Izan dut bekhatua,  
Eta bihotzez maitatu  
Zure lege saindua.

4. Egun oro zazpi aldiz  
Ohi zaitut laudatu,  
Zeren dituzun hain lege  
Sainduak ordenatu.

5. Hek maitatzen dituztenek  
Dute bake handia,  
Desohore gabe dute  
Eramanen bizia.

6. Hetarik nik ere ohi dut  
Uste salbamendua,  
Hargatik onherizten dut  
Zure manamendua.

7. Hargatik diutsut ezen  
Onherizten dudala.  
Eta neure bihotz guztiz  
Begiratzen dudala.

8. Hargatik oraño hura  
Bera dut guardaturen,  
Zeren guardian baitzaude  
Nor nola bizi garen.

9. Arren bada beha zaitte  
Ene othoitz tristera,

Eta ezazula bisaia  
Itzul berze aldera.

Bañan aitzitik agindu  
Nola baitarotazu,  
Zuk ungi gobernatzeko  
Adimendu indazu.

10. Bihotzean sar bekizu  
Ene othoitz humilla.  
Eta othoi diezadazu  
Gibela gaitz hurbilla.

Ezen hala zaude zeure  
Hitzaz obligatua.  
Arren bada konplizazu  
Zeure hitz agindua.

11. Zeure legeen iakintsun  
Egin nazazu arren.  
Ene ezpañen laudorio  
Bihur diezazuten.

12. Hek horez aiphatuko  
Ditu ene mihiak,  
Zergatik baitire guztiz  
Saindu eta garbiak.

13. Heda diezakidazu  
Othoi zeure eskua,  
Hautatu dudañaz gero  
Zure lege saindua.

14. Ezen neure bihotz guztiz  
Hura dut desiratzen,  
Gau eta egun hura neure  
Gogoan erabilltzen.

15. Bizi naizeno ere dut  
Hura bera egiñen,





Baita zeure ontasunak  
Gatik zu laudaturen.

Zuk ere othoi ordañez  
Fabora nazakezu,  
Eta kalten geritzean  
Iduki nazakezu.

16. Ezen ardiantxa bezain  
Errax naiz basatzeko,  
Haren gatik darotazu  
Guardia idukiko.

Egin diezakedazu  
Fabore hura arren,  
Neuri ere zure legeak  
Eztzaizkit ahantziren.

### Antiphona

#### Boz gaitezen Iainkoa baitha

Prezio handiaz erosiak zarete, Iainkoa ohora zazue eta zeuren gogoa erabill ezazue Iainkoari esker.

#### *Ihardatste laburra*

Neure bihotz guztiz oihera egin darotzut, Iauna entzun nazazu.

Neure bihotz guztiz egin darotzut.

—Zure manuen ondoan ibilliko naiz.

Iauna entzun nazazu.

Gloria duela Aita, Seme eta Espirituak.

Neure bihotz guztiaz oihera egin darotzut.

—Bekhatu ixilletarik garbi nazazu.

—Eta berzei eragin diotzotedanak zeure sehiari barkha diotzatzu.

Iauna dela zurekin.

Eta zure espirituarekin.

Dagik egin othoiz.

### Othoitza

Iainko ahal gauztietakoa eta urrikalmendutsua etc.  
Gorago laudetan den bezala. pag.

## Igandetako besperak

*Iainko Aitak, Jesus Kristori  
egin ziotzon agintza handiak,  
Dabitek kondatzen ditu.*

1. Iaunak erran dio bere  
Seme ene Iaunari,  
Ea ene seme ene  
Eskunean iar adi.

2. Nik emen artean hire  
Etsai bihotz uherrak,  
Hire oñaren azpiko  
Nola eskabel beherak.

3. Fabore handi daroat  
Bidalduko Siondik,  
Heure etsaien artean  
Iaun izatea gatik.

4. Halaber ni izanen nauk  
Hurbillena aldean,  
Heure indar handienaz  
Behartzen aizeñean,

Eta sailduen artean  
Gorena autemanen  
Ezen artizarra baño  
Enjendratu aut lehen.

5. Gehiago egin diat  
Ziñ eta iuramentu,  
Zena geroztik ezbaizait  
Nihola urrikitu.



Hi izanen aizela ene  
 Aphez sekulakoa,  
 Melchisedech handiaren  
 Ordeña saindukoa.

6. Baita aurkhituko naizela  
 Bethi hire eskunean,  
 Hire etsai erregeak  
 Gathizatu artean.

7. Hire goratzeko asko  
 Diat beheratuko,  
 Asko galduko, askori  
 Buruz lur iri ioko.

8. Ontasun hautzaz guztiez  
 Gozatzeko ordean,  
 Asko pena sofritzeko  
 Duk heure bizitzean.

Ezen uholde handi bat  
 Behazun edanen duk,  
 Eta orduan burura  
 Gorago altxatuko duk.

*Gloria, etc.*

**Iainkoa laudatzen da zeren  
 elizari hanbat ontasun egin dioen**  
*Confiteor tibi Domine. Psal. 110.*

1. Iauna aithortuko ditut  
 Xahuki jendartean,  
 Guztiez ere saindu eta  
 Iustuen batzarrean.

2. Zureak direla obrak  
 Guztiz miragarriak,  
 Zureak guztiz sainduak  
 Eta usu nahiak.

3. Aski erakusten dute  
 Obra dakuskigunek,  
 Aski ordenanza iustu  
 Begiratzen tutzunek.

4. Eta oraño mirakullu  
 Guztien handiena,  
 Zuk hazten duzu presuna  
 Zure beldurti dena.

5. Eta bethi orhoitzen zare  
 Zeure agindu hitzaz,  
 Baita hura jendeari  
 Erakutsiko obraz.

6. Ezen jentillen emanen  
 Diozula primeza,  
 Nola egiati baitzare  
 Konplitzean promesa.

7. Egiazko ere dire  
 Zure manamenduak,  
 Egundanoz hala dire  
 Izatu frogatuak.

Zuhurtzia handirekin  
 Zintuen ordenatu,  
 Deusik eskas dela ezta  
 Zeren errenkuratu.

8. Urrikaldurik erosi  
 Duzu zeure poplua,  
 Zein betzegoen etsaiak  
 Kaptibu altxatua.

9. Saritzat deusik berzerik  
 Eztiozu galdegin,  
 Baizen zure manamendu  
 Sainduak detzan egin.



Arrazon da ere konpli  
Daiten ponturen pontu,  
Zeren manatzeko esku  
Guztia zuk baituzu.

10. Eta zeren zu baitzare  
Iaunetan handiena,  
Halaber zukre izena  
Saindu eta gorena.

Hargatik da zuhurtzia  
Guztien handiena,  
Bihotzean iaztea  
Zure beldurtasuna.

11. Hura izanen duena  
Izanen da zuhurra  
Eta haren laudorioa  
Izanen aphurra.

*Gloria, etc.*

**Gabeare betetik ematen diok  
haren zore oñak**

1. Ala zori onezkoa,  
Iaunaren beldur dena,  
Eta haren manuetan  
Bere gogoa duena.

2. Hañaren kasta lurrean  
Izanen da handia,  
Ezen Iaunak bedintzatzen  
Du prestuen hazia.

3. Ohore eta moian haren  
Izanen da etxean.  
Eta haren iustu famak  
Iraunen du lurrean.

4. Lastima dathorzonean  
Nola goibel handia,  
Hañari egin dio  
Iaunak berek argia.

Ezen halakoen gaña  
Du bihotz amulsua,  
Nola baita bethi saindu  
Eta bethi iustua.

5. Eta haren bihotzeko  
Da orobat gizona,  
Bere laguna premian  
Urrikaltzen zaiona.

Eta dioena bera  
Proprietik prestatzen  
Bere hesrturan hitz onez  
Duela konsolatzen.

Halakoa ezta bere  
Gogotik higituren,  
Bañan bere egitekoak  
Ungi zaizko illkhinen.

6. Halakoaz bethiere  
Iauna da orhoituko,  
Eta desohoretarik  
Hura du guardatuko.

7. Halakoak ahal duke  
Haren baithan fidantza,  
Hersturan konsolatuko  
Dioela bihotza.

Eta etsaien menea  
Eztuela urziren,  
Aitzitik hekin ahalaz  
Duela burlara ziren.



8. Eta zeren probeari  
Ungi egin dioken,  
Haren iustu omenak du  
Mendeetan iarunen.

Gehiago iganen da  
Kargu gorenetera,  
Iganen gloria eta  
Ohore handitara.

9. Bekhatoreak hain gora  
Ikhusten duenean,  
Despitez aserratuko  
Da bere bihotzean.

Errabiaturik ditu  
Hortzak iharrosiko,  
Ezta ordean amuaz  
Deusik progotxatuko.

*Gloria, etc.*

**Dabitek Iainkoa laudatzen du,  
zeren gora dagoelarik  
gauza beheren artha duen**  
*Laudate pueri Dominum. Psal. 112.*

1. Haurtxoak lauda zazue  
Iainko podoroso,  
Lauda ezazue haren  
Izen ohorezkoa.

2. Kantari kopla buruko  
Emozue lehena  
Betheiere lauda bedi  
Iaun onaren izena.

3. Iguzkia illkhitzen den  
Lekhutik sartzerako,

Lauda bedi Iaun onaren  
Izena mugaraño.

4. Iaun guztien gorena da  
Gure Iainko handia,  
Zeruez gorago haren  
Igaten da gloria.

5. Nor da haren pari ezen  
Duelarik alkaia,  
Zeruetan lurrera ere  
Badaduka begia.

Eta hobekienik hei  
Daroe begiraten,  
Zein batitu berzetarik  
Humillenen ikhusten.

6. Hark altxatzen du probea  
Lurreko herrautsetik,  
Hark iraike arazitzen  
Ongari datzañetik.

7. Lekhu emateko prinze  
Handienen artean,  
Gutziz bere nazione  
Eta herrikoenean.

8. Hark ume gabea etxean  
Du geldiarazitzen,  
Hark ama tristea seme  
Onez bozarazitzen.

*Gloria, etc.*

**Psalmistak, kondatzen ditu,  
Iainkoak Isrelgo jendia Egiptotik  
atheratzean egin zituen mirakullak**  
*In exitu Israel de Aegypto. Psal. 113.*



1. Israel illkhi zeñean  
Egiptoko lurretik,  
Eta Iakoben etxea  
Barbaroen artetik.

2. Iudea hautatu zuen  
Libra jende sainduzat  
Eta Israel maitea  
Bere armada gogortzat.

3. Itsasoa abiatu  
Zen aitziañia ihesi,  
Iziturik heldu zela  
Zuenean ikhusi.

Iordango ibaia halaber  
Itzuli zen gibela,  
Nabaritu zuenean  
Lasterka heldu zela.

4. Mendi gora iauzi ziren  
Ahariak bezala.  
Eta aldapak saltatu  
Billdots kumeak bezala.

5. Galdegiten badiogu  
Oran itsasoari,  
Itsasoa zergatik ziñen  
Abiatu ihesi.

Halaber galde egiten  
Badiogu Iordani,  
Zu ere zergati ziñen  
Gibelera itzuli.

6. Mendi gorenei orobat  
Eta zuek mendiak,  
Zeri iauzi ziñakikoten  
Hala nola ahariak.

Finean zuek ere zeri  
O aldapa ferdeak,  
Iauzi ziñakikoten hala  
Nola billdotx kumeak.

Guztia ek ihardatsiko  
Darozute boz batez,  
Iauzi zirela Iokoben  
Iainkoaren beldurrez.

7. Ihusirik haren indar  
Handi eta gogorra,  
Hark ikharatzen duela  
Kheñu batez lehorra.

8. Hark ganbiatzen arrozak  
Urezko langotara.  
Hark desertuko malkharrak  
Ithurri onetara.

Obra hauk zitenean  
Israelek ikhusi,  
Hunela zitzaion oihuz  
Iainko onari hasi.

9. Iauna ez ginduen merezi  
Hainberze zure ganik,  
Hanbat mirakullu egin  
Ziñezan gure gatik.

Bañan zeure buruari  
Emateko ohore,  
Hanbat egin darokuzu  
Dohain eta fabore.

10. Bai eta erakutsteko  
Bihotz bera duzula,  
Eta agintzen duzun hitza  
Idukitzen duzula.



Baita orano jentillek  
Erhoki etzerraten,  
Ea beharrean geure  
Iainkoa non ginduen.

11. Erakutsi duzu ezen  
Zeruetan zarela,  
Eta zuk nahi duzuna  
Lurrean egiten dela.

12. Baita hekien Iainkoak  
Direla ithurapeñak,  
Urre zillharrez gizonen  
Eskuek egin tuztenak.

13. Ahoak baituzte bañan  
Ez ordean mintzatzan,  
Begiak ere baituzte  
Ez ordean ikhusten.

14. Beharriak badituzte  
Ez aditzen ordean,  
Baita sudurpillak ere  
Ez usnatzen ordean.

15. Eskuak ere baituzte  
Ez hargatik ukitzen,  
Oñak ere badituzte  
Hala ere ez higitzen.

Eztarriak badituzte  
Ez egiten oihurik,  
Fiñean itxurapen bat  
Baizen eztire deusik.

16. Hala egin daitezela  
Hekien egilleak,  
Hala hetan dituztenak  
Ematen sinhetsteak.

17. Israelen etxea da  
Iauna baithan fidatzen,  
Zeren baitio fabore  
Beharrean egiten.

18. Aaronen etxeak du  
Hura bera egiten  
Zeren baitio fabore  
Hari ere egiten.

19. Iaunaren beldur denak du  
Eginen gauza bera,  
Zeren baitio eginen  
Hari grazia bera.

20. Hala behintzat zerokun  
Guri egun peneten,  
Noiz ere baikindituen  
Ikhusi handietan.

Ezen gutzaz orhoitu zen  
Eta lazeriatik,  
Libratu gituen ezin  
Itzur gintezkenetik.

21. Hala oraño orhoitu zen  
Etxe Israelenaz,  
Hala fiñean Aaron  
Bere aphezarenaz.

22. Hala orobat eginen da  
Handi eta ttipiez,  
Haren beldur eta ahalke  
Izanen diren guztiez.

23. Orobat dadilla bada  
Iaun ona egin zuez,  
Orobat oraño zuen  
Seme onheritziez.



24. Bere graziak detzala  
Berret zuen gañean.  
Nola oraño zuen seme  
Onherzienean.

25. Benedika zaitzatela  
Iaun guztien gorenak,  
Zeru eta lurra bere  
Eskuz egin tuenak.

26. Zeure gora zuen bere  
Hautatu egoitzatzat,  
Eta gizonen semeei  
Lurra eman ostatutzat.

27. Zerurat altxatuko tu  
Ungi bizi direnak,  
Bihur diotzoten esker  
Eta aithor zuzenak.

Ezen Iauna etzaituzte  
Zu hillek laudatuko,  
Ez gaixto zenak baitire  
Ifernura iautsiko.

28. Bañan biziak zaitagu  
Eginen oranetan,  
Eta ethorkizuneko  
Denbora guztietan.

*Gloria, etc.*

*Benedictus, 2. Cor. 1.*

Benedika dadillala  
Zeruko Iongoikoa,  
Eta Iesus Krist Iaunaren  
Aita egiazkoa.

Aita guztiz manso eta  
Bihotz bera duena.  
Eta konsolatzen geure  
Penetan gaituena.

### **Ihardatsia**

Dituela bada eskerra  
Bere ontasunak gatik,  
Zeren hainberze gaituen  
Faboratzen zerutik.

### **Iainkoari, galdegiten zaio gaua kaltek hartu gabe iragateko grazia**

*Lucis Creator Optime.*

O Iongoiko handia  
Zerñak goizean argia,  
Kreatu baitzinduen  
Klaratzeko begien.

Eta gero mundua  
Eder eta xahua,  
Argiaren hasten  
Harekien batean.

Zuk goiza arratsari  
Mutaturik elkharri,  
Zinioen izena  
Eman egun batena.

Zuk orain arratsean  
Gobiak erorzean,  
Entzun tzatzu gureak  
Arren othoitz tristeak.

Arren gure arima  
Bekhatuez zikhiña,



Eztandin gorputzetik  
Illkhi ustekaberik.

Bañan aitzitik behin  
Aratzki xahu dadin,  
Eta gero athetan  
Sar zero goragotan.

Hala egizu Aita  
Hala Seme bakhotxa,  
Zena Espirituarekin  
Baitzaude sainduarekin.

*Versiculus*  
*Dirigætur Domine*

Iauna zeure gaña gida  
Bedi othoitz enea,  
Hedoeitan gora nola  
Insensuaren khea.

**Antiphona**  
*Homo quidem descendebat*

Gizon bat Hiesusalendik  
Zioan Hierikora,  
Ea fortunaz eroeri  
Zen ohonen artera.

Arrogatu zuten bada  
Eta tieznez billuzi  
Eta zauriez betherik  
Erdi bizia utzi.

Ama birjinak, Iainkoari eskerrak itzultzen diotzo  
zeren bere semearen amatzat hautatu duen  
*Magnificat. Luc. I.*

1. Ene arima handi zazu  
Laudorioz Iainkoa.

2. Eta haren baithan zeure  
Allegera gogoa.

3. Ene humiltasunera  
Zeren baitu behatu,  
Jendek estimatuko non  
Bainaute dohatsu.

4. Ezen Iaunak egin daro  
Halako ontasuna,  
Nola ahala baitzuen  
Eta saindutasuna.

5. Bethieretikan hala  
Ohi du bihotz bera,  
Hari beldur zaion gizon  
Guztiaren aldera.

6. Supherbioen aldera  
Eztu hala usatzen,  
Beso sendoz hek ditu  
Bere ganik haizatzen.

7. Handi gaixtoak egotzten  
Ditu kadiretarik,  
Eta humillak altxatzen  
Berriz ezteusetarik.

8. Goseak bethetzen ditu  
Munduko ontasunez  
Eta aberats gaixtoak  
Gabetzen bere onez.

9. Hala usatu zioen  
Israel haurtxoari,  
Begiratzen zioela  
Bere bihotz onari.

10. Hala eginen zuela  
Erran zeroen aitei,





Abrahami eta haren  
Hazitik ethorriei.

*Gloria, etc.*

### Othoitza

Iainko ahal guztietakoa eta urrikalmendutsua, izenen ontasunetik haldu baita, zeure leialez digneki eta laudatuko zerbizatua zaren iguzu othoi grazia, zure ontasun aginduetara, nihon behatztopatu gabe laster egiteko. Iesus Kristo gure Iaun eta zure Seme zurekin eta Espiritu Sainduarekin bethi bizi eta agintzen duenaren merezietara.

*Hala biz*

### Asteko besperetako berze salmu debot batzuk

*Iainkoari eskerrak edozein ontasunen gatik*

*Laudate Dominum omnes gentes.* Psal. 126.

1. Jendeak lauda zazue  
Munduaren Iainkoa,  
Pobluak lauda zazue  
Errege zerukoa.

2. Zeren erakutsi bait  
Gure baithan berea,  
Miserikoria pare  
Eta exenplu gabea.

Nola baerek baitzarokun  
Araitziña agindu,  
Eta nola egun baita  
Egietan frogatu.

Hala bethi aurkhitzen da  
Haren hitza egian,  
Dugun beraz laudorio  
Eta esker mihian.

### Prestuen munduko dohatsutasuna

*Beati qui timens Dominum.* Psal. 127.

1. Dohatsua da gizona  
Iaunaren beldur dena,  
Eta haren bideetan  
Xuxen ibilltzen dena.

2. Dohatsu diot zergatik  
Haña bere eskuko,  
Neke eta lanez baita  
Badezki gozatuko.

3. Hanaren emazteak du  
Iduriko alhena,  
Etxe saihtesean mahats  
Mulkoz bethea dena.

4. Mahañaren inguruan  
Hañak bere semeak,  
Ikhusiko ditu landan  
Nola oliba gazteak.

5. Hala bedinkatuko du  
Ingoikoak gizona,  
Haren izen sainduaren  
Beldur izanen dena.

6. Siongo Iainkoak hala  
Benedika dezala,  
Eta Hierusalengo onez  
Gozarazi dezala.

Bere bizi eta mende  
Guztiko egunetan.



Iaunak iduki dezala  
Ontasun handietan.

7. Bere semeen detzala  
Iklus seme maiteak,  
Eta Israelen bake  
Eta ontasun berzeak.

**Bekhatorearen munduko punizione bat,  
zein baita bere herritik desterrua**  
*Babilonis*, Psal. 136.

1. Babilonia handiko  
Uraren bazterrean,  
Unhaturik ezin ioanz  
Gelditu ginenean.

Begietarik zitzaikun  
Niharra abiatu,  
Siongo eliza ederraz  
Ginenean orhoitu.

2. Geure organoak eman  
Gindituen dilindan,  
Ibaiaren bazterreko  
Sabuko ferdeetan.

3. Han kaptibu atarira  
Gidatzen gintuztenek,  
Kantatzera gindituzten  
Ertxatu soldaduek.

4. Erraten zerokutela  
Siongo kantetarik,  
Kanta diezaguzue  
Zenbait eder hetarik.

5. Ihardatsi gindioten  
Tristezia handian,

Nola kanta ginezake  
Gaxook atzerrian.

6. Lehen ahauts dakigula  
Eskuñeko besoa,  
Ezen guk zu Hierusalen  
Hiri ludeakoa.

7. Ahasbaiari lehen  
Datxezala mihia,  
Ezen guk zu gogotik utz  
Geure iaia herria.

8. Lehen itzul dakigula  
Geure adimendua,  
Ezen ez guk zu estima  
Bozkarioen burua.

9. O Iainkoa orhoit zaitte  
Edomengo semeez,  
Eta hek Hierusalamen  
Erran zituzten hitzez.

10. Athera athera harriak  
Zimendu barrenetik.  
Athera ez utz batere.  
Athera gabetarik.

11. O Babilongo alaba  
Gutziz dohakabea  
Zeñak egin bitarokun  
Ezin erran kaltea.

12. Dohatsua izanen dun  
Milletan soldadua,  
Zeñak egiñen baitaron  
Ordañezko pagua.

Dohatsu zeñak baitio  
Arthikiko hirea.



Kolera handiarekin  
Paretari umea.

**Kaptibu libratuen bozkarioa,  
eta Iainkoari eskerra**

*In convertendo Dominus. Psal. 125.*

1. Sion kaptibua Iaunak  
Zuenean libratu,  
Eta bere leheneko  
Egoitzara bihurtu.

Konsolatu zitzaikigun  
Hahuitz geure bihotzak,  
Ezen ahantzi gintuen  
Lehen iragan gaitzak.

2. Ahoak bethe zitzaizkigun  
Kanta eta eresiaz,  
Eta mihiak Iaunaren  
Laudorio handiaz.

3. Jende infidelek erran  
Zuten arrazoñekin,  
Ala Iaunak baitaroa  
Hauk ungi handi egin.

4. Egia erran zuten egin  
Zerokun xoll handia,  
Eta allegeratu zen  
Gure bihotz larria.

5. Ezen ethorri zitzaikun  
Librantzaren berria,  
Betan, nola landa idorri  
Hegoetan urria.

6. Hala nork ere ereñen  
Baitu nigarrarekin,

Bere ustaila billduko  
Du bozkarioekin.

7. Hala guk ere ginduen  
Erein handi nekean,  
Geure herritik kaptibu  
Altxatu ginenean.

8. Huna non bihurtzen garen  
Orain bozik etxera,  
Ezpal eta garba ogiak  
Geure eskuz billzera.

**Erregerentzat othoitzza**

*Expudiat te Dominus. Psal. 148.*

1. Iaun onak entzun zaitzala  
Zeure ondikoetan,  
Eta Iakoben Iainkoak  
Begira perilletan.

2. Fabore diezazula  
Bidal zeru saindutik.  
Eta begira zaitzala  
Siongo dorretarik.

3. Orhoit dadillala zure  
Othoitz debot guztiez,  
Eta agrada egiten  
Diotzotzun ofrendez.

4. Eskatzen zaizkon guztia  
Aithor diezazula,  
Eta zure konseillua  
Ontzat lauda dezala.

5. Gu ere boztuko gare  
Zure ontasunean  
Bai eta gloriatuko  
Iaunaren izenean.



6. Aithor dietzakitzula  
Zeure nahi guztiak,  
Eta ungi gobernatzeko  
Dizkitzula graziak.

Eginen darozkitzula  
Ezparantza badugu,  
Zeren gure erregetzat  
Zu sakratu baitzaitu.

7. Iaun onak entzun zaitzala  
Bere zeru sainduti,  
Eta fabora zaitzala  
Bere tronu goratik.

Hark du ahala eta indar  
Zure begiratzeko,  
Hark puxantza eta arma  
Zure defendatzeko.

8. Etsaiak fidatzen ziren  
Anda eta zaldietan,  
Bañan gu zeruko Iainko  
Onaren faboretan.

9. Alabañan hek gelditu  
Dire konbat asprean,  
Eta garaitu ditu  
Guri hekin gañean.

10. Iauna begira ezazu  
Arren gure erregea,  
Zergatik baita zuk eman  
Darokuzun prinzea.

Entzun etzaketzu gure  
Othoitzak zeruetan,  
Harentzat zuk othoiztuko  
Zaitugun egunetan.

## Konpletak

*Irakurtzaillea hasten da.*

—Iauna mana zazu benedikak gaiten.

—Iaun ahal guztietakoak dizuela soseguzko gaua eta fin ona.

—Hala biz.

### Lekzione laburra

*I Petri*

Anaiak zareten sobre eta zaudete erne, zeren zuen etsai deabrua inguruan baitabilla lehoñ errabitua bezala eta nor aurkhi dezaken eta iretz dezan. Gaitutzun Iauna urrikari, Iainkoari esker.

—Iainkoaren faborea dela gurekin.

—Zeru eta lurra egin dituenarena.

*Gero konfiteor elkharrri ihardatsiz priman bezala eta gero.*

—Izularazi gaitzatzu Iauna zeure aldera.

—Eta aparta zazu gure ganik zeure kolera.

Iainko ona duzun artha ene faboratzeaz.

Eta bihotzean khexa penatik libratzeaz.

*Gloria etc.*

### Antiphona

*Miserere*

Nazun Iauna urrikari.

### Iainkoari eskatzen zaio etsaien kontra fabore

*Cum invocarem.* Psal. 6.

1. Iainko zeñak bainauzu  
Asko aldiz aditu,  
Noiz ere baitzaitut neure  
Ondikoan othoiztu.



Eta zeñak konsolatu  
Bainauzu hañitzetan,  
Plaga eta ondikora  
Erori naizenetan.

2. Arren orain ere Iauna  
Othoi entzun nazazu,  
Ezen neure etsai kruelak  
Berriz zaizkit altxatu.

3. O gizon hisiatuak  
Noiz hartean fuliak,  
Sinhetsiko ditutzue  
Eta banaloriak.

Ustez oraingo aldian  
Nauzuela galduko,  
Zeren ikhusten duzuen  
Ene baithan ondiko.

4. Bañan iakizue ezen  
Iaunarena naizela,  
Eta othoizten dudanean  
Hark entzuten nauela.

5. Aserra zaitetze bañan  
Ez egin bekhatuak  
Hitz egiten duzuela  
Ungi begiraturik.

Urriki bekizkitzue  
Erran tutzuen hitzak,  
Eta dolora ohetan  
Ere zeuen bihotzak.

6. Ofrenda diotzotzue  
Obra on eta iustuak.  
Egin ditutzuen falten  
Ordanezko paguak.

Eta ezportza zaitetze  
Ezen hark zeuenena,  
Emanen darotzuela  
Barkhamendu faltena.

Mundu haunetan asko da  
Aurkhitzen halakorik.  
Zenak ezpaitu erraten  
Bere baithan berzerik.

Baizen nok niri emanen  
Darozkit ontasunak,  
Plazeretan pasatzeko  
Lurrean neure egunak.

7. Iaun ona nik eztarotzut  
Galdetzen halakorik.  
Zergatik hetan ez baita  
Bozkario segurik.

Bañan galdetzen darozut  
Zeure argi sailduak  
Gizonaren bihotzean  
Zuk bitzten usatua.

Iakiteko ea zer den  
Zure borondatea,  
Eta gero enplegatze  
Hartan neure antzea.

Hartzaz allegeratuko  
Darotazu gogoak,  
Kontentamendu emanen  
Hartzaz niri osoa.

8. Berzei berriz gurentzen  
Zaizte bere gogoak,  
Zeren etxetan dituzten  
Bihi eta arnoak.



9. Halako artha sobera  
Gabe ni naiz etziten,  
Eta bakezki dut neure  
Loa gauza egiten.

10. Zaren ezarria baitu  
Zure baithan neurea,  
Esparantza segur  
Eta engano gabea.

**Iainko othoizten da oraño,  
arren geure etsaietarik libra gitzan**

1. Neure esparantza zure  
Baithan dut ifiñia,  
Iauna ezazula premeti  
Dudan ahalkeria.

Aitzitik nola baitzare  
Ona eta iustua,  
Etsai gosetarik libra  
Nazazu izitua.

2. Ene othoitzera makhur  
Ezazu beharria,  
Eta zaito othoi ene  
Libratzera lehia.

3. Zaren othoi ene Iainko  
Eta begirallea,  
Eta periletan ihes  
Egiteko etxea.

4. Ezen neure habetzat zu  
Zaitut Iauna hautatu,  
Zu perilletarik ihes  
Egiteko gaztelu.

Zeure ontasuna gatik  
Har nazazu Iaun ona,  
Eta behar den hazkuntaz  
Zuk nazazu mantena.

5. Begira nazazu othoi  
Hekin fedegatarik,  
Neure iabe zu hautatu  
Zaitudaneaz geroztik.

6. O Iaun on zeña bainau  
Erosi lehen ere,  
Neure arima gomendatzen  
Darotzut orain ere.

**Etsai eta perill guztiak gerizean direla  
Iainkoaren gomendioan direnak**  
*Qui habita.* Psal. 90.

1. Iaun gorenaren nor bizi  
Baita amudioan,  
Iabe onaren bizi da  
Hura gomendioan.

2. Halakoak erran ahal  
Diozoke Iaunari.  
Ezin dakikeonean  
Itzur gaitz hurbillari.

O Iongoiko puxant eta  
Ene begiraillea,  
Zu zaitut lastiman ihes  
Egiteko dorrea.

Zure baithan guztiz neure  
Eman dut esperantza,  
Zuk diezadazu othoi  
Gibela neure gaitza.



3. Bere othoitz a eginen  
Eztioke alferrik,  
Ezen hak begiratuko  
Du gaitz guztietarik.

Begiratuko du hekin  
Enganioetarik,  
Eta hekien mehatxu  
Eta hitz aspretarik.

4. Itzalduko du sorbalda  
Handi eta zabalez,  
Bai gerizatuko bere  
Faborezko hegalez.

5. Erredola gogorraz du  
Hura inguratuko  
Eta izialduratik,  
Gauaz begiratuko.

6. Halaber begiratuko  
Du kalte agerritik,  
Airetik heldu den nola  
Fletxa ustekabetik.

Begiratuko du plaga  
Eta ondikotarik,  
Etsai ixillek armatzen  
Diotzotenetarik.

Begiratuko oraño  
Kolera borthitzetik,  
Eguberdian dabillan  
Deabruarenetik.

Fiñean guardatuko du  
Etsai guztietarik,  
Kalterik eztiozoten  
Egiñ eta ez damurik.

7. Hala haren inguruan  
Hill arren hamar milla,  
Haren aldera ezta  
Hurbillduko perilla.

8. Bañan begiz ikhusiko  
Du Iainkoak bengantza,  
Egiten duela haren  
Etsaietan garratza.

9. Zeren haren baithan duen  
Esparantza ezarri  
Eta zeren haren gana  
Ihesi den ethorri.

10. Haren gana ezta plaga  
Gaixtorik ethorriko,  
Ez eta haren etxera  
Kalterik eroriko.

11. Bere aingeruak zeren  
Baititu manaturen.  
Ioan ethorri guztietan,  
Ungi guarda dezaten.

12. Bere eskuetan iasanen  
Dute bide gaitzetan,  
Behatztopa eztadintzat  
Lurreko harrietan.

13. Aspizaren gañean du  
Emanen bere oña,  
Bai eta ostikatuko  
Lehoñ eta dragoña.

14. Guztiarekin eztu  
Min garabik harturen,  
Zergatik Iaun onak baitu  
Kaltetik guardaturen.



Zeren haren baithan eman  
Duen bere esparantza,  
Eta zeren haren duen  
Izatu ezagutza.

15. Premian baldin badio  
Hari oihu egiten,  
Haren auhen tristeia du  
Berehala entzunen.

Aldean hurbill izanen  
Du bere doloretan,  
Hetarik atheratuko  
Du ephe laburretan.

Eman dio ohore  
Eta kargu munduan.  
Baita fabore egiñen  
Behar duen orduan.

16. Bere egunak diotzo  
Lurrean luzatuko,  
Eta zeruan bekhoki  
Klara erakutsiko.

**Aphezak Iainkoaren laudatzera  
eta othoiztera gonbidatzen ditu**

*Ecce nunc benedicite.* Psal. 133.

1. Iaunak ungi errazue  
Haren zerbitzariak,  
Eta bereziki zuek  
Haren aphez guztiek.

2. Bedinka zazue zeren  
Eta haren etxean,  
Zuek bethi baitzaudete  
Eresiz kantorean.

3. Gau oro zeuren eskuak  
Etzatzue gurutza,  
Eta gureztat Iaunari  
Egin zeuren othoizta.

4. Arren begira gaitza  
Bere Sion saildunik,  
Plaga eta ondikoak  
Uste-kabe hartzetik.

*Gloria etc.*

**Antiphona**  
*Miserere*

Iauna nauzun urrikari  
Eta ene othoizta,  
Adizazu nola bera  
Zuk baituzu bihotza.

**Iainkoa othoizten da arren  
gauazko iduripen gaitzoetarik begira gaitzan**

*Te lucis ante terminum. Hymnus.*

Illhundu baño lehen  
Zu zaitugu othoizten,  
Arren guarda gaitzatzun  
Kalterik ezthatorkun.

Haiza tzatzu ametsak.  
Eta iduripen gaitzak.  
Eta etzan alduki  
Gorputza eztezan lehi.

Hala egizu Aita  
Arren guztiz puxanta,  
Iesus Kristen mereziz,  
Bai gure urrikariz.





Zena bethi zurekin  
Eta espirituarekin,  
Baitago zeruetan  
Triunfa handietan.

*Capitulum.*

*Tu autem in nobi.* Hier 15.

O Iongoiko gure artean  
Ohoratzen zarena,  
Geure faborera dugu  
Deitzen zure izena.

Ez gaitzatzula bada othoi  
Abandona menean,  
Bañan zagozkigu hurbill  
Bethiere aldean.

*Ihardatz*

Hala bada dogozula  
Ernerik saihetsean,  
Faboratzen gaituela  
Behar den orenean.

*In manus tuas.*

Zeure eskuetan dut neure  
Arima gomendatzen  
Iainko ona ikhusazu  
Ene beharra arren.

Lehen ere zuk guardatu  
Nauzu asko kaltetarik,  
Hala othoi guarda nazazu  
Ethorkizunetarik.

*Gloria, etc.*

*Custodi nos Domine.*

Begira gaitzatzu begi  
Ninikoa bezala,  
Eta hegalez geriza  
Ume maiteak bezala.

*Salva nos.*

**Iauna begira gaitzatzu.**  
**Simeon aphez zaharrak,**  
**Iainkoari eskerrak izultzen diotso,**  
**zeren egin dioen bere semearen ikhusteko grazia**  
*Nunc dimittis.* Luc. 2.

1. Iauna orain utzten nauzu  
Neure azken mendean,  
Promes zinarotan legez  
Bake handi batean.

2. Zergatik ene begiek  
Gure salbatzaillea,  
Ikhusi baitut egorri  
Darokuzun prinzea.

3. Nola aspaldi baitzinoen,  
Jendeari agindu,  
Bidalduko zinoela  
Har zezala ezportzu.

4. Hau da infidel itsuen  
Gida eta argia  
Hau zure Israelgo poblu  
Maitearen gloria.

*Gloria, etc.*

*Salva nos.*



Iauna egin gaitzatu  
Othoirako arriak.  
Eta puxantki defanda  
Gauaz lotan iarriak.

Iratzarririk gaudezen  
Iesus Kristen legean;  
Eta gauaz har dezagun  
Errepausu bakean.

### Otoitza

Iauna etxe hunetara  
Itzultzatu begiak,  
Eta haiza gere etsai  
Kruelen tronperiak.

Hartarakotz egor azu  
Aingeruen ostea,  
Gure guardian iragan  
Dezaten gau luzea.

Zuk ere iguzu zeure  
Benedikzioea,  
Nihor ausarta eztakigun  
Egitera kaltea.

*Dominus vobiscum.*

Iongoiko handia dela  
Bethiere zuekin,  
Hura era dela zure  
Espirituarekin.

*Benedicamus Domino.*

Bethiere ungi erragun  
Geure Iainko handiaz,

*Ihardats.*

Esker bada iozogun  
Itzul hala guztiaz.

*Benedicat.*

Bedinka eta begira  
Gaitzala indarsuak,  
Iainko Aita Seme eta  
Espiritu Sainduak.

*Ihardats.*

Hala bada egin gaitzala  
Geure bizi guztian,  
Mundu hunetako pena  
Eta ondiko handian.

*Fideli.*

Bere miseriakordiaz  
Iainko onak arimei,  
Errepausu diezela  
Eman doloratuei.

*Ihard.*

Eman diezela bada  
Eta lezeko sua,  
Iraungirik diezela  
Eman parabisua.

*Salve Regina.*

Agur erregiña, ama  
Bihotz mansoarena,



Eta esperantza kristau  
Penatu guztiena.

Negarrezko zelhaitarik  
Gure auhen tristeak,  
Heltzen darokitzu Eba  
Flakoaren umeak.

Ea beraz lurekoen  
Adbokat hautetsia,  
Gure gana urrikariz  
Itzul azu begia.

Eta azken partidan  
Sabeleko fruitua,  
Othoi diezakeguzu  
Erakutsi saildua.

Hala egikezu andre  
Masi eta arraia  
Erakuts diezakeguzu  
Othoi haren bisaia.

*Ora pro nobis.*

Iainkoaren ama gutzaz  
Othoitz egizu arren  
Iesus Kristoren promesen  
Digne aurkhi gaiezen.

*Dagigun othoitz.*

### **Othoitz**

O Iainko ahal guztietako eta bethierekoa, zeñak ama birjina glorio-  
saren, gorputz eta arimak, Espir. Sainduarekin batean, semearen egoitzu-  
tzat baso, izateko, preparatu bizintuen, egiguzu grazia haren orhoitzapen  
onaz bozteko, eta bitartekotasunaz, hurbill darrizgigun gaitzetarik, eta  
sekulako heiozetik libro izateko Iesus Kristo gure Iaun eta zure seme,

zurekin eta Espiritu Sainduarekin, mende guztietako mendetan, bizi eta  
agintzen duen beraren mereziz eta bitartekoz. Hala biz.

Iainkoaren faborea  
Dela bethi gurekin,  
Amen biz bada kalteak  
Hartzeko erraxekin.

*Gure Aita, Agur Maria, Sinhetsten dut.*



## II. HILLEN OFIZIOA

### *Invitorium.*

Zatozte adoratzera  
Zeruko erregea,  
Zergatik haren eskutik  
Baitugu bizitzea.

**Dabiten Iainkoak adoratzera  
bat bedera gonbidatzen du**  
*Venite exultemus.* Psal. 94

1. Zatozte jende prestuak,  
Iauna baithan boztera,  
Zatozte salbatzaillea  
Baithan allegeratzera.

Aithor diotzogun egin  
Darozkigun ungiak,  
Eta boz gaizezen haren  
Kantatzen eresiak.

2. Zeren Iaunik handiena  
Baita gure Iainkoa,  
Hura berze Iongoikoen  
Errege gañekoa.

Gu berriz haren beraren  
Bihotzeko jendeak,  
Hark eztitu arbuiatzen  
Nihoiz ere bereak.

Haren eskuko dirade  
Lurraren har xedeak,  
Bere ezagutzen ditu  
Mendien gargaiteak.

3. Haren propioa ere  
Da itsaso urdiña,  
Lehorra ere harena hark  
Bere eskuz egiña.

Zatozte beraz Iaun handi  
Haren adoratzera,  
Eta haren aitziañean  
Belhauriko iartzera.

Zatozte begietarik  
Nigarrak isurtzera,  
Zeren egin dugun hanitz  
Falta haren aldera.

Eta, zergatik hura den  
Gure kreatzaillea,  
Hura gure Iainko eta  
Habe eta iabea.

Eta guk halaber haren  
Jende onheritziak,  
Haren espill ederreko  
Guardi bereziak.

4. Zatozte beraz guztiok  
Haren adoratzera,  
Eta hari zor diogun  
Ohorea ematera.

Ezen Iaun hark berak gaitu  
Hartara gonbidatzen,  
Berak solas amudios  
Bethe hauk idukitzen.

Aditzen tutzuenean  
Ene ahoko hitzak,  
Begiraukezue zeuren  
Gortzetik bihotzak.



Nola egin bitzitzuten  
Behiala zuenek,  
Sinaiko desertuan  
Aita bihotz gogorrek.

Zeñek baininduten asko  
Aldiz aserrazari,  
Zituzelarik maiz ene  
Gastiguak ikhusi.

5. Berrogoi urthez emeki  
Egotu nintziaien,  
Abisatzen nituela  
Zirela enganatzen.

Alabañan hisiatu  
Hek batere antsia,  
Etziteen obran ene  
Emateaz nahia.

Aserrerik iuramentu  
Orduan egin nuen,  
Ene errepausura nihoiz  
Etzirela sarturen.

### **Iainkoa prestuentzat othoitzten da**

*Verba mea auribus.* Psal. 5.

1. Iauna ene hitza zeure  
Beharriz adizazu,  
Eta ene dehadarra  
Onez entzun ezazu.

2. Zaude othoi erne ene  
Othoitzaren bozara.  
O Iainko Iaun zeña ene  
Erregea baitzara.

3. Goizean goizik iaikien  
Naiz zure othoitztera,  
Zeren bethi prest baitzaude  
Humillen entzutera.

4. Zuk ere lauda zakezu  
Goizik ene othoitzera,  
Ezen zuk ikhusten duzu  
Ene ondiko latza.

Badakit zuk eztuzula  
Entzuten urgullurik,  
Zeren ezpaituzu nahi ikhusi  
Halako biziorik.

5. Ez eta gaixtorik hurbill  
Dakizun aitzinera.  
Ez hain guti ager dadin  
Zure begitartera.

6. Aitzitik gitzetzten tutzu  
Handiro halakoak,  
Gaitzetzten gizon gezurti  
Eta barren falsoak.

7. Gaitzetzten tutzu oraño  
Odol isurtzailleak,  
Fiñean gaitzetzten doble  
Eta tronpatzailleak.

Bañan Iainko ona nitzaz  
Denaz bezanbatean,  
Miserikordia handi  
Fidaturik zurean.

8. Ausartzen naiz zure tenplu  
Sakratuan sartzera,  
Ikhara handiarekin  
Zure adoratzera.



9. Eta humillki othoizten  
Zaitut arren enea,  
Iustutaunean gida  
Dezazun bizitzea.

Xuxenki gida dezazun  
Arren zeure bidean,  
Xuxen ibill nadin zure  
Begien aitzinean.

Ezen etsaiak darraizkit  
Laster eta khexarik,  
Zeharreko bidetara  
Basarazi nahirik.

10. Hekien ahotan ezta  
Behin ere egiarik,  
Behin ere bihotzetan  
Baizen arintasunik.

11. Hobi ideki bat hekin  
Diduri eztarriak,  
Zeñak banatzen baititu  
Usain iguñgarriak.

Bere mihiez dituzte  
Sinpleenak tronpatzen,  
O Iongoiko iustua hek  
Gastiga tzatzu arren.

12. Eztietzetzula bere  
Gogoetak balia,  
Bañan nola hekin baitu  
Hobenak merezia.

Haiza tzatzu urrun zeure  
Begitarte saildunik,  
Zeren baitzaituzte zeure  
Altaratzen gozotik.

13. Eta kontra zeure gana  
Deit etzatzu iustuak,  
Emateko plazer eta  
Bozkario sailduak.

Egizu zeure egoitza  
Othoi hekien artean,  
Eta fabora etzatzu  
Premia dutenean.

14. Gloriarazi detzazu  
Hek othoi zeure baithan,  
Zure izena iduki  
Zeren duten ezertan.

Hek berze guztietarik  
Iauna bedinka tzatzu,  
Eta zeure dohain eta  
Graziez bethe tzatzu.

15. Geriza etzatzu zeure  
Erredola handiaz,  
Fiñean khoroa zeure  
Sekulako gloriáz.

Gure ere egikeguzu  
Othoi fabore bera,  
Errenda diezazugun  
Hekin balsan eskerra.

Bethiko errepausua  
Emotezu arimei,  
Eta bethiko argia  
Erakuts hekin begiei.

**Bekhatuen barkhamendu eskatzen da**  
Psal. 6.



1. Eznazazula mehatxa  
 Iauna zeure aserrean,  
 Ez eta puniko era  
 Handian zarenean.

Zeren dudan zure lege  
 Saindua mesprezatu,  
 Eta haren kontra egin  
 Nabarmenki bekhatu.

2. Bañan Iainko bihotz bera  
 Zuk nauzun urrikari,  
 Eta othoi senda nazazu  
 Zergatik bainaiz eri.

3. Ezen iharrosi zaizkit  
 Hezurak iunturetan,  
 Eta arima nahasi  
 Bere egin bidetan.

Aspaldion dakusazun  
 Legez, dut lazeria,  
 Nauzun beraz urrikari  
 O Inongoiko handia.

Noiz artean duzu bada Iaun  
 Ona beranduko  
 Noiz arean nauzu pena  
 Hautzaz gaztigatuko.

4. Khexa zaiten arren othoi  
 Ene faboratzera,  
 Eta ene arima ondiko  
 Hautarik libratzera.

Zer progotxu duzu berdin  
 Ene hagarantzeaz,  
 Eta ene bekatua  
 Herioz punitzeaz.

5. Ezen herioan ezta  
 Zure orhoitzapenik,  
 Ezta ifernuan ere  
 Zure ungien aithorrik.

6. Damu eta dolore dut  
 Handia bihotzean,  
 Zergatik egin dudan huts  
 Zure saindu legean.

Gau oro nigar isuriz  
 Ohea dut bustitzen,  
 Gau oro neure azpiko  
 Ohazura hezatzan.

7. Ene begi larrian da  
 Iauna ezagun aski,  
 Zure kolerak dula  
 Hagitz nahasarazi.

Gauza bera ezagun da  
 Oraño gorputzean,  
 Zeren goiz zahartu bainaiz  
 Neure etsaien artean.

8. Guztiarekien badut  
 Oraño esparantza,  
 Urrikaldurik entzunen  
 Duzula ene othoitza.

Aparta zakizkidate  
 Beraz etsai goseak,  
 Ezen Iaun onak entzutik  
 Ene auhen tristean.

9. Bai Iaun onak ikhus dik  
 Ene nigar ixilla,  
 Eta bere karguz hartu  
 Ene othoitza humilla.



10. Zuek ere ahalke eta  
Ikhara handirekin.  
Haren gana itzul zaitetze  
Eta urrikirekin.

Eska zakizkote zeuren  
Falten barkhamendua,  
Ezen bihotza dik guztiz  
Urrikalmendutsua.

*Bethiko errepausua, etc.*

**Iongoikoa othoizten da  
etsaietarik begira gaitzan**  
Psal. 7.

1. O munduaren iaun eta  
Ene iabe handia,  
Zure baithan ezarri dut  
Esparantza guztia.

Arren zuk libra nazazu  
Neure etsaietarik,  
Kalte egin nahiz hurbill  
Darraizkidanetarik.

2. Begira nazazu othoi  
Flako eta erbala,  
Ez naramaten lehoñek  
Ardiantza bezala.

Guztiz nerori bakharrik  
Ikhusten nautenean,  
Zure faborea hurbill  
Eztudala aldean.

3. O ene Iongoiko ona,  
Baldin bidegaberik,

Noizbait egin banaroe  
Edo atsekaberik.

4. Baldin bihurtu banio  
Gaizkiari gaizkia,  
Merezi onez nezala  
Paira hekin furia.

5. Merezi onez ondotik  
Laster lerraizkidala,  
Eta bidean unherik  
Atzeman nentzatela,

Merezi onez ostika  
Nentzatela lurrean,  
Fiñean merezi onez  
Errabill herrautsean.

6. Baña Iauna eztaoet  
Deus egin halakorik,  
Aitzitik baizen ontasun  
Eta baizen plazerik.

Hartarakotz othoi zeure  
Alkhitik iaiki zaitte,  
Eta aserrerek hekin  
Bidera illkhi zaitte.

7. Iaiki zaitte eta illkhi  
Zakizte aitzinera,  
Zeronek agindu duzun  
Hitzaren arauera.

Hala egiten baduzu  
Jendea saihetsera,  
Billduko zaitzu fabore  
Premian eskatzera.

8. Igan zaitte bada othoi  
Zeure akhi gorara,





Eta emazu sentenzia  
Gaixto hekin kontrara.

9. Halaber ikhus ezazu  
Ene inozenzia,  
Eta nik sofritzen dudan  
Bidegabe handia.

10. Puni tzatzu Iauna hekin  
Bekhatu ehortziak,  
Eta bide onaz gida  
Iustu diren guztiak.

Zuk klarki ikhusten duzu  
Presunaren bihotza,  
Zuk irakurtzen zeren haren  
Barrean baitatza.

11. Zu zare ene iabea  
Zu ene faborea,  
Zu penetarik presuna  
Onen libratzailla.

12. O Iainko ona zu zare  
Gure iuje iustua,  
Zu borthitza zarelarik  
Halarik pairutsua.

Hekin kontra egunoro  
Zu zare aserratzen,  
Hekin kontra azkenean  
Kolera deskargatzen.

13. Zenak ez baitire nihoiz  
Konbertitzen onera,  
Bañan aitzitik baitoaz  
Gaixtatuz aitzinera.

Hekin kontra duzu zeure  
Ezpata ailteratzen,

Hekin kontra zeure arku  
Zeharra arrimatzen.

14. Hei daroezu herio  
Triste preparatzen.  
Hei ximixtak bezain laster  
Tragazak artikitzen.

15. Halakoak bada zaizkit  
Egin niri altxatu,  
Halakoek darotate  
Asko gaitz desiratu.

Bere buruei daroe  
Hek ordean kaltea,  
Preparatzen bere buru  
Gaxoei dolorea.

16. Bere buruei hobiak  
Darozte idekitzen,  
Bere buruak hetara  
Azkenean etxatzen.

17. Eta hala zoratu hek  
Niri egin ustea,  
Bere buruei daroe  
Ordenatzen kaltea.

Hauk guztiak ikhusirik  
Nik zure iustizia,  
Laudatzen dut eta zuri  
Kantatzen eresia.

*Bethiko errepausua, etc.*

*Aporta inferi.*

Iauna ona arren arima  
Defuntuak lezetik,



Lehen bai lehen athera  
Tzatzu purgatzekotik.

*Pater Noster.*  
*Ioben lektioneak*

**Iainkoa barkha diozon othoizten du,  
bere biziaren laburtsuna dela kausa,  
eta bere lastimen kausaz**

Iob. 7.

Barkha diezadazu laster othoi neure Iauna, ezen ene egunak deus ez tire, zer da gizona non hanbat eritzten baituzu. Eta zergatik ematen baituzu, zeure bihotz hanbat haren baithara. Goizean begiratu diozun bezain sarri bere hala forгатzen duzu. Noiz artean ez tarotzau barkhatuko, eta ez tarotazu neure thuraren iretzteko arterik utziko. Huts egindut zereginen darotzut bada, o gizonen begiratzaillea? Zergatik egin nauzu neure hegi, eta neure buruaren unhagarri? Zergatik ez tarotazu barkhatzen neure behatua, eta aldaratzen neure bidegabea. Huna non sarri herrautsetan lo egiten dudana, eta goizean billhatzen banauzu oñen gañean izanen eznaizen.

*Credo quod.*

Sinhetsten dut ezen ene  
Iainko erostzaillea,  
Zeruetan bizi dela  
Maiestatez bethea.

Bai eta naizela azken  
Egunean bitztuko,  
Eta hura neure begiz  
Dudala ikhusiko.

Hura diot ikhusiko  
Dudala nik neronek,  
Eta enetzat berze  
Munduan bizi denek.

**Iainko, barkhatzera ertxatzen du,  
bere pena handien kausaz**  
*Tadet animam. Job. 10.*

Ene arima unhatu da ene bizi az itzuriko zait hitza zure kontra. Mintzatuko naiz izare arimaren behakunean, eta erranen dut ez nazazula kondemna. Aditzera emadazu zergatik hunela punitzen nauzun? On iduri bide zaitzu ene desohoratzea, eta ene zeure eskuko obraren nekhatzea. Eta gaixtoen konseilluaren faboratzea. Zure begiak haragizkoak othoi dire, gizon kruek batek bezala begiratziko. Zure egunak gizonarenak bezalakoak othe dire, eta zure urtheak harenak bezalak, ene gaixtakeria billhatzeko, eta ene bekatuari iarraitzeko. Dakizularik gaizki garabik egin ez tudala, eta dakizularik orano, egin duenik nihor zure eskuei ezin itzur dakikeela.

O Iaun Lazaro hobitik  
iraiki zinduena,  
Iadanik busteltzen eta  
usaintzen hasi zena.

Eman diezazu othoi  
errepausu arimei,  
purgatorioko suan  
pena dakusatenei.

Hill eta biziak suaz  
iuiatuko tutzuna,  
egiezu othoi laster  
halako ontasuna.

**Bere erbaltasuna dela kausa Iainkoa,  
barkhatzera ertxaten du**  
Job. 10.

Zure eskuek Iauna, egin naute eta inguru guztian moldatu naute, eta halarik hain laster buruz behera etxatzen nauzu. Orhoit zaite nona basaren pare egin nauzun. Eta herrautsetara bihurtuko nauzun. Ez nauzu iaitzi esnea bezala eta gatzatu gasna bezala? Larruz eta haragiz bestitu nau-



zau, eta hezurrez eta zañez osatu. Bizia eman darotzatu eta egin asko ontasun. Eta zure begi erneek begiratu naute.

Harritzen naiz neure faltez  
orhoitzen naizenean,  
ea nola egertuko naizen  
zure aitzinean.

Iautsten zarenean mundu  
handi hau iuiatzera,  
eta nori bere paga  
iustua ematera.

Ez nazakezula Iauna,  
arren othoi kondemna,  
zergatik egin dukedan  
zure kontra hobena.

*Liberame*

Sekulak heriotik  
o Iaun bihotz emea,  
ene arima guarda zazu  
beldurkunder bezetha.

Begira zakezu egun  
larri eta aserrean,  
zeru lurak iharrosten  
hasiko direnean.

Egun hartan diot iuje  
zenetan zu iustua,  
iautsiko baitzare suaz  
iuiatzera mundua.

Ikharatzen naiz Iauna eta  
izitzen bihotzean  
egin izigarri hartaz  
orhoitzen naizenean.

Zeñetan gauza guztiak  
baitire urratuko,  
zeruko argizagjak  
goibelaz ilhunduko.

Egun hura izanen da  
egin koleratusa,  
egun lastimatsu eta  
egun espantutsua.

Egun parerik gabea,  
handi eta garratza,  
zeñetan triste baituke  
bat bederak bihotza.

*Requiem.*

Bethiko errepausua  
emotezu arimei,  
eta bethiko argia  
erakuts hekin begiei.



### III. ZAZPI SALMUAK

#### **Iainkoari bekhatuen, barkhamendu eskatzeko**

*Domine* Psal. 6.

1. Ez nazazula mehatxa Iauna,  
Zeure aserrear,  
Ez eta puniko era  
Handian zarenean.

Zeren dudan zure lege  
Saindua meziprezatu,  
Eta zeren egin dudan  
Haren kontra bekhatu.

1. Bañan Iainko bihotz bera  
Zuk nauzun urrikari,  
Eta othoi senda nazazu  
Zergatik bainaiz eri.

Ezen iharrosi zaizkit  
Hezurak iunturetan,  
Eta arima nahasi  
Bere eginbidetan.

Aspaldion dakusazun legez  
Urrikalmendutsua.

[...][317-318 orrialdeak falta]

Gloria duela Iaunak  
Bai halaber Semeak,  
Nola oraño Espiritu  
Amudios betheak.

Psal. 31.

1. Dohatsua da gizona  
Zeñen gaixtakeriak,  
Barkhatu baitire eta  
Estali huts guztiak.

2. Dohatsua zeñi Iaunak  
Bekhatuen kontua,  
Ezpatio galdeginen  
Hertsi eta iustua.

Dohatsua da gizona  
Oraño zeñenean,  
Gaixtakeriak ohatze  
Ezpaitu bihotzean.

3. Dohatsu zeñak aithortzen  
Baitu bere hobena,  
Eta Iaunari eskatzen  
Barkhamendu harena.

Dohakabera egotu  
Nintzen denbora luzez,  
Neure falta itsusien  
Aithortzeko ahalkez.

Orduan zahartu ziren  
Ene zauri minberak,  
Orduan busteldu ene  
Hezur eta iunturak.

4. Orduan ezin pairatuz  
Dolore gehiago,  
Dihadar egin narotzun  
Iaun ona zeruraño.

Ezen iazartzen zerotan  
Hala zure eskuak,  
Non bortxaz bait zerozkidan  
Eragiten oihuak.



Berze alde neure bihotz  
Barreneko garriak,  
Penatzen ninduen nola  
Ona arantze xixpiak.

5. Ordu hartan nuen Iauna  
Guztia deliberatu,  
Behar nerotzula neure  
Bekhatua agertu.

6. Ez nuen hain sarri erran  
Iaunari bekhatuak,  
Aithortu behar diotzot  
Handi eta pisuak.

Non hek baitzinarozkidan  
Berehala barkhatu,  
Eta zeure amudio  
Saindura berriz hartu.

7. Hartarakotz zuhur  
Eta abisatu denak,  
Mugaz dorozkitzu bere  
Erantzunen ahuenak.

Ezen zuregana egiten  
Baldin badu ihesa,  
Zure faborea eztu  
Edirenen eskasa.

8. Bañan uholdeak nola  
Zelhaiak estaltzean,  
Gizonak aurkutzen baitu  
Leihor mendi gañean.

Halaber zure baithan du  
Fabore edirenen,  
Nok ere baitu lasterra  
Zure gana eginen.

Ezen munduan gerthatzen  
Ezta hain gaitz handirik,  
Erraxki erremedia zuk  
Eztezakezunik.

9. Hala dela Iainko ona,  
Askotan dut frogatu,  
Ustekabean kalteak  
Noiz ere bainau hartu.

Ezen noiz ere bainuen  
Itzurtzeaz etsitzen,  
Orduan esku puxantaz  
Zuk ninduzun libratzen.

10. Halaber zinarozkedan  
Hitz eme hauk iduki,  
Zure ontasun zeñiez  
Baitzen ezagun aski.

Nik argituko daroat  
Neure adimendua,  
Nik irakatsiko bide  
Xuxen eta xahua.

Nik diat hire gañean  
Idukiko begia,  
Nihon eror ez adintzat  
Bethiere idekia.

11. Gehiago Iainko ona  
Zuk nauzu abisatzen,  
Zaldia eta mandoa  
Bezalako ez naizen.

12. Batere adimendurik  
Buruan eztutela,  
Gutizi erho batez  
Hek gidatzen direla.



Hargatik nazelak brida  
Banaz zaitela ersten,  
Halako denik eztela  
Zuregana hurbiltzen.

13. Bañan dagoela asko  
Plaga hareantzat,  
Eta miserikordia  
On eta prestuentzat.

14. Hartarakotz jende prestu  
Eta biotz xuxenak  
Zure baithan alegera  
Daitezala lehenak.

*Gloria, etc.*

*Domine ne in furore* Psal. 37.

1. Ezazula Iauna, iraun  
Othoi zeure aserrean.  
Bañan duzun pietate  
Othoi ene gañean.

2. Ezen oraño neurekin  
Ditut fletxa guztiak,  
Zure besoak sendoki  
Zerutik arthikiak.

3. Ene haragiak eztu  
Nihon osasunarik,  
Ez eta ene hezurrek,  
Nihon errepausurik.

Ezen hala ditu zure  
Kolerak ikharatu,  
Non ezin baitezakete  
Nihon aurkhi sosegu.

Hauk guztiak ditu neure  
Bekhatuen ariaz,  
Eta zure ondenantzak  
Hainberzetan hautsiaz.

4. Ezen hanbat badut zure  
Kontra egin bekhatu,  
Asko alde non bitute  
Ene burua xitu.

Karga garagiak presuna  
Nola baitu zapatzen,  
Halaber naute ni ere  
Neure faltek egiten.

5. Bustel eta gaizkoatzen  
Zaizkit neure zauriak.  
Gogora ethortzan egin  
Tudan erhokeriak.

6. Urrikal gizon egin naiz  
Guztia naiz makhurtu.  
Sekulan hala beharko  
Dudala ere etsitu.

Eta hargatik illkhitzen  
Naizenean plazara,  
Urrats egiten dut gizon  
Triste baten gisara.

7. Ene erraietan ezta  
Baizen hotz ikhararik,  
Ene gorputz erbalean  
Baizen errenkurarik.

8. Lastimagarri egin naiz  
Guztia naiz urrhatu,  
Hargatik duk bihotzetik  
Marraska atheratu.



9. Ea zergatik zeronek  
 Iauna dakizu ungi,  
 Zergatik ene auhena  
 Ez haitzaitzu estali.

10. Neure bihotz guztia zait  
 Nahasi erraieran,  
 Eta en naiz leheneko  
 Aurkhitzen indarretan.

Nigar egin huktsez iona zait  
 Begietako argia,  
 Ezen orain eztakusat  
 Lehenaren erdia.

11. Ahaide adiskedeak  
 Ikhustera ethortzean,  
 Espantaturik gelditzen  
 Zaizkit gela sartzean.

12. Eta lehen nituenak  
 Neure aldean bethi,  
 Orain daudez ene ganik  
 Hastanduak urruti.

13. Gehiago ene etsai  
 Eta ixterbegiak,  
 Egitera esaiatzen  
 Zaizkit ahal gaizkiak.

Nitzaz mintzo direnean  
 Hirri dutenegien,  
 Milla gaitz darotatela  
 Gogotan desiratzen.

14. Ez aditu egiten dut  
 Alegia ni gortu,  
 Ahoa eztu idekitzen  
 Alegian ni mutu.

15. Eta hala hekin balsan  
 Badirurik rotua,  
 Eta erreputa ezin  
 Demakeen mutua.

16. Hauk guztiak pairatzen  
 Zure amoreak gatik  
 Eta falten barkhamendu  
 Ardiatstea gatik.

Bañan badut esparantza  
 Zure ontasunean,  
 Ene auhena entzunen  
 Duzula azkenean.

17. Hala egizu bada Iauna  
 Othoi lehen bai lehen,  
 Ene gañean etsaiek  
 Sarrarik eztagiten.

Ezen ni behatztopatzen  
 Naizen ordu guztian,  
 Burlarik baizen eztute  
 Alkharren konpañian.

18. Aski errezibitu dut  
 Huneraño azote,  
 Aski zure aitziañean  
 Pena eta dolore.

Aithortzen du gehiago  
 Nukeela merezi,  
 Bañan Iainko Iauna nuzun  
 Zuk othoi urrikari.

19. Sekulan aithortuko dut  
 Egin dudan gazkia,  
 Bai gogoan ginen  
 Darotazun grazia.



20. Orain guztiz zerengatik  
Hanba bainaiz penatzen.  
Da zergatik neure etsaiak  
Berriz baitzaizkit bitzten.

Eta zergatik baitzaizkit  
Berretzen egun oro,  
Emateko laido eta  
Ahalke gehiago.

21. Gehiago nori egin  
Baitio ungienik,  
Hura nitzaz gibeletetik  
Mintzo da gaizkienik.

Zerengatik iarraitzen  
Natzaion zureari,  
Neure indar eta ahal  
Guztiaz lege onari.

22. Bañan Iauna ez nazazula  
Zuk utz behar orduan,  
Eta etzakizkidala  
Hastan azken pontuan.

23. Aitzitik zagozkit hurbill  
Fabore emateko  
Ene salbamenduaren  
Nola baitzare Iainko.

*Gloria, etc.*

*Miserere mei Deus.* Psal. 50.

1. Iauna nauzun urrikari  
Bekhatoros handia,  
Nola bihotz baituzu  
Guztiz urrikari.

2. Halakoa duzula obraz  
Maiz duzu erakutsi,  
Orain ardi az halaber  
Erakutsdazu niri.

3. Garbi nazazu othoi neure  
Falten zikhiñetarik,  
Eta xahaturik bidal  
Hekien nothetarik.

4. Ezen ethorri naiz neure  
Hutsa ezagutzera,  
Bai hura neure etsaia  
Dudala iakitera.

Zu zaitut neure Iaun ona  
Bakharrik ofensatu  
Zure begietan egin dut  
Itsuski bekhatu.

Zuk bakharrik duzu haren  
Barkhatzeko eskua,  
Barkha diezadazu Iauna  
Arren neure bekhata.

Egietan aurkhi dadin  
Zutzaz erraten dena,  
Zu zarela othoitz onei  
Begiratzen zaiztena.

5. Ezen konzebitu nintzen  
Bekhatutan [...]  
Hetan gatzatu a[...]  
Sabelean igunki.

7. Hala naizela neronek  
Aithortzen dut egia  
Nona baita ga[...]  
Bihotzak onhetsia





Erakutsi ziñi[...]  
 Zeronek gauza[...]  
 Nola oraño[...]  
 Misterio el[...]

8. Graziaren hisopoaz  
 Othoi busti nazazu,  
 Aurkhi nadin Iauna zure  
 Zerbitzatzeko xahu.

Elhurra baño nazazu  
 Are egin xuriago,  
 Ene zerbitzoaz zure  
 Begia agradatzeke.

9. Eranzun diezadazu  
 Othoi bakezko hitza,  
 Barkhatu darotazula  
 Osoki neure hutsa.

Ene beharria dire  
 Orduan pagatuko,  
 Orduan ene hezurrak  
 Bozkarioz iauziko.

10. Aldara ezazu ene  
 Faltetarik begia,  
 Eta xahu ene arima  
 Hekin nothez lihia.

11. Ene baithan sorarazi  
 [...] bihotz garbi bat,  
 [...] egiteko  
 [...] berri bat.

12. [...]zazula othoi khasa  
 [...] begitartetik,  
 [...] zeure  
 [...] amudio saildutik.

13. Aitzitik diezadazu  
 Alegera bihotza,  
 Zeure graziez gogoratzen  
 Duzula ene flakeza.

14. Gaixtoei daroet zure  
 Bidea irakatsiko,  
 Eta nigarretan zure  
 Gana itzularazeko.

15. Arren bada Iauna barkha  
 Dietzadatzu hutsak,  
 Guztiz odolezko eta  
 Haragizko likitzak.

16. Ordu artan kantatuko  
 Dutu ene ahoak,  
 Bozkario handirekin  
 Zure laudorioak.

17. Orduan othoi ideki  
 Tzakezu ene ezpañak,  
 Zure itzultzeko ontasun  
 Haren esker ordañak.

18. Baldin ezagutzen banu  
 Ezen sakrifizioa,  
 Agradatzen litzaitzula  
 Abreen odolezkoa.

Zure aldare saildua,  
 Nituzke gorrituko,  
 Eta asko bereze dohain  
 Zuri ofrendatuko.

Bañan Iauna nik badakit  
 Ezen halakoetan,  
 Etzaitzula hanbat lakhet  
 Sakrifizioetan.



19. Badakit ezen zuk nahi  
Duzu sakrifizioa,  
Dela bihotz dau eta  
Urriki handizkoa.

Halako dohañik nihoiz  
Eztuzu arbuiatzen,  
Aitzitik hek gehienaik  
Zaizkitzu agradatzen.

20. Erakuts diezadazu  
Zeure mansotasuna,  
Sioni zuk erakutsi  
Lehen darokozuna.

Eta latxatzatzu ene  
Esparantza galduak.  
Hala nola Hierusalen  
Handiaren murrak.

21. Orduan errehibituko  
Tutzu sakrifizioak,  
Gutziz ere obra saindu  
Eta iustuezkoak.

Orduan zure aldaretan  
Ezneko xahaltxoak,  
Ezarriko ditut eta  
Idiko gaztetxoak.

*Gloria, etc.*

Psal. 10.

1. Jaun ona, adiezazu  
Arren ene othoizta,  
Eta helarazi zeure gana  
Othoi ene boza.

2. Eztezazula aldara  
Berzetara begia,  
Nik zuri deklaritzen  
Neure pena handia.

3. Beñan noiz ere deithuko  
Baitzaitut faborera,  
Beharria ezakezu  
Zabal ene othoizera.

4. Ezen ene eginak dira  
Iragan nola khea,  
Eta hezurak idortu  
Nola guza errea.

5. Idortu naiz hala nola  
Iguzkitan belharra,  
Ezenoan zait gorputzan  
Lehen nuen indarra.

Gehiago ahantze zait  
Ea zer den ogia,  
Zergatik faltatu baitzait,  
Apetitu guztia.

6. Argaldu naiz auhen egun  
Hutsez zeru gorari,  
Ezen lauru xolla ene  
Datxeka hezurri.

7. Halaber apartatu naiz  
Neure lagunetarik,  
Orain garabik hantatzen  
Eztudala hetarik.

Hala nola pelikano  
Tristea oihanera,  
Edo hintz xoria nola  
Ohatze urrunera.



8. Iaratzarririk argitzen  
Ditut gauak ohean,  
Karraio bakharrak nola  
Hegatztegi gorean.

9. Zergatik neure etsaiek  
Bai naute mehatxatzen,  
Eta lehen ohoratzen  
Nindutenek laidatzen.

10. Hautsaren guztua diot  
Aurkhitzen ogiari,  
Eta nigar miñarena  
Neure edariari.

11. Guztiarekin estatu  
Hartara naiz erori,  
Zure bisaia aserre  
Zeren dudan ikhusi.

Eta zerengatik nauzun  
Etxatu hain behera,  
Lehen zeronek altxatu  
Ninduzuna hain gora.

12. Arren bada Iainko ona  
Zuk nauzun urrikari,  
Eta fabora nazazu  
Zeure tronutik sarri.

Ezen ene egunak doaz  
Hala nola itzala,  
Eta hezurak idortzen  
Landan belharra nola.

13. Bañan zuk Iainko puxata  
Bethi duzu irauten,  
Kastatik kastara zutzaz  
Egiten da aiphamen.

14. Altxa zaitte berz Iauna  
Eta Sion gaxoa,  
Urrikal bekizu muga  
Da urrikaltzekoa.

15. Altxatzatzu haren harri  
Eroriak lurretik,  
Zeure sehiei atsegin  
Hura egitea gatik.

Zeñek dolore baitute  
Handia biotzean,  
Ikhusteaz harren harri  
Pizatuak lurrean.

Eta ikhusteaz ezen  
Bere heri hautua,  
Etsaiek diatutela  
Gutziz desolatua.

16. Hura egiten baduzu  
Jendeak zure beldur,  
Izanan dire erregeek  
Zurei eginen agur.

17. Zeren altxatu dukezun  
Siongo eliza ederra,  
Eta itzuli estatu  
Leheneko berera.

18. Behaturik zerue sehi  
Maiten othoitzeroa,  
Arbizioz izuli gabe  
Burua berze aldera.

19. Kortesia haur dute  
Eskribuz ezarriko,  
Ondokoek laudorio  
Handi zuri itzultzeko.



20. Zeren dukezun zerutik,  
Lur baxora behatu,  
Eta hekien aldera  
Pietatez usatu.

21. Eta zeren urrikaldu  
Zaikiketzun auhenak  
Gerlan hill direnen seme  
Zepotan daudenenak.

Zeren halaber tuztkitzun  
Hetarik librarazi,  
Fiñean bere herrira  
Bozik itzularazi.

22. Sionen ospa dezaten  
Zure izen saindua,  
Eta Hierusalamean  
Zuri altxa kantua.

23. Errege arrotzak bere  
Jende xehearekin,  
Zure ohoratzeaz ethor  
Daitezen elkharrekin.

24. Halaber Iaun ona nauzun  
Ni ere urrikari,  
Begiratzen diozula  
Ene adin gazteari.

Ezen zeronek dakizu  
Nola orño eneak,  
Aphurrak direla egunak  
Eta aphurrak urtheak.

25. Ez nazazula beraz deit  
Adiñaren erdian,  
Bizi zarenaz geroztik  
Zu sekula guztian.

26. Hala dela ezagutzen  
Dugu zure obretarik,  
Guztiz miragarri eta  
Aspaldikoetarik.

Ezen aspaldi zinduen  
Lehorra zimendatu,  
Aspaldi zeru horiok  
Edereki arrimatu.

27. Guztiarekien noizbait  
Hek dute faltaturen,  
Bañan zuk bethiereko  
Denboretan irarunen.

Hek higatuko dirade  
Nola alda garria,  
Bañan zu izanen bethi  
Oso eta berria.

28. Nola etxeari baitzaio  
Estalkia aldatzen,  
Hala ditutzu zuk ere  
Iauna hek aldaturen.

Bañan zu izanen zare  
Oringoa hargatik,  
Zeren ezpaita ahitzen  
Nihoiz zure urtherik.

29. Hala iraun araziko  
Daroezu semeei,  
Zure zerbitzari leial  
Izatu direnerei.

Ezen gidatuko duzu  
Lurrean hekin hazia,



Eta zeruan emanen  
Sekulako gloria.

*Gloria, etc*

*De profundis clamavit a te* Psal. 129.

1. Neure bihotz berrenetik  
Iauna, oihuz nagotzu,  
Ene boz suspiratsua  
Arren entzun ezazu.

2. Eta beharria zabal  
Diezazu eneei,  
Premia eta hestura  
Handitako othoitzei.

3. Ezen ene bekhatura  
Begiratzen baduzu,  
Zure aitzinean Iauna  
Nork iraunen ahal du.

4. Bañan zergatik Iauna  
Bihotz guztiz emea  
Eta zergatik eztia duzun  
Baita zure legea,

Hargatik ausartu naiz  
Zure gana herstera,  
Neure othoitza humillki  
Zuri erantzutera.

5. Zeronek gaitutzu hala  
Manatzen dagigula  
Hargatik dut esparantza  
Adituko nauzula.

6. Bai goiz aran arraitsutik  
Dathorkeño arratsa

Israelei izanen du zure  
Baithen esparantza.

7. Zure miserikordia  
Zeren baita handia  
Zeni urrikaltzen baitzaio  
Gizon bekhataria.

8. Esparantza dut Israel  
Eginen zaitzula,  
Eta barkhatuko bere  
Hutsak diotzotzula.

*Gloria, etc*

Psal.

1. Iainko ona, adizazu  
Arren ene othoitza,  
[...] beharriez  
[...] ene hitzkuntza.

[...] zazu othoi promes  
[...] bezala.  
Bethi egia eta  
Iustu zaren bezala.

2. Etzaitzela ordean  
Sar kontutan enekin,  
Ezen iustu edirenen  
Eztuzu nihor berdin.

3. Etsaiak iarriki zaizko  
Herraz ene arimari,  
Ene bizia beharrez  
Lurrean penarazi.

Ahalkez gordearazi  
Naute zokho illhunetan,



Alegja ia ni hilla  
Aspaldiko urthetan,

Han bakharrik nagoela  
Neure espiritua,  
Penatzen zait bai nahasten  
Bihotz doloratua.

4. Han gogoan iragaten  
Ditut denbora ioñak,  
Han neurekin iragaten  
Zeure eskuen lanak.

5. Orduan zure gana tut  
Hedatzen neure eskuak,  
Zre grazia beharrez  
Nola lurra uriak.

6. Arren bada Iaun gorena  
Laster entzun nazazu,  
Ezen neure berthuteak  
Hurren zaizkit faltatu.

7. Eztezazula bisaia  
Ene ganik aldera,  
Hobira irautzen diren  
Hilletarik bezala.

8. Bañan nauzun urrikari  
Othoi lehen bai lehen,  
Noala esparantza baitu  
Natzaitzula egiñen.

9. Irakats diezadazu  
Neue egin-bidea,  
Ezen zure gana gogo  
Altxatu dut neurea.

10. Halaber libra nazazu  
Neure etsaietarik,

Ezen zure gana heldu  
Naiz ihesi hetarik.

Aditzera emandazu  
Zeure borondatea,  
Nola zu baitzare ene  
Iainko eta iabea.

11. Zure spirituak nau  
Gidatuko lurrera  
Bakea eta zuzena  
Guardatzen direnera.

Hartarakotz ene arima  
Zuk othoi bitz ezazu,  
Eta ontasunerako  
Bidean aira zazu.

12. Athera nazazu othoi  
Ondiko hunetarik,  
Ene etsaiak haizatzen  
Ditutzula khexarik.

13. Gal ezazu ni penatu  
Nahi nauen guztia  
Zergatik Iauna ni bait naiz  
Zure zerbitzaria .

Gloria duela Aitak  
Bai halaber Semeak  
Nola oraño Espiritu  
Amudios betheak.

### Antiphona

Iauna etzaitela orhoit  
Gure gaizki egiñez,  
Ez eta gure buraso  
Ohitu direnenez.



Ezazula bergantza har  
Gure falten gañean,  
Ez eta hain guti gure  
Aitzinekoenean.

Barkha diozazu Iauna  
Zeure populuari,  
Zeure odol garastiaz  
Erosi duzunari.

Eta etzaillela hala  
Gure kontra aserra,  
Non guarda diezaguzun  
Sekulan zeure herra.

## LITANIAK EDO KIRIELEISONAK

Iauan urrikal gakizkitzu Kristo urrikal gakizkitzu.  
Iauna urrikal gakizkitzu.  
Kristo adi gaitzatzu, Kristo entzun gaitzatzu Iainko Aita zeruetako,  
urrikal gakizkitzu.  
Seme munduaren erostzaillea, urrikal gakizkitzu.  
Iainko Espiritu Saindua, ukrikal gakizkitzu, hirurtasun Iainko bat  
zarena, urrikal gakizkitzu.  
Maria saindua, gutzaz othoitz egizu.  
Michael saindua, gutzaz othoitz egizu.  
Gabriel saindua gutzaz othoitz egizu.  
Rahael saindua, gutzaz othoitz egizu Iainkoaren aingeru eta arkanje-  
lau saindu guztiak, gutzaz othoitz egizue.  
Espiritu dohatsuen, ordena saindu guztiak, gutzaz othoitz egizue.  
Ioanez Baptista saindua, gutzaz othoitz egizu.  
Patriarka eta profeta saindu guztiak, gutzaz othoitz egizue.  
Gutzaz othoitz egizu, eta hala bere ondoko sainduen izena aipha-  
tzean, Paule saindua, Andreas saindua; Iakobe saindua, Ioanes saindua,  
Thomas saindua, Iakobe saindua, Philippe saindua, Bartholome saindua,  
Mathea saindua, Simon saindua, Thadea saindua, Mathia aindua, Barnaba

saindua, Lukas saindua, Markus saindua, apostolu eta ebanjelista saindu  
guztiak.

Gutzaz othoitz egizue, Iaunaren diszipulu guztiak gutzaz othoitz  
egizue Esteben saindua, gutzaz othoitz egizu, Laurentz saindua,  
Vichintxo saindua, Fabian eta Sebastian sainduak.

Gutzaz othotz egizue, Ioanes eta Paule sainduak, Kosma eta  
Damian sainduak, Serbasi eta Prothasi sainduak.

Martir saindu guztiak, Silbestre saindua, Gregorio saindua, Anbrosio  
saindua, Augustin saindua.

Hieronimo saindua, Martin saindua, Nikolaz saindua, Aita Saindu  
iphizkiku eta konfesor sainduak.

Dotor saindu guztiak, Benedikto sainduak, Anthoni sainduak,  
Bernart saindua, Dominixe saindua, Franzez saindua.

Aphez eta lebita saindu guztiak.

Greide eta hermitau saindu guztiak.

Maria Magdalena saindua, Agatha saindua, Luzia saindua, Agnes  
saindua, Zezilia saindua, Catharina saindua, Anastasia saindua, birjina eta  
alhargun saindu guztiak.

Iainkoaren saindu guztiak ararteko on gertha zakezkigute.

Iauna zaren gure aldera, urrikalmendutsu.

Eta barkha diezaguzu.

Iauna zaren gure aldera ukrikalmendutsu.

Eta barkha diezaguzu.

Iauna zaren gure aldera urrikalmendutsu.

Eta entzun gaitzazu.

Gaitz guztietarik, Iauna begira gaitzazu.

Bekhatu guztietarik, Iauna begira gaitzatzu.

Dabruen zelata guztietarik Iauna begira gaitzatzu.

Gorroto eta gaitz guztietarik, haragizko bekhatuetarik.

Ozpin eta tormenta guztietarik, sekulako heriotzetik, zeure gizon  
egitearen ariaz, Iauna begira gaitzatzu.zeure ethortzearen ariaz.

Iauna begira gaitzatzu.

Zeure baptismaren eta barur sainduaren ariaz, zeure gurutze et a  
pasionearen ariaz.

Zeure hilltzearen eta ehorztearen ariaz.

Zeure bitzte sainduaren ariaz, zeure zerura igate miragarriaren ariaz.

Espiritu Saindu konsolatzailearen ethorzearen ariaz, azken iudizio-  
aren orhoitzapenaren ariaz.

Bekhatore handiok, Iauna othoitzten zaitugu arren entzen gaitzatzu.



Geure bekhatuak barkha dietzagutzun, Iauna othoizten zaitugu arren entzun gaitzatu.

Egiazko urrikimendura erakhar gaitzatzun.

Iauna othoizten zaitugu arren entzun gaitzatu.

Apostoluen alkhia eta elizaren ordena guztiak, relijione sainduan begira detzazteun.

Iauna othoizten etc.

Eliza sainduan etsaiak behera detzazun.

Giristino prinzeei bakea eta egiazko akordua eman diezazun.

Gure gerok zeure zerbitzo sainduan, gogor eta begira giatzatu.

Gure arimak zeruko gutizietara altxa detzatzun.

Gure ungi egilleei sekulako ontasunak eman dietzetzun. gure arimak, anaiaenak urkoenak, ungi egillenak, sekulako damnazione bidetik athera detzatzun.

Lurrari fruituak, eman eta begira diotzotzun.

Arima ioanei sekulako errepausua, eman diezazun. entzunak gertha gaitzatzun Iainkoaren Semea.

Zu othoizten zaitugu arren entzun gaitzatu.

Iainkoaren billdots munduko bekhatuak khentzen ditutzuna barkha diezaguzu.

Iainkoaren billdots munduko bekhatuak khentzen ditutzuna.

Arren entzun gaitzatu.

Iainkoaren billdots munduko bekhatuak khentzen ditutzuna, urrikal gakizkitzu.

Kristo adi gaitzatu.

Kristo entzun gaitzatu.

Iaukan urrikal gakizkitzu. Iauna urrikal gakizkitzu.

Gure Aita zeruetan.

## Othoitza

O Iongoiko eta aingeru

Korte dohatsuok,

Halaber zuek o saindu

Gure arartekoak.

Arren entzun etzatzue

Gure othoitz humillak,

Eta dietzagutzue

Urrun hastan perillak.

Iduki gaitzatzue othoi

Zuen gomendioan,

Bizi gareño munduko

Haran dolorezkoan.

Egun batez zeruetan

Zordun zuen aldera,

Aurkhi gaitezen eskerren

Frankoki itzultzera.

Hala egizue saindu

Zeruko dohatsuak,

Eta iduki gaitzatzue

Gomendioz hartuak.





## IV. ASTEKO EGUN GUZTIETARAKO ORENAK

### Iainkoari orenak gutzaz duen arduraren gañean. Igandekotz

O Iainko zeñak baituzu  
Gutzaz artha handia,  
Adizazu othoi zeure  
Orenen eresia.

Zure ordenantza sailduz  
Irauten du eguna,  
Elkharri aldi egiten  
Hark eta gau illhunak.

Urthearen inguruak  
Zu bedinkatzen zaitu,  
Sasoñak xuxen ekhartzen  
Zeren baitiotzotzu.

Tormenta eta haizeak,  
Zuk ditutzu ematen,  
Itsasoari zuk bere  
Mugarriak ifintzen.

Iguzkia zuk itzulzen  
Darokuzu goizetan,  
Hark begiak argiturik  
Has gaitezen lanetan.

Akhabatu duenean  
Gero bere kursua,  
Gerizatzen darokuzu  
Har dezazun pausua.

Ordanez darozkigutzu  
Izar xeheak bitzten,

Gau belzeko illhunbetan  
Hetzaz gida gitezen.

Gure gatik Iauna egiten  
Ditutzu hauk guztiak,  
Bethi erne dadutzatzula  
Gure gañean begiak.

Esker bada eta aithor  
Duzula Iaun handia,  
Zeren hain arthatsua den  
Zure probidenzia.

### Iainko bat denari bere perfekzioeen gañean orenak. Astelehenekoaz

Iongoiko bakhotxa, zure  
Kantatzen tut orenak,  
Arren entzun tzatzu zeure  
Laudorio zuzenak.

Duzu zeure izatea  
Nihoren gañik izatu  
Gabe lehen hastea.

Halaber eztuzu finik  
Nihoiz ere izanen,  
Aitzitik duzu bethiko  
Denboretan iraunen.

Lekhu guztiak ditutzu  
Bethetzen esenziaz,  
Prezenziaz, eta zeure  
Ahal guztiz handiaz.

Zeure zuhurtziaz duzu  
Mundua gobernatzan,  
Non eskas dela deus ere  
Ez baita edireiten.



Karitate bethea da  
Zure bihotz noblea,  
Ezen zeure karguz hartzen  
Duzu belatx kumea.

Bidegaberik eztuzu  
Nihola ere laudatzen,  
Aitzitik zuzena duzu  
Gehienik prezatzen.

Fiñean ezta aurkhitzen  
Onik kreaturretan,  
Non perfektkiago aurkhi  
Eztadin zure baithan.

Arren bada perfekzione  
Guztien itsasoa,  
Zaren bethi ene iabe  
Eta habe sendoa.

**Hirurtasunaren orenak asteartekotz  
eta Trinitate Sainduaren igandekotz**

Hirurtasua, zure tuk  
Erran gogo orenak,  
Arren entzun tzatzu othoitz  
Bekhatoresarenak.

Aita Seme Espiritu  
Batzarre sakratua,  
Zuez osatzen da korte  
Sainduko konseillua.

Hiru presuna zarete  
Baña Iainko bat xollki,  
Zain, ondo, eta adarrak  
Nola zuhaitz bat bethi.

Zuetarik bakhotxa da  
Zuhur eta iakintsu,  
Bata berzea bezanbat  
Handi eta indarsu.

Merezi onez zaituzte  
Aingeruek laudatzen  
Saindu, saindu, eta saindu  
Darotzuela kontatzen.

Gu ere orobat gare  
Egitera tenitu,  
Zeren baitugu ontasun  
Asko errezebitu.

Ezen zuk gaituzu, Aita  
Athera ezteusetik,  
Eta zuk semea geure  
Libratu e[...].tik.

Zuk berriz santifikatu  
Gaitutzu espiritua,  
Zordun gare laudatzera  
Zuen billkhu saindua.

O Hirurtasun mundua  
Faboratzen duzuna,  
Arren iguzu fabore  
Bethi eskas duguna.

**Iainko Aitaren orenak.  
Asteazkenekotz**

Iainko Aita, laudatzera  
Noa zure izena,  
Adizazu othoi ene  
Ahaire kantarena.



Zazpi egunez zinduen  
Egin mundu osoa,  
Astelehenena zeru,  
Lur eta itsasoa.

Asteartean halaber hats  
Ahatzeko airea,  
Gero zeruaren kontra  
Den su berotzaillea.

Asteazkenean lurra  
Zinduen berregindu,  
Belhar eta zuhaitz ferdez  
Hartarakotz bestitu.

Orzegunean zintuen  
Bitztu argizagiak,  
Iguzki illhargi eta  
Argizagi guztiak.

Orziralean zinduen  
Itsasora behatu,  
Eta igerikalari  
Arrañak han formatu.

Egun berean zintuen  
Kreatu hegatziañak,  
Zein zeni bere motazko  
Emanik kanta ariñak.

Larunbatean zintuen  
Modatu lar abreak,  
Eta Adan eta Eba  
Buruzagi gureak.

Gauza hauk zintuenean  
Sei eginez obratu,  
Gero iuduen igande  
Egunean pausatu.

Arren bada Iainko Aita  
Gauzen kreatora,  
Fabora nazazu nola  
Burasoak umea.

**Iainko Semearen orenak orzegunekotz  
eta haren besta guztietakotz**

Iainko Seme, ene gatik  
Gizon egin zinena,  
Ezin bihur diezakezun  
Laurdoro zuzena.

Gizonaren obra gabe  
Zu konzebitu zinen,  
Eta eguberri gauean,  
Betleenen sorthu ziñen.

Zortzigarren egunean  
Ziñen zirkunzifatu,  
Handik sarri erregeek  
Humillki adoratu.

Iaioz geroztik berrogoi  
Egun batenburuan,  
Burasoek presentatu  
Zinitzuten tenpluan.

Handitu eta iuduak  
Zitzaikitzen bekhaiztu,  
Inbidiaz zinitzuten  
Gurutzera altxatu.

Hilltzeko besperan egin  
Zinduen othuruntza,  
Apostoluei ianhari  
Eman zeure gorputza.



Bazko egunean bitztu  
Ziñen hillen artetik,  
Zeruetako bidea  
Arimei libraturik.

Salbatore egunean  
Igan zinen zerura,  
Iuiatzerat ethorriko  
Zare berriz mundura.

O Iainko Semea, arren  
Aitaren aitziañean,  
Zaren ene ararteko  
Herstura, eta menean.

**Espiritu Sainduaren orenak,  
orziralekotz eta Pentekoste egunekotz**

Espiritu Saindua, zure  
Aiphatzen tut orenak,  
Arren entzuntzatzu ene  
Suspira eta auhenak.

O amudio saindua  
Zure da ethorkia,  
Aita eta Semearen  
Baitharik ethorria.

Karitate handiz zare  
Gure gana bethea,  
Zuk bidaltzen darokuzu  
Premian faborea.

Gure bihotz tristeak zuk  
Dituztzu konsolatzen,  
Izieldura handitan zuk  
Kharrez animatzen.

Hala amimatu zintuen  
Apostolu sainduak,

Hala martir iauan gatik  
Bizia fiñatuak.

Zuk halaber eskolatzan  
Duzu garu mihia,  
Errege eta prinzei  
Nola ihardats egia.

Zure baitharik ditugu  
Zazpi dohain hautuak.  
Zure baitharik hamabi  
Pare gabe fruituak.

Elizama sainduaren  
Zu zare pillotua,  
Zu kristau debot guztena  
Habe, eta sustengua.

Arren bada Espiritu  
Amudios bethea,  
Idukazu ene gana  
Zeure karitatea.

**Ama Birjinaren orenak larunbatekotz  
eta haren besta guztietakotz**

O Birjina bekatore  
Guztien faborea,  
Adizazu, othoi zeure  
Orenen ahairea.

O Iongaoikoaren ama  
Zu zeroni bakharrik,  
Gatzatu zinen Adamen  
Falten kutsu gaberik.

Sorthu zinen ekharririk  
Mundura bozkario,  
Zeren zure ganik behar  
Baitzen Mesias iaio.



Burasoek presentatu  
Zinituzten tenpluan,  
Hirur urthe eta erditara  
Heldu zinen orduan.

Handitu eta bihurtu  
Zinen Nazaretheera,  
Harat ethorri zitzaitezun  
Gabriel salutatzeraz.

Handik sarri gero zinen  
Ioan mendiak barrena,  
Ikhustera Elisabeth  
Zeure kusin maitena,

Erdi zinenean egun  
Berrogoien buruan,  
Legearen konplitzeko  
Sarthu zinen tenpluan.

Gero ethorri zinean  
Zure azken orena  
Iauank altxatu zintuen  
Zeuretan barrena.

Arren bada Semearen  
Eskuñean zaudena,  
Haren gana zaren ene  
Ararteko lehena.

**Aphaiz sailduen orenak  
hekien bestetakotz**

O aphez saildua, zure  
Kantatzen tut orenak,  
Arren entzun tzatzu koplaz  
Zeure debotarenak.

Ordena sailduaz elizak  
Zinituen sakratu,  
Eta aldarera ohore  
Handirekin gidatu.

Egun oro Iainko oan  
Zuk zinduen laudatzen,  
Orenak bere mugetan  
Debozinez arraten.

Meza zinduen halaber  
Zebratzen saildua,  
Hartzaz gizonei baketzen  
Iainko aserratuaz.

Egin eta elizako  
Zeure eginbidea,  
Estudioan egoten  
Ohi zinen gordea.

Jende artera noiz ere gero  
Illkhitzen baitzinen  
Exenplu ona guztiei  
Zinaroen ematen.

Guztiz probeen aldera  
Zinduen bihotz bera,  
Eta lazeriatuak  
Bizi zirenera.

Fiñean haran hunetan  
Bizi zinen artean,  
Señalatu ziñen nola  
Holtzadarra airean.

Arren bada aphez debot  
Birtuteen miraila,  
Zeuretan zaren ene  
Ararteko leiala.



## Pasione edo gurutzearen orenak

Pasionearen noa  
Kantatzera orenak,  
Iesu Kristo entzun tzatzu  
Ene triste auhenak.

Eta dietzakidatzu  
Barkha neure hobenak,  
Digne kiago detzadan  
Aipha haren onenak.

1. Matutian gau erditsu  
Ingurutan hartua,  
Aitaren zuhurtzia eta  
Egia ezagutua.

Dizipulu propioek  
Etsaiei largatua,  
Eta diruz erosirik  
Iuduek penatua.

Indazu zure ondotik  
Ibilltzeko donua,  
Bistatik zu galdu gabe  
Salbatzaille iustua.

2. Priman argitu zenean  
Iujearen etxera,  
Ioan zintzuten lekhukoez  
Gaizki akusatzer.

Bi eskuak gibelean  
Lothurik zehatzera,  
Eta bisaia ederra  
Thuka despistatzera.

Iesus Kristo khexa zaitte  
Ene faboratzea,  
Eta bekhatuen gathe  
Loditik libratzera.

3. Tertia da bederatzi  
Ore dehadarrari,  
Eman zioten zu itza  
Zinakizkon zurarik.

Treina ederrak ziotzoten  
Iauntzi zure soñari,  
Bai arentzeko khoroa  
Buru sakratuari.

Dohain egidazu arren  
Batre afruntuari,  
Ez narraion zu bezala  
Bañan sofritzeari.

4. Sextan hamabi orenetan  
Zintuzten gurutzatu,  
Eta aihetseko ohoñ  
Bien pare iujiatu.

Egarria zerotzuten  
Khelder minez hezatu,  
Bekhatuaren khentzaillea  
Hala zinen tratatu.

Hala mundu banoaren  
Plazerez zu burlatu,  
Hek berek mesprezatzeko  
Dohaña egidazu.

5. Nonan hirur orenetan  
Zeure Aitari arima,  
Errendatu zinioen  
Hau zen bada lastima.



Lanza erdiratu zuen  
Saihets iustuarena,  
Lurra khiritu zen eta  
Gau billhatu eguna.

Argiarekin obratzen  
Zuk duzu gau belzena.  
Dohain egidatzu arren  
Fiñon baten orena.

6. Bezperetan zinituzen  
Irutsi gurutzetik,  
Ioseph Arimathiarra  
Konjia eskaturik.

Bizai emaillea hala  
Zu ioan zinen mundutik,  
Eta gero ahoz gora  
Ego sorho gañetik.

Zure gorputzaz izan zen  
Artha hillez geroztik,  
Arren eneaz ere duen  
Norbaitek hill ondotik.

7. Konpletetan aromatez  
Gantzaturik hobira,  
Ioseph eta Nikodemek  
Eman zuten berrira.

Orduan zen egitan  
Frogatu eskritura,  
Historia aiphatzean  
Nok eztuke latztura.

Berzekin diezadzu  
Ontsasun hau begira,  
Ene gorputza altxa dadin  
Eliza illharrira.

Zure pasionearen  
Kantatu tut orenak,  
Iesus Kristo entzun tzatzu  
Ene hats beherenak,

Eta dietzakidatzu  
Barkha neure hobenak,  
Goza detzadan ontasun  
Zure hilltzearenak.



## V. ANDRE DENA MARIAREN ALDERAKO DEBOZIONEA

### I. burua

*Andre dena Mariaren ofizioa matutinetan*

*Ave Maria, etc.  
Agur Maria.*

*Deus in auditorium.*

Iainko ona duzun  
Artha ene fabortzeaz,  
Eta bihotzean khexa  
Penatik libratzeaz.

*Gloria Patri.*

Gloria Aita Seme eta  
Espiritu Sainduari,  
Lehen zen, orainden eta,  
Bethi izanen denari.

Agur Maria zeruko  
Garaziez bethea,  
Ezen zurekin da Iainko  
Gure salbatzaillea.

*Venite exultemus.*

Zatozte jende prestuak, pag.

### Himnus edo kanta

1. Zeru lurrik ohoratzen  
Dutena eta laudatzen,

Birjina amak sabelean  
Ekharri zuen berean.

2. Iguzki eta illhargiek  
Eta berze kreaturek,  
Dutena aldiz zerbitzatzen  
Birjina ganik sorthu zen.

3. Ama guztiz dohatsua  
Iongoikoak hautatu,  
Mundua egin zuena  
Ekharri duzu Iaun ona.

4. Zu zerutik bidalduak  
Zintuen arkanjeluak,  
Deithu zori onezkoa  
Birjina gloriosoa.

Zuk konzebitu zinduen  
Eta zuer ganik iaio zen,  
Salbatzaille agindua  
Jendeek desiratua.

Gloria Iaun ona zuri  
Birjinatik sorthuari,  
Aita eta Espirituari  
Orobat gloria bethi.

\* \* \*

Benedikatua zare  
Emazteen artean,  
Halaber zure semea  
Gizon guztien gañean.

\* \* \*

1. O gure Iaun berze guztien  
Buruzagi lehena,





Ala miragarri baita  
Lurrean zure izena.

2. Ezen zure handitasun  
Parerik eztuenak,  
Xitzen ditu zerue eta  
Argizagi gorenak.

3. Haur dithikoez hargatik  
Zu zaituzte laudatzen,  
Baita zergatik dituzun  
Zeureak begiratzen.

Zeren hekien etsaiak  
Behertzen dituzun,  
Eta kekien gañean  
Bengantza hartzen duzun.

4. Bañan nik zaitut Iaun ona  
Laudatzen bereziki,  
Zergatik ditudan zure  
Erhien obrak ikhusi.

Zeru eder zuk hain gora  
Arrimatu horiok,  
Illhargia eta izar  
Berze xehe guztiok.

5. Guztiz ere Iainko ona  
Nik zu zaitut laudatzen  
Zergatik gizona duzun  
Hainberze handietsten.

Eta zergatik dituzun  
Bethiere zeureak,  
Haren gañean begiak  
Zabal eta erneak.

6. Ezen eztuzu hanitzez  
Aingeru oñak baño,

Beherago egin eta ez  
Hanitzez gutiago.

Ohore eman diozu  
Kreaturen artean,  
Eta buruzagi egin  
Zeure obren gañean.

7. Haren oñaren azpiko  
Egin tutzu ardiak,  
Idiak eta larreko  
Berze abre guztiak.

8. Halaber egin dituztu  
Aireko hegatztiñak,  
Nola oraño itsasoko  
Igelduri arranak.

Hargatik zaitut Iaun ona  
Bethiere laudatzen,  
Eta hargatik biziko  
Eginetan erranen.

9. Gure Iaun berze guztien  
Buruzagi lehena,  
Ala miragarri baita  
Lurrean zure izena.

*Gloria, etc.*

### **Antiphona**

O Iongoikoaren ama nola  
Mira hoberenak,  
Bazterretara banatu  
Dituztu usain onak.

*Caeli enarrant. Psal. 18.*



1. Zeruek dute Iaunarren  
Deklaratzen gloria,  
Eta izargorek haren  
Eskuaren aldia.

2. Egun arraitusak ere  
Orobat du egiten,  
Gau illhunak ere orobat  
Hura bera egiten.

3. Mihirik eztute bañan  
Aski adiarazitzen,  
Iongoikoaren gloria  
Ea zein handia den.

4. Hekien boz ixilla da  
Banatzen urrutira,  
Hekien hitza hedatzen  
Mundu herri guztira.

5. Iguzki arraitsuan du  
Iaun hark bere egoitza,  
Hain ederra nola espos  
Berriaren etzantza.

Handik darozu guardia  
Lurrekoei egiten,  
Ea haren faboreen  
Noiz behartuko garen.

6. Orduan laster iautsten da  
Zeruaren gañetik,  
Jigant indarsua nola gu  
Faboratzeagatik.

7. Gero berriz itzultzen da  
Zeruaren gañera,  
Ohi nola gure gañean  
Guardia egitera,

Eta hala bethi gaitu  
Guztiok faboratzen,  
Nola baikaitu guztiok  
Iguzkiak berotzen.

8. Haren ordenantzak dire  
Garbik eta onak,  
Zeñek baitituzte onera  
Erakhartzen gizonak.

Ezen haren hitzak dire  
Guztiz egiazkoak,  
Errendatzen dituztela  
Kuñat haur ttipittoak.

9. Harena ere bethi da  
Iustizia zuzena  
Alegeratzen duena  
Gogo triste duena.

Haren manuak halaber  
Ohi dire argiak,  
Ezen argitzen dituzte  
Arimaren begiak.

10. Hargatik da bada gauza  
Zuzen eta bidea,  
Bihotzean bethi haren  
Beldurra izatea.

Ezen hare hitzak dire  
Guztiz egiazkoak,  
Eta frogatuak bethi  
Direla halakoak.

11. Urrea baño dirade  
Desiratzekoago  
Eta kofoneko eztia  
Baño are eztiago.



12. Hargatik neure ahalaz  
Guardatu nahi ditu,  
Golardo handia zeren  
Hetarik uste baitut.

13. Bañan Iauna arren othoi  
Leheneko gaizkiak,  
Barkha dietzakidatzu  
Gutziz ere ehortziak.

Barkha dietzakidatzu  
Berzeri eragiñak  
Hetzaz ahalki eztuen  
Nonbait ene arimak.

14. Baldin badarozkidatzu  
Iaun ona hek barkhatzen,  
Eta gehiago ez bazait  
Berze faltarik iauntzen.

Orduan da guztiz ene  
Arima xahutuko.  
Orduan ene bihotza  
Gutziz konsolatuko.

15. Orduan darotzut esker  
Handia itzuliko,  
Orduen ene hitzetan  
Duzu plazer hartuko.

16. Arren bada Iainko ene  
Habe eta iabea,  
Zuk aithor diezadzu  
Arren neure galdea.

*Gloria, etc.*

### Antiphona

Birjina sakratu hunen  
Ohearen aitziañean,  
Koplak kanta etzatzue  
Aheri ederrean.

*Domini est terra, Psal. 23.*

1. Munduko bazter guztiak  
Dire Iaun onarenak,  
Han bizi diren guztiak  
Ere orobat harenak.

2. Ezen hark zuen lehorra  
Gogorki zimendatu,  
Itsasoarn gañean hark  
Ungi eskoratu.

3. Hark orobat egin zuen  
Zeru izarratua,  
Zeña baita haren mendi  
Eta etxe saildua.

Ordean edozein ezta  
Mendi hartara iganen,  
Edozein ezta iauregi  
Eder haran sarthuren.

4. Bañan sarthuko dirade  
Esku hoben gabeak,  
Eta bihotz xahu eta  
Malezia gabeak.

Zeñak ez baitire bere  
Ungi egiñez bantatzen,  
Eta ez lagunaren kontre  
Zin falsorik egiten.



5. Hek sarthuko dire Iainko  
Handiaren etxean,  
Hei faboreak eginen  
Zaizte haren kortean.

6. Ezen hek ibilltze dire  
Haren billha mundua,  
Hek gozagu behar dute  
Haren bistaz zeruan.

7. Iauregi saindu hartara  
Hurbilltzen direnen,  
Aingeru onek dituzte  
Gidatuko airean.

Hunela zaizte aingeru  
Muntzatuko lagunei,  
Zeruetako athetan  
Guardian daudezenei.

O aingeru Iaun onaren  
Guardia saindukoak,  
Ideki tzatzue athe  
Nausi zerukoak.

Ezen huna non heldu den  
Gloriazko erregea,  
Biktoria handi eta  
Triunfa handiz bethea.

8. Barreneko aingeruek  
Daroe ihardatsiko,  
Zein diozue lagunak  
Errege gloriatzko.

Berzeek ihardatsiko  
Deroe berehala,  
Iaun guztiz sendo bat zeñen  
Indar eta ahala.

Hagitz señalatu baita,  
Munduko konbatean,  
Noiz ere gerthatu baita  
Bere etsaien artean.

9. Ideki zazue laster  
Urrezko portalea,  
Ezen sartzeko heldu da  
Gloriazko erregea.

10. Aingeru barrenekoen  
Berriz ihardatsiko,  
Zein errege diozue  
Dagoela sartzeko.

Berzeek ihardatsiiko  
Gloriazko erregea,  
Ezen gloriatzko errege da  
Berthuten iabea.

*Gloria etc.*

Birjina sakratu hunen, etc. pag.

—Zure ezpain ederretan da grazia banatua.

**Ihardts.**

—Hargatik izatu zare Iaun onaz hautatua.

Gure Aita zeruetan, etc.

*Baraxe erraten da.*

Eztezazula permeti  
Tenta gaiten borthizki.  
Bañan gaitzatuz kaltetik  
Hastanduak iduki.



## Abzolutioea

Ama birjinaren othoitz  
Eta merezitara,  
Halaber oraño saindu  
Dohatsuenetara.

Zeruko erresumara  
Iainko podorosak,  
Gida gaitzala gu erbal  
Eta guztiz flakoak.

*Hala biz*

—Mana zazu Iauna arren benedika gaitezen.

## Benedikzioea

—Birjinak semearekin egin gaitzala arren.

*Hala biz*

### I. lektioea

Eccl. 24.

Gauza guztien gañetik errepausua billhatu dut, hargatik esparantza dut, egonen naizela Iaunaren primezan ezen, manatu ninduen, eta erran zerotan, guztien kreatzailleak, eta ni kreatu ninduenak, pausa zak ene etxean.

Erran zerotan gehiago, Ago Iakobenean, ago han nola heure primezan etxatzak heure erroak ene jende hautuaren artean, Nauzun bada Iauna arren urrikari, Iainkoari esker.

### 1. ihardetstea

Eztakit zu nola lauda  
O birjina garbia,

Ezne eskasa da  
Ene ahalegin guztia,

Zeren ekharri baituzu  
Iaun guztien gorena,  
Zerek berek iduki  
Ezin zezaketena.

Benedikatua zare  
Emazteen artean,  
Benedikatua zure  
Semea gizartean.

### Ihard.

Zeren egarri baituzu  
Iaun guztien gorena,  
Zeurek berek iduki  
Ezin zezaketena.

—Mana zazu Iauna arren benedika gaitezen.

### 1. benedikzioea

Birjina ararteko on gertha dakigula arren.

### 2. lekzioea

Eta hala Sionen gelditu naiz, eta hiri sainduan pausatu dut. Orain Hierusalamen da ene puxantza ezen erroak etxatu ditut jende ohorezkoan, eta Iainkoaren onetan da ene primeza, eta sainduen bethetasunean ene egoitza. Nauzun bada Iauna urrikari. Iainkoari esker.

### 2. ihardatstea

Zorionezkoa zare  
O birjina noblea,  
Eta laudorio eman  
Hala guztiz dignea.



Zeren zure gani sorthu  
Baita geure Iainko,  
Iesus Kristo iustiziaren  
Iguzki egiazkoa.

Zuk othoitz egizu arren  
Poblu guztiarentzat,  
Bañan guztiz ere egizu  
Eliza gizonentzat.

Zaren othoi ararteko  
Emazte debotentzat,  
Zure faboreak senti  
Hek ere detzatentzat.

Fiñean zaren zeruan  
Ararteko guztien,  
Zeñek egiten gaitute  
Egun zure orhoitzapen.

### **Ihardats.**

Zeren zure ganik sorthu  
Baita gure Iainkoa,  
Iesus Kristo iustiziaren  
Iguzki egiazkoa.

—Iauna mana zazu arren benedika gitezen.

### **2. benedikzioea**

Birjinaren bitartez  
Gure Iaun onak arren,  
Salba gaitzala, bakea  
Eta digula hemen.

### **3. lekzioea**

Altxatu naiz, Liango mendian, zedroa bezala, eta Sionen alzfrea bazala, Cadesen palma bezala Hierikon arrosa landarea bezala, oliba ederra zelhaietan bezala, eta zuhaitza uraren bazterrean bezala. Usain onak emean ditut zinamomak eta balsamu usain onekoak bezala, eta mirrha hautuak bezala. Gaitutzun bada urrikari arren Iaun ona, Iainkoari esker.

*Te Deum laud mu..*

Zu zaitugu Ingoikoa pag.

### **Laudetako himnua edo kanta**

*O gloriosa Domina.*

O andre gloriosoa  
Zeruez goragokoa,  
Zintuenari kreatu  
Bulharra eman diozu.

Ebak zerokuna khendu  
Zuk darokuzu bihurtu,  
Eta zeruan sartzeko  
Zu egin zaizkigu leiho.

O erregeren athea  
Arraitasunez bethea,  
Mundu guztia behar du  
Zu zarela kausa boztu.

Zere dihotzun bizia  
Itzularazi etsia  
Eta ideki portalea  
Zeruetako noblea.

Gloria Iaun ona zuri  
Birjinatik sorthuari,  
Aita eta Espirituari  
Orobat gloria bethi.



### Terzia, sexta, nona eta kompletetan

Orhoi zaite Iauna arren nola  
Gure gorputzaren,  
Itxura birjina ganik duzu  
Araitziñadanik.

O Maria graziaren  
Ama eta bihotz beraren,  
Zaudezke gure aldean  
Gure azken orenean.

Etsaia haiza zakezu  
Eta guarda gitzaketzu,  
Eztiezagun kaltetik  
Egin eta dañurik.

Gloria Iaun ona zuri  
Birjinatik sorthuari,  
Aita eta Espirituari  
Orobat gloria handi.

### ANDRE DENA MARIAREN BEZPERAK

*Dixit Dominus*, pag. 305.

*Laudats pueri*, pag. 313.

#### **Erromeria Hierusalamera egin beharraren gañean bozkarioa**

1. Alegeratu naiz neure  
Gogo guztiz tristean,  
Hitz hauk neure beharriz  
Entzun ditudanean.

2. Sarri ioan behar dugula  
Iaun onaren etxera,  
Haren besta saildua ohi  
Nola idukitzera.

Iadanik iduritzen zait  
Hierusalangoetan  
Neure onak ditudala  
Sarthuak bokanetan.

3. Hierusalen handiaren  
Bokana zabaletan,  
Bera baizen eta pare  
Eztuenarenetan.

4. Hara igan ohi dire  
Iaun onaren leñuak,  
Harat hauzo eta ahaide  
Elhar gana billduak.

Haren izen sailduaren  
Debotki laudatzera,  
Eta Israelil egin  
Dohañen aithortzera.



5. Zeren erregeren baita  
Han korte berezia,  
Han Dabiten etxearen  
Iuiatzeko alkhia.

Egin diozogun othoitz  
Guztiok Iaun onari,  
Bethierekko bakea  
Emon Hierusalemi.

Halaber gauza guztien  
Demon abundanzia,  
Eta haren onhetsiei  
Berdineko zoria.

Iainkoak demola indar  
Etsaiei gogortzeko,  
Eta soldatu balenta  
Bere dorretan franko.

Nik behintzat diot milla  
Ontasun desiratzen,  
Zeren haren barrenean  
Ene urkoa diren.

Haren barrenean zeren  
Den Iaunaren etxea  
Zenetan laudatzen baita  
Haren izen noblea.

**Iainkoaren grazia behar dugula,  
gauza guztien gañetik**  
*Nisi Dominus aedificaverit.* Psal. 125.

1. Alferrik munduan hari  
Gare etxe egiten,  
Baldin ezpazaiku Iainko  
Zerukoa laguntzen.

2. Alferrik erne daduka  
Soldaduak begia,  
Baldin ezpadu guardatzen  
Ingoikoak hiria.

3. Alferrik argitu baña  
Lehen gare iaikitzen,  
Eta laferrik gerue ogiak  
Neke handira iaten.

Baldin behin ezpadugu  
Iainkoaren grazia,  
Zerak bedinkatzen baitu  
Zure neke guztia.

Behin ura behar dugu  
Zerutik ardiatsi,  
Eta gero geure neke  
Eta lanetan hasi.

4. Ezen Iainko onak bere  
Maiteek lo dauntzala,  
Onak bidaltzen darote  
Nondik eztakitela.

Ematen darote seme  
Onak bere ondoko,  
Hekin ontasunen primu  
Eta iabe izateko.

5. Gero hek dituzte bere  
Defensa aldaketan,  
Nola balestari onak  
Fletxak bere eskuetan.

6. Dohatsuak dire hañak  
Zeren eta bereak,  
Plazer eta gogarak  
Baitituzte semeak.





Etsaiekin dutenean  
Plazan ihardukitzen,  
Kalte eta ahalkeak,  
Nihoiz eztitu hartzen.

Hala munduan dohatsu  
Izanen da gizona,  
Iainkoaren zeñak baitu  
Izanen dohaiñ ona.

**Bat bedera Iainkoaren  
laudatzera gonbidatzen du**

*Lauda Hierusalem Dominum. Psal. 147.*

1. Lauda zazu Hierusalem  
Zeure Iaun arthatsua,  
Zuk halaber Sion lauda  
Zeure Iainko iustua.

2. Zeren gogortu dituen  
Zure atheen gondeak,  
Eta zure baithan zure  
Sumarazi umeak.

3. Zeren halaber darotzun  
Eman bake luzea,  
Eta ogi onez zure  
Satiatu gosea.

4. Hark lehorra manatzen du  
Ekhar dezan biha,  
Eta berehala haren  
Egiten du nahia.

5. Hark berk estaltzen ditu  
Zelhaiak eta elhur xuriz,  
Hala nola ardianxa  
Mansoak ille guriz.

Hark berak oraño ditu  
Brumak altzarazitzen  
Eta lurraren gañean  
Hautsa legez banatzen.

6. Hark egortzen ditu orma  
Kristala iduriak,  
Hark neguan haize eta  
Hotz ikharagarriak.

7. Aire beroa du gero  
Bere mugan bidaltzen,  
Eta elhur eta ormak  
Uharretan egortzen.

8. Hark deklaratu diotzon  
Bere hitza Iakobi,  
Hark bere lege iustuak  
Israel maiteari.

9. Berzeri eztio egin  
Halako faborerik,  
Ez bere lege sailduen  
Aiphatzeko ohorerik.

**Himnus**

*Ave Maris stella.*

Agur izar nortekoa  
Iaunaren ama mansoa,  
Agur birjin xahua,  
Zeruko athe dohatsua.

Gabrielek salutatu zu  
Zintuen eta deithu,  
Grazia guztiz bethea,  
Iguzu othoi bakea.



Zuk zinduen Ebarena  
Erreparatu hobena,  
Zuk guri libertatea  
Itzularazi geurea.

Zuk diezaguzu lexa  
Hobenen gathe borthitza  
Gibelarazi fortunak  
Eta aitziañ ontasunak.

Erakuts azu zarela  
Ama ona eta fidela,  
Gure ariaz semea  
Duzula othoizten zeurea.

Birjina pare gabea  
Mansoa eta emea,  
Iguzu bihotz emea  
Harekin kastitatea.

Zuk egiguzu grazia  
Biitez dugun garbia,  
Eta bidea segura  
Igan gaitezen zerura.

Han Iesus zure semea  
Ikhus dezagun noblea,  
Eta haren konpanion  
Goza gaitezen glorian.

Laudorio Iainko Aitari  
Orobat Kristo Iaunari,  
Espiritu Sainduari  
Ohore bera hiruri.

*Hala biz*

Magnificat, pag. 325.

*Concede*

Iainko Iauna egiguzu zeure serbitzariei arimaren eta gorputzaren osasunaren gozatzeko faborea: eta ama birjinaren othoizteta, oraingo tristeziatarik libratzekoa eta sekulako bozkariaz halaber gozatzekoa. Iesus Kristo gure Iaun eta zure Seme, zurekin, et Espiritu Sainduarekin, bethi bizi eta agintzen duenaren, merezieta. Hala biz.

## II. burua

*Andre dena Mariaren litaniak.*

Iauna urrikal, gakizkitzu Kristo urrikal gakizkitzu.

Iauna urrikal gakizkitu. Kristo adi gaitzatu.

Kristo entzun gaitzatu.

Iainko Aita zeruetakoa, urrikal gakizkitzu.

Seme munduaren erostzaillea, urrikal gakizkituz Iainko Espiritu Saindua urrikal gakizkitzu.

Mira saindua gutzaz othoitz egizu Iainkoaren ama saindua.

Gutzaz othoitz egizu Iainkoaren ama saindua gutzaz othoitz eguzu.

Eta hala berze guztietan birjinen birjina saindua Kristoaren ama iainkaren graziaren ama,

ama kastoa,

ama xahua,

ama huts egin gabea,

ama ahalketsua,

ama maitatzekoa,

ama miragarria,

kreatzaileren ama,

salbatzaillearen ama,

Birjina begiratu,

Birjina ohoratzekoa,

Birjina famatzekoa,

Birjina ahal handitakoa,

Birjina mansoa,

Birjina leiala,

saindutasunaren miraila,

zuhurtziaren kadira,

gure bozkarioen kausa,



untzi espiritual,  
ohorezko untzia,  
usain onetako arrosa,  
Dabiten dorrea,  
urrezko etxea,  
akorduaren arka,  
zeruko athea,  
artizar goiztiarra,  
errien osasuna,  
bekhatoreen ihes lekhua,  
penatuen konsolatzalea,  
girstinoen faborea,  
aingeruen erregiña,  
profeten erregiña,  
apostoluen erregiña,  
martiren erregiña,  
konfesoren erregiña,  
birjinen erregiña,  
saindu guztien erregiña.  
Bekhatores handiok zu othoizten zaitugu, arren entzun gaitzatu.  
Egiazko urrikimendua ardiats diezaguzu, zu othoizten zaitugu, arren entzun gaitzazu.

*Eta hala ihardatsi behar da berzetan.*

Eliza sailduari eta girstino poblu guztiari, bakea eta batasuna ardiats diozozun.

Gure Aita Saindu zeure zerbitzari. I. Eta gure prelatei eta eliza guztiarei Iainkoaren graziaren airea ardiats diezezun.

Gure errege I. Eta girstino prinze guztiei bakea eta osasuna ardiats diezazun heretikoen eta gure etsaien beheramendua ardiats dezazun.

Fidelen arima ioan guztiei bethiereko, errepausua ardiats diezazun.

Arren entzun gaitzatzun Iainkoaren ama.

Iainkoaren bildots munduaren bekhatuen kentzaillea.

Barkha diezaguzu.

Iainkoaren bildots munduaren bekhatuen kentzaillea.

Urrikal gakizkitzu.

Kristo adi gaitzatu.

Kristo entzun gaitzatu.

Iauna urrikal gakizkitzu. Kristo urrikal gakizkitzu.

Iauna urrikal gakizkitzu.

## Othoizta

O Birjina izen goiti  
Hautzaz ohoratua,  
Urrikal begizu gure  
Auhentz suspiratsua.

Lastimetan zure gana  
Heldu gare ihesi,  
Arren bada zaren gure  
Ararteko hautetsi.

Eta seme maitearen  
Ganik othoi graziak  
Ardiats dietzagutzu  
Eskaz tugun guztiak.

Badakizu galdegiten  
Hari diotzatzunak,  
Aithortuak.  
Bereala ontasunak.

Arren bada andre kredit  
Gutziz handitakoa,  
Ardiats diezaguzu,  
Fabore menekoa.

## III. burua

*Andre dena Mariaren arrosarioa*

### Arrosarioaren aitzinean errateko othoizta

Birjina arrosarioaz  
Agradatzen zarena,  
Agrada bekizu ene  
Bekhatoresarena.



Iongoiko andiak zuen  
Lurra lorez bistatu,  
Eta arrosa hekien  
Erregiña kreatu.

Haren izenaz elizak  
Othoitz hau deithu zuen  
Zeren lore eder haren  
Idurra baitzuen.

Hirur gauza ohi tugu  
Arrosetan miretsi,  
Osto arantze lorea  
Hirurak eder etsi.

Osto ferdea da gozo  
Onaren señaleara,  
Kolore handiarena  
Halaber arantzea.

Loreak erran nahi du  
Ohore eta gloria,  
Lore guztietan zeren  
Baita miragarria.

O birjina zure seme  
Onaren bizitzetik,  
Arrosarioa illkhitzen  
Da nola arrosatik.

Hirur partetan berezten  
Da behin gozosoan,  
Gero gloriosoan eta  
Fiñean dolorosoan.

Gozosoak deklaritzen  
Ditu misterioak,  
Gozo eta bozkario  
Guztiz handitakoak.

Dolorosoak halaber  
Gauza oñhazezkoak,  
Fiñean gloriosoak  
Triunfa handizkoak.

Hirur gauza hauk bihotzu  
Zerotzuten ukitu,  
Zure seme onari noz  
Baitzitzaiko gerthatu.

Hala ditugu guk ere  
Gauza berak sentitzen,  
Noiz ere baitugu hekin  
Orhoitzapen egiten.

Arren bada o birjina  
Sakratu geuretan,  
Zu iguzu sentimendu  
Aski bihotz hotzetan.

Egiten tugun othoitzak  
Gauza hekin gañean,  
Errezibi tzatzu othoi  
Arrosaren parean.

Edo ezperan Dabiten  
Saluterioaren,  
Zeñen harmonia baitzen  
Zeruraño igaten.

Fiñean zer ere baitugu  
Kontenplätzen lurrean,  
Egikeguzu grazia  
Gozatzeko zeruan.

### **Arrosarioa bera**

Birjina zure kantatzen  
Dut arrosarioa,



Misterio guztiz ede  
Eta handitakoa,  
Zuk indazu aire ungi  
Haren kantatzekoa.

### Hamabortz misterioak

Hauk dire bada hamaborzt  
Misterio sainduak,  
Zeñez izan baitzintuen  
Handi sentimenduak.  
Ardiats dietzadatu  
Othoi hekin fruituak.

### Misterio gozosoak

O Birjina misterio  
Saindu hatzaz boztua,  
Hautzaz halaber bozteko  
Egiguzu donua.  
Zure gozoetan naizen  
Ni ere gozatua.

1. Birjina saindua hagitz  
Zinen alegeratu,  
Zintuenean Gabriel  
Leialak salutatu,  
Bozkario sainduz ene  
Bihotza bethe zazu.

2. Halaber hartu zinduen  
Atsegin bihotzean,  
Zeure kusin Elisabetht  
Sendorik ikhustean,  
Zuk indazu bihotz bera  
Beharraren gañean.

3. Bañan are gehiago  
Plazer hartu zinduen,

Zeure seme ederraz noiz  
Ere erdi baitzinen,  
Egiteko obra onen.

4. Berretu ete zitzaizun  
Zeure bozkarioa,  
Tenplura zinduanean  
Presentatu haurtxoa,  
Zure ofrendatzen darotzatu  
Neure bihotz osoa.

5. Baita alegeranziara  
Tristezia bihurtu,  
Desputan zinduenean  
Dotorekin aurkhitu,  
Grazaiaren aurkhitzeo  
Dohaña egidazu.

O Birjina garbia auk  
Dire misterioak  
Zeñez izan baitzintuen  
Bihotzean gozoak,  
Orain aldez entzun tzatzu  
Arren dolorosoak.

### Misterio dolorosoak

O Birjina misterio  
Hautzaz doloratua,  
Hauk, berez doloratzeko  
Egidatzu donua,  
Zure doloretan naizen  
Ni ere sentitua.

1. Dolore handi zinduen  
Sentitu bihotzean,  
Zure semea Iuduek  
Preso ermataan,  
Indazu othoi dolore  
Kaptibuen gañean.



2. Bañan are guxiago  
Zinduen damu hartu,  
Azote kolpez burreuek  
Zutenean larrutu,  
Doloratuen gañean  
Sentimendu indazu.

3. Laurgitu ere zitzaitzun  
Zeure bihotz mansoa,  
Burura ziotenean,  
Elhorrizko khoroa,  
Indazu damu lagunak  
Sofritzean laidoa.

4. Bañan zer pena zinduen  
Zeure baithan sentitu,  
Zinduenan gurutze  
Pisuarekin bathu,  
Ustekabeko plagatik,  
Arren guarda nazazu.

5. Ea zein zen ezin  
Gineraki damua,  
Ikhusi zinduenean  
Habean itzatua  
Ardiats diezadazu  
Bekhatuen dolua.

O Birjina saindua  
Hauk dire misterioak  
Zeñez izan baitzintuen  
Pena eta ondikoak,  
Orain erratera noa  
Gloria handizkoak.

### **Misterio gloriosoak**

O Birjina misterio  
Hautzaz gloriatua,

Hauk berez gloriatzeko  
Egidazu donua,  
Zure glorieta naizen  
Ni ere balsatua.

1. O andrea gloriatu  
Zinen zure semea,  
Bitztu zenean triunfa  
Gutziz handiz bethea.  
Bekhatutik altxatzeko  
Egidazu faborea.

2. Gloria hur zitzaitzun,  
Gehiago berretu,  
Zeruetara zeñean  
Triunfantki altxatu,  
Hara igateko dohaña  
Ardiats diezadatzu.

3. Gehiago gloriatu  
Ziñen andre hautua,  
Zerutik iautsi zenean  
Espiritu Saindua,  
Ardiats diezadazu  
Othoi haren donua.

4. Bañan nork erran lezake  
Ea zein zentz handia,  
Zeuretara zerori  
Igatean gloria,  
Egikedazu han zure  
Ikhusteko grazia.

5. Fiñean zure ohoreen  
Izan zen azken fiña,  
Khoroa ziñenean  
Zeruko erregiña,  
Zuk egidazu gloriáz  
Gozatzeko dohaña.



O Birjina saindu hau da  
Zure arrosarioa,  
Arren errezibi zazu  
Ene laudorioa,  
Eta zeruan zakizkit  
Gertha arartekoa.

*Haukin ondoan erratzakitzu Pater Noster,  
eta Ave Maria, edo arrosario osokoak, edo partekoak,  
astia dukezu bezala, eta gero errekezu othoitz hau.*

O Birjina, arren ene  
Salutazioneak,  
Gabrielen errezibi  
Izatu othoi pareak.

Eta ordañetan penan  
Ikhusten nauzunean,  
Faboratzeko zakizkit  
Aurkhi hurbill aldean.

#### **IV. burua**

*Andre dena Mariaren khoroa handia.*

##### **Khoroa handiaren aitziñean errateko othoitzza**

O Birjina emakume  
Guztietako hautua,  
Eta berthute guztien  
Mirail eta exenplua.

Hirur ogoi eta hirur  
Urthez zinen munduan,  
Bizi izatu Nazareth  
Hiritxo ospatuan.

Alabañan zure urthe  
Eta egun guztiak,  
Izan ziren itsasoko  
Perla bezain garbiak.

Hetzaz egina da zure  
Khoroa handiena.  
Sei ederrenen ditu xollki  
Egiten aiphamena.

Zure khoroa hek dute  
Gehienik bistatzen.  
Hek gehienik berzeren  
Artean distiatzen.

Arren bada argi zazu  
Hetzaz ene bizia,  
Basa ez nadintzat nola  
Oihanean ardia.

Zeruan darotzut esker  
Ordaña itzuliko  
Eta lurrenan khoroa  
Zurea kantatuko.

##### **Andre dena Mariaren khoroa handia**

O Birjina kantatzera  
Noa zure khoroa,  
Hirur ogoi eta hirur  
Perla ederrezkoa,  
Zuk indazu aire haren  
Ungi kantatzekoa.

##### **Andre dena Mariaren khoroa andiaren sei misterio prinzipalak**

O Maria berthutetan  
Haur danik trebatua,



Hetan trebanzeko ardiats  
Diezadazu donua,  
Zure exenpluaz den ene  
Bizia argitua.

1. Birjina pare gabea  
Buraso saildutarik  
Sorthu zinen aitzinietik  
Profetek kantaturik,  
Indazu zure digneki  
Laudatzeko dohanik.

2. Egin zinduen birjina  
Bizitzeko botua,  
Eta bethi hura iduki  
Sainduki guardatua  
Egidazu neure botuen  
Guardatzeko donua.

3. Inongoiko Aita zen zure  
Biziaz agradatu,  
Semearen amatzat zu  
Harengatik hautatu,  
Zeure zerbitzo sailduko  
Arren hauta nazazu.

4. Semea zinduen artha  
Handiarekin hazi,  
Pena eta doloretan  
Bethi ondotik iarraiki,  
Zuk egidazu grazia  
Iarrikiteko hari.

5. Zeruetara halaber  
Noiz ere igan baitzen,  
Azkeneko partidan  
Hurbill ediren zinen,  
Ardiats diezadazu  
Karitatea arren.

6. Fiñean hirur hogoi eta  
Hirur urthe munduan,  
Egotu eta zerura  
Igan zinen, orduan,  
Egidazu grazia zeure  
Ikhusteko tronuan.

O Birjin sakratua  
Hau da zure khoroa,  
Hirur ogoi eta hirur  
Perla ederrezkoa,  
Arren errezibi zazu  
Ene laudorioa,  
Eta zeruan zakizkit  
Gertha arartekoa.

*Haukin ondoan, errazitzu sei Pater Noster,  
eta hirur ogoi eta hirur Ave Maria, eta gero errakezu.*

O Birjina arren ene salutazioneak, pag. 493.

## V. burua

*Andre dena Mariaren khoroa ttipia*

### Andre dena Mariaren khoroa ttipiaren aitzinean errateko othoitza

O Birjina sakratua  
Zure saildu khorook,  
Ene ganik ezin tuzke  
Behar laudorioak.

Hamabi diamant harri  
Ederrez da egiña,  
Berze khoroa guztien  
Gañetik berrekina.





Hirurtasun sakratuan  
Den presuna bakhotxak,  
Bere partez eman ziotzon  
Lau harri baliosak.

Distiatzen dute nola  
Gauaz harri biziek,  
Edo zero illhunean  
Nola izar argiek.

Baten ere aiphatzeko  
Eztut xahu ahoa,  
Zeren baitut bekhatu  
Ahal urrin gaixtoa.

Gutziz illhun liezeke  
Ere klaritatea,  
Nola hatsak kristalezko  
Miraillari berea.

Hartarakotz zu zakizkit  
Semea gana balia,  
Barkha diezadan neure  
Kalten nonbre handia.

Orduan xahutuko da  
Gutziz ene ahoa,  
Eta adituko duzu  
Ene laudorioa.

### **Andre dena Mariaren khoroa ttipia**

O Birjina kontatzera  
Noa zure khoroa  
Hamabi diamant harri  
Gutziz ederrezkoa  
Zuk indazu aire haren  
Ungi kantatzekoa.

### **Andre dena Mariaren hamabi pribilejioak**

Hauk dire hamabi guztiz  
Preziatu harriak,  
Zure khoroon Iongoiko  
Handiak ezarriak,  
Entzun etzatzu lehenik  
Aitak iratxakiak.

### **Aita Iainkoak eman laur pribilejioak**

1. O Birjina sakratua,  
Iainko Aitak beretzat,  
Hautatu zintuen espos  
Eder eta maitetzat,  
Zuk hauta nazazu arren  
Zeure zerbitzarizat.

2. Halaber andre saindua  
Seme onarentzat zu,  
Ama saindutzat zintuen  
Berzetarik hautatu,  
Zeure umetzat zuk arren  
Othoi hauta nazazu.

3. Gehiago haste danik  
Egin zintuen garbi,  
Adamen tatxarik gabe  
Hargatik gatzarazi,  
Zuk tatxatu gabe nazazu  
Lurrean biziari.

4. Berthute ederrez zintuen  
Sortzetik berregindu,  
Hetzaz zintuen mundua  
Miragarri argitu  
Berthute ederrez ene  
Arma bista zazu.



O Birjina sindua hauk  
 Dire pribilejoak,  
 Zein batzarozkitzun Aita  
 Aithortu Iongoikoa,  
 Orain aldiz entzun tzatzu  
 Semea ganikakoak.

### **Semeak eman lau pribilejoak**

1. Zeure semeak handiro  
 Estimatu zintuen,  
 Zeren agradatu zere  
 Sabel garbiaz baitzen  
 Ene zerbitzo aphurraz  
 Agrada zaite arren.

2. Halaber sortu zenean  
 Berehala zureez,  
 Hastekotzat hautatu zen  
 Ugatz guztiz xahuez,  
 Agrada zaite arren ene  
 Obra eta nekeez.

3. Gehiago haurtxo zela  
 Bere gobernaritzat,  
 Hautatu zintuen eta  
 Biziazen gidatzat,  
 Agrada zaite nik neure  
 Zu hartzeaz gidatzat.

4. Adinetara ethorri  
 Gero noiz ere baitzen  
 Bere nekeen lekhuko  
 Nahi izan zintuen,  
 Fabora nazazu neure  
 Traillaletan arren.

Huneraño Iainko Aitak  
 Eman pribilejoak,

Nola manera berean  
 Semea ganikakoak,  
 Hauk Espiritu Sainduak  
 Aithorturikakoak.

### **Espiritu Sainduak eman lau pribilejoak**

1. O Birjina Espiritu  
 Sainduak zu beretzat,  
 Hautatu zintuen tenplu  
 Eta eliza saindutat,  
 Zuk hauta nazazu arren  
 Zeruko dohatsutat.

2. Zeure arima zerotzun  
 Argi sainduz arraitu,  
 Zure asko misterio  
 Ehortzi rebelatu,  
 Ene arima argi sainduz  
 Arren arrai ezazu.

3. Zurekin ere zitzaion  
 Gehienik lakhetu,  
 Zerengatik prefektana  
 Baitzintuen ezagutu,  
 Berthutetan othoi perfekt  
 Zuk errenda nazazu.

4. Fiñean andre saindua  
 Berze guztienetik,  
 Zu oneritzi zintuen  
 Kreaturen gañetik,  
 Zeure bihotzaren onhets  
 Nazazu barrenetik.

O Birjina sakratua  
 Haur da zure khoroa,  
 Hamabi diamant harri  
 Guztiz ederrezkoa,



Arren errezibi zazu  
Ene laudorioa  
Eta zeruan zakizkit  
Gertha arartekoa.

*Haukin ondoan erratziketzu, lau Pater Noster,  
Eta hamabi Ave Maria, eta gero errakezu.*

O Birjina arren ene salutazionea, pag.

## VI. burua

*Andre dena Mariaren zazpi sentimenduak*

### **Andre dena Mariaren zazpi bozkarioak edo gaudeak eskaraz**

1. Boz zaite Kristoren ama  
Konzebitu zinduena  
Espiritu Sain ganik  
Gabreilek berria erranik,  
Zuk egidazu dohañik  
Egiteko gogoeta onik.

2. Boz zaite erdi zinena,  
Sentitu gaberik pena,  
Eta birjinitatea  
Begiraturik zeurea,  
Indazu kastitatea  
Guardatzeko faborea.

3. Boz zaite oraño andrea  
Zergatik zure semea,  
Ikhustera erregeak  
Ethorri ziren nobleak,  
Ohoratzeko zureak  
Indazu antze berthuteak.

4. Boz zaite halaber zeren  
Zure semea bitztu zen,  
Zeñen hilltzeaz handia  
Baitzinduen tristezia,  
Zuk egidazu grazia,  
Ez iauntzeko tristezia.

5. Boz zaite zeren bitztu zen  
Eta libratu gintuen  
Pena eta lazeriatik,  
Handi eta kruiseletik  
Zuk othoi lazeriatik,  
Libra nezazu neuretik.

6. Boz zaite zeren zerura  
Igan zen izarratura,  
Zeure begiez ikhusten  
Zinduela hara igaten,  
Egidazu grazia arren  
Gozatzeko gloriaren.

7. Boz zaite zeroni zeren  
Haren ondoan igan zinen,  
Eta egidazu grazia,  
Niri ere berezia,  
Han ikhusteko zurea  
Seme gloriatz bethea.

### **Andre dena Mariaren zazpi doloreak**

1. Dolore guztiz handia  
Zinduen andre ezta  
Iudasek zure semea  
Saltzez guztiz maitea.  
Egidazu leialdatea  
Guardatzeko faborea.

2. Dolore oraño handia  
Zinduen andre garbia



Preso hartu zutenean  
Soldaduek baratzean  
Pena indazu bihotzean,  
Karzelatuen gañean.

3. Dolore pare gabea  
Zinduen zeure semea,  
Ikhustez larrutua  
Eta arantzez zillhatua,  
Indazu othoi damua  
Penan denenan iustua.

4. Dolore eta ondiko  
Halaber zinduen asko,  
Ikhusi zinduenean  
Habe pisua soñean,  
Pazientzia nekean  
Indazu eta dolorean.

5. Bañan are gehiago  
Zinduen min eta ondiko,  
Ikhustean eroria  
Soñean habe handia,  
Ez erortzeko gaizkira  
Zuk egidazu grazia.

6. Dolore guztiz andia  
Zinduen eta tristezia,  
Mallu kolpeka aditzean  
Zurarekin itzatezan,  
Pairu indazu bihotzean  
Laidozko hitz entzutean.

7. Fiñean andre mansoa  
Handi zinduen ondikoa  
Zeure semea ikustean  
Hilltzen ohoñen artean  
Aurkhi zaitezke ene aldean  
Ene azkhen orenean.

### Andre dena Mariaren zazpi gloriak

1. O birjina hautetsia,  
Ohore duzu handia,  
Zeren gatik birjinena  
Zaren flore ederrena,  
Zuk araztasunarena,  
Indazu desirapena.

2. Halaber ohore duzu  
Zeren lehertu baituzu,  
Suge ezten pozontsua  
Gure ama Eba zaurthua,  
Egidazu othoi donua  
Bentzutzeko bekhatua.

3. Handi da oraño gloria  
Zurea andre handia,  
Zeren iarria eskunean  
Zauden semearenenen,  
Zuk lekhu zeru gorean  
Indakezu zeure aldean.

4. Ohore eztuzu ttipia  
Halaber andre ezta,  
Zeren baitzare portua  
Penatuen kalmatsua,  
Zaren ene ihes lekhua  
Eta penan gaztelua.

5. Ohore duzu handia  
Oraño andre garbia,  
Zeren arkanjeluena  
Zaren andre gehiena,  
Ikhus azu ene pena  
O andre bihotz berena ama.

6. Ohore duzu handia  
Zeren baituzu gloria,



Zuk bakharrik gehiago  
Berze saindu guztiak baño,  
Zuk egin nazazu baso,  
Glorian parte izateko.

7. Fiñean ohore duzu  
Zeren altxatu baitzaitzu,  
Lurren hanbat aldera  
Eliza eder eta dorre,  
Zeronek indazu antze  
Zure ekhartzeko ohore.

***Inviolata integra, eskaraz***

O Maria andre guztiz  
Aratz eta xahua.  
Zein egin baitzare athe  
Zeruko arraitsua.

Eta zein Iesus onaren  
Baitzare ama mansoa,  
Adi zazu arren gure  
Othoitz bihotzezkoa,

Ardiats dietzagutzu  
Semea ganik graziak.  
Gure gorputz eta arimak  
Bethi diren garbiak.

Hartzaz ertxatzen zaitugu  
Ahoz eta bihotzez,  
Ardiats diezaguzun  
Hura zeure othoitzez.

Oraño othoizten zaitugu  
O andre amulsua,  
Ardiats diezaguzun  
Hautsen barkhamendua.

Dohain hura egiguzu  
Zeruko erregiña.  
Eta gelditu zinena  
Erdiz gero Birjina.

**Andre dena Mariari  
edozein orduz othoitzza**

O Birjina aingeruek  
Laudatzen zituztena  
Eztezazula mespreza  
Gure triste auhena.

Aitzitik othoi urrikal  
Bekizu lazeria,  
Haran behere hauetan  
Dakusagun handia.

Eta sentitzatzu gure  
Ondiko eta penak  
Nola fabore eskatzen  
Zaikitzen bineenak.

Hartarakotz zeruetan  
Kredit duzun bezala,  
Zuk librzazi gaitzazu  
Hetarik berehala.

**Arrosaioko prozesionearen  
ondoko othoitzza**

*Versus, Ora pro nobis.*

O Iongoikoaen ama  
Gutzaz othoitz egizu.

**Ihardatstea**

Iesus Kristoren agintzen  
Aurkhi gaitezen xahu.



## Othoitza

O Iainko handitasunez  
Neurririk gabekoa,  
Fabora zazu balderna  
Arrosariokoa.

Eta egiguzu grazia  
Arren misterioak,  
Hala kontenpla detzagu  
Arrosariokoa.

Non munduko dugunean  
Akhabetu kursua,  
Zeruan goza dezagun  
Hekin fruitu saildua.

Ardiats diezaguzu  
O Iesus dohain hura,  
Zeruan dituzun kredit  
Handien eredura.

Amen